

■ Erditze naturala vs. medikalizatua



ARGIA

2007ko abenduaren 9a | LXX. urtea | 2.114 zenbakia | 3,60 euro

■ **Elkarrizketa**

Cristina Garaizabal
psikologoa, prostitutez
eta minoria sexualez

■ **Iritzia**

Harkaitz Cano
Gidoilarien laudorio

sareko argia

10 urte

sarean libre

42.

Durangoko Azoka

Pixka bat
es mucho!!



Zuk uste baino gehiago
dakizu euskaraz.
Hitz egin lasai.
Ekin Ukan Ekin.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

www.pixkabatesmucho.net

Pertsonaia

- 16 Cristina Garaizabal: "Prostitutek eskubide laboralak behar dituzte".**
Amets Arzallus.



Gaiak

- 24 Erditzea: Aukerarik pertsonalena.** Lierni Alkorta.

Iritziak

- 29 Asisko Urmeneta.** Gora Pro Nobis.
30 Ur Apategi. Ttakun (h)errenka.
Alkartasun batuak uztartuz.
31 Juan Kruz Lakasta. Luparekin. Kain nafarrak.
32 Iñaki Zubeldia. Iturriak herriko jendea edan du.
Joxerra Garzia. Errentagarritasuna.
33 Gotzon Garate. Euskal filologoak.
Joxemari Ostolaza. Kontrola.
34 Harkaitz Cano. Abenduko zirtak.
Gidoilarien laudorio.

Erdiko kaiera

- 52 Ezpalak.** Jon Torner.
54 Abarrak. Mikel Asurmendi.
56 Denbora-pasak. Ana Zambrano.
58 Ihesi. Markina, sortaldeko etsaientzat harresia.
Amaia Ugalde.
62 Makina bat kontu. Jabier Agirre, Joxerra Aizpurua eta Jakoba Errekondo.
64 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 65 Ixone Legorburu eta Fernando Arburua: "Lehen pentsaezina zen zortzi urte kartzelan pasatzea".**
Lander Arbelaitz.
68 Ikus-entzunezkoak: Alferrik euskaratutako filmak.
Ander Altuna.
70 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
72 Net Hurbil: Kazetaritza berria pistolaz idatzi zuen Rodolfo Walsh-ek. Pello Zubiria.



6 | Sareko Argiak 10 urte | Erredakzioa



Hamarkada bat pasa da Interneten ARGIAko lehenengo edukiak jartzen hasi ginenetik. Egun, berezko izaera lortuta, eduki, diseinu eta teknika berriak eskaintzen ditu gure webguneak. Bertan aurkituko duzuna paperera ekarri dugu ale honetan.

5 | Deabruaren abokatua: Martin Barriuso


Fermin Etxegoien

36 | Bertso berriak

Estitxu Arozena

74 | Azkena

Josemari Velez de Mendizabal



37 | 42. Durangoko Azoka

Abendua izanagatik arroparik gabe azaldu da Olentzero Durangoko Liburu eta Disko Azokara. Guk jantzita hitz egin dugu sei euskal editoreekin eta Txuma Murugarren musikariarekin.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta. Dokumentazioa: Garbiñe Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L. Sareko Argia: Eli Pombo, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Urtzi Azipiroz, Olatz Korta. Publizitatea: Nere Armendariz, Urko Vivar. Idazkaritza Teknikoa: Ixabel Bereziartua. Sustapena: Esti Parada. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte, Aloña Soraluze. Bezeroen harrera: Nagore Lozano.

Argitalpenak: Arantza Egaña, Alai Zubimendi. Zerbitzuak: Joxe Mari Irazusta, Lore Agirrezabal, Naiara Irureta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: P.K. 140. 48.100 Mungia. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpide@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 130 euro, Ipar Euskal Herria: 160 euro. Espainia: 130 euro. Beste atzerriak: 165 euro. Airez: 260 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagailña Taldeko partaidea da.

Azala: Antza. Azaleko irudia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Abenduaren 5etik 9ra

ARGIA

Durangoko azokan



Erosi ARGIAren produktuak eta eskuratu zure txartela.
Zain dituzu 200 sari baino gehiago.

*** Eta harpidedun bazara
doan jasoko dituzu zure
txartela eta ARGIAren
kamiseta.**

“Lagun ona baina maitale jeloskorra da maria”

Martin Barriuso | Kalamuzalea

Elkarte Kanabikoen Federazioko presidentea da eta dauzkan komunikatzaile dohain apartak hedabide askoren artean partekatzen ditu.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazia: Iñigo Azkona

Euskaltzaindiak “drogazale” hitza aholkatzen du “drogadikto” hitzaren ordeaz. Ondo irudituko zaizu, noski... Jakina. Adikto, menpeko eta holako hitz peioratiboen drogetan aurki daitekeen alde ona ikusteko gai ez diren moralista ustelen ukitua dute.

Zuk ez al duzu kontrakoa egiten: drogaren alde txarra ezkutatu?

Nik ez dut ezer ezkututzen, baina alde ona ere eza-gutu behar dugula uste dut. Eta erabakitzeko askatasuna eduki behar dugula erabilera arduratsua egin ahal izateko.

Droga onak eta droga txarrak al daude?

Drogak erabiltzeko modu onak eta txarrak daude, drogek ez daukate gizakiok beraien aitzakiaz egiten ditugun astakerien errua.

Egin berri diren kontrolen arabera, hirutik batek droga hartuta gidatzen du. Eragiten dituzten istripuetan droga hartu ez dutenak ere hiltzen dira...

Edozein sustantzia legezko edo legez kanpoko hartuta, besteentzako arriskua sortzen duen gidaria zigortu behar da. Baina hasi berri diren kontroletan kontsumitzaile guztiak zigortzen dituzte, baita eragina aspaldi pasatu zaiona ere.

Hedabideetan zuk bezain ondo hitz egiteko, komenigarria al da maria erretzea aldeaz aurretik?

Maria hitz egin eta gero erretzen dut, inoiz ez lehenago, bestela gehiegi luzatu edo haria galtzeko arriskua dut. Idazteko, berriz, lagungarria izaten zait ia beti.

Mariari buruzko poema batean sartuko zenukeen bertsoa...

Sentitzen dut, baina oso txarra naiz bertsotan. Prosa ez esan ahal dizuet maria lagun ona baina maitale jeloskorra dela.

Hedabideetan agertzearen erotikaz hitz egin zenezake?

Nik ez diot “puntu” erotikoa aurkitzen. Zalantzarik gabe, boterea ematen dizu eta jende askok zu eza-gutzeak abantaila batzuk ematen dizkizu. Baina era berean, ezaguna izateak askatasuna kentzen dizu, paranoia sortzen dizu, ez da egia gehiago ligatzen denik, eta astun pila batekin toreatu behar da.

Zein da zure hobby gustukoena?

Sexua esango nuke, baina ez da hobbya, oinarritzko beharra baino. Beraz, klasiko jarriko naiz eta mendian ibiltzea eta baratza lantzea erantzungo dut.

Dena eraman nahi izaten duzu baratzerara?

Zergatik ez? Baratza oso leku atsegina da. Txinako esatera zahar batek dio bizitza osoan zoriontsua izateko bidea baratza edo lorategi bat zaintzea dela.

Behin Zutik alderdiaren kartel batean ikusi zintudan, gaixo bat anbulatoriora eramaten... Modelo bat bezala posatzeko azken finean!

Gizonok modelo berriak behar ditugula uste dut eta, lotsa eman bazidan ere, posatzeko konbentzitu ninduten. Eta ez zait damutzen, kanpaina polita izan zen.

Baina zure buruaren hain irudi ona ematea ez al da harrokeria bekatua?

Ni ez naiz ezeren eredu sentitzen, eta jendeak bada-ki horrelako kanpainak hausnarketara bultzatu nahi gaituen antzerki mota bat baino ez direla. Gainera, seguru nago batzuek esango zutela: “Begira Barriuso hori guai planta egiten!”.

Esaldietako bat hautatu mesedez: “Beste mundu bat posible da” ala “badira beste mundu batzuk baina honetan daude”.

Biak dira egia borobilak. Zergatik hautatu behar dut bata ala bestea? ■

Sareko Argiako edukiak paperera ekarrita

ARGIA duzu esku artean, irakurle, joan-etorrian atzamar puntak astero ferekatzen dituzten orriak, dagoeneko ondo ezagutzen dituzunak. SAREKO ARGIA erakutsi gura dizugu orain eta ondorengo lerroetan duela 10 urte hasitako ibilbidea gaur zertan den azalduko dizugu.

XABIER LETONA

1997KO BUKAERAN harrapatu gintuen sareak eta, hala ere, hamar urte geroago “sarean libre” diogu. Eta etorkizuna aurrez aurre, zabal bezain aske irudikatzen ditugu datozen hamarrak ere. Astekariko edukiak, euskal kultura egunez egun, bidaia, bertsoak, erleak, mendi irteerak, jokoak, sagardoaren mundua, kultur agenda, bideoak, soundslaidak... Unibertso txiki bat ARGIAren leihotik mundura begira.

Estitxu Eizagirre Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren azken txanpan murgildu da eta bertso-larien ideologiaren adar bati heldu dio. MP3a eta bideoa poltsan, multimedia ere txertatu du bere **Gari alea** blokan. Bertsolaritzaren mami eta azala jarraitu gura duenarentzat ezinbesteko erreferentzia.

Eta ez dakit jakingo duzun, baina EAEko hiru lurraldeetan datorren urtean irekiko dira lehenbiziko apustu etxeak. Jon Tornerrek emango dizu horren berri paperezko bere **Sarekada** bakarrean. Larunbatero zintzilikatzen du gai bat sarean, estilo hurbil eta zuzenean.

Pello Zubiriak ere oso gertutik jarraitzen ditu sareko gorabeherak, aldizkariko azken bi orrialdeetako *Net Hurbil* jarraitzen duenak ondo jakingo duen moduan; SAREKO ARGIA ere badu bere bikia. Baina orriotara bere erleak ekarri ditu, **Apiterapia** blokatik



atera eta hauen eztiak zaurien artatzean dituen onuren berri ematen digu. Zaharrak berri, Erresuma Batuko zenbait ospitale eta ikerlariaren esperientzia dakarkigu bere lerroetan.

Bidai batek eman zigun aukera bideogintzari ekiteko. 2006ko uztailean Amets Arzallusek eta Txomin Txuekak ohiko grabagailu eta argazki kameraz gain, bideo kamera ere eraman zuten hartan. **Boliviari** buruzko kanal multimedia plazaratzeko aukera eman zigun eta Arzallusek une haietako bizipenak dakartzkigu bere orrialdean.

Ettxeko izenak ikusten dituzu, irakurle, aldizkarian ere behin eta berriz kuku egiten dutenak, baina Euskal Herritik kanpora ere jo dugu orri hauek osatzeko: pasa orriak eta Vicent Partal Kataluniako Vilaweb egunkari elektronikoko zuzendariarekin egindako elkarrizketarekin egingo duzu topo. Gaia: IP telebista edo Interneteko telebista. Internetek ikus-entzunezkoen mundura dakarren iraultzaz ari da. Vilaweb tv egiten dute haiek bideoz.

Irakurtzen ari zaren lerroetako tinta Antza inprimategiko makinetatik atera da eta SAREKO ARGIA irakurtzen direnak kazetariak berak jarri ditu. Baina ordenagailuko lerrook suportatzen dituen softwarea eta mekanika Ametzagaña Taldeko iametza zerbitzu enpresa berriak hornitutakoak dira. Hauek gabe ere, bidaia hau ezinezkoa litzateke. ■

Ideologia ere epaitzen da

Gipuzkoako Txapelketan entzun diren mezuek, esanahiek, piztu didate arreta. Jakina da errimatu beharrak erabakitzen duela askotan esanahia. Jakina da baita ere oso estereotipatuak diren pertsonaiak hartzea errazagoa dela. Kontua da batez ere bakarkako gaietan, zeinetan

Joxerra Garziaren teoriaz geroztik kontziente garen emozioak eragin behar dituela bertsolariak, beraz mallkoak, beraz egoera dramatikoak, sortzen diren pertsonaia ezinduez oso ikuspegi murriztailea ematen dela, mingarri izateraino atzerakoia.

ESTITXU EIZAGIRRE

NOSKI ADIBIDE POSITIBO

askoak ikusi ditugula. Denen ikur, niretzat, Jon Maiak Tolosan egin-dako bakarkakoa: Down sindromea duen haurra-ren guraso bihurtu zen, eta benetan saio ona egin zuen. Baina beste-lakotik gehitxo entzun dugu: gurpil aulkian dagoen pertsona bat jada ez da bizi, bizitza aurrera doa baina bera ez. HIESA duena hutsa-ren hurrengo da, zori-gaiztoko erabatekoa. Ofiziokakoetan berdin, zahar guztiak berdeak dira, sexurako jada ez dute balio –nonbait sexua ez da bizitzaren parte, gaztetan bakarrik praktikatu daitekeen arrisku handiko kirola baizik–, zaharra herio-tza da zuzenean, eta euren esperientziak, bizitzaren ikuspegiak ez du nonbait bertso bukaera sakon baterako edo umorerako argudio nahikorik ematen.

Esan beharrik ez da, sexua sartu-atera-sartu-atera dela gizonen kasuan, eta “ase nau, ez nau ase” emakumeenean, neurriari lotuta beti, “ni etzanda nago eta ea asmatzen duzun” jarrera pasiboan.

Etorkinek, nahiago dute bidean ito herrira itzuli baino –euren herrian suizidatzeko zubirik ere ez dute edukiko, gajoeak–, ez dute inolako esperantzarik, ez dute irteerarik... Dakidala, ez da edonor, ordea, *pateran* sartzen dena, familiek oinordeko onenak bidaltzen dituzte, ez gutxi ordainduta, eta gu bezalaxe, bizimodu hobe baten esperantzak mugitzen ditu.

Askotan gaia hartzeko modua izaten da horrelako hanka-sartzeak egiteko modua. Alegia, gaiaren parte den pertsonaiak ez duela hitzik, eta bertsolariak beste pertsona horrek entzungo ez balu bezala kantatzen



ALBERTO ELOSEGI

duela. Egoerari abstraktuan kantatzen zaio, egoera horretako pertsonaiak *pause*-an baleude bezala, ezer esan eta entzun gabe.

Errealismo falta horrek dakar gordintasuna, badakizu, denoi pasa zaigu gizonak jotzen duen bizilagunari “egunon, eguraldi petrala gaur, ez?” baino lehenago “ez zaitez isildu, zure gizona salatu ezazu” esatea. Bizilagunon arteko konfiantza ez da gatz pixka

bat eskatzetik aurrerago joaten, baina hain egoera pertsonaletan sartzeko denok gara Superman. Eta tratu txarrak jaso dituen emakumeak ere diskurtso planoan egiten du, gizon kabroi hori bere seme-alaben aita dela ahanztzita, agian oraindik maiteko ez balu bezala, munduko gauzarik errazena separatu eta dena ahanzteak bailitza.

Diskurtsoa ezin du epaileak epaitu, bestela, lehenaz geure buruari jartzen diogunaz gain, zentsura ikaragarria litzateke. Baina publikoak bai epaitzen dituela saio bakoitzaren diskurtsoak. Eta bat-batekoa izatea ez da beti arrazoiak; bertsoa bat-batekoa izanagatik diskurtsoa, pentsamoldea, ideologia, norberak landu beharrekoa baita. Orain arte inori ez zaio bat-batean “gora Franco” esatea tokatu.

Gizarteko gutxiengoak publikotik kanpo daudela iruditzen zaigu beti, baina Ilunbeko harmailetan zahar pila egongo da hala desio nuke, eta itsu bat, HIESAren frogatik egitea tokatu zaion bat eta senarraren kolpeak jaso dituen bat ere bai, nik ezagutzen ditudanak. Hortik aurrerakoak zenbat diren kontuak atera. ■

<http://www.argia.com/blokak/garialea>
kanalean, Gari alea bertsolaritza bloka.

Gari alea

Garagardo zaporeko apustuak

Datorren urte hasieran lehenengo apustu-etxeak irekiko dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Apur bat geroago terminalak jarriko dituzte zenbait tabernetan. Eutsiko al diogu tentazioari?

BAIETZ BARRIOLAK EGURRA EMAN! Titinek oraingoan ez dik huts egingo! Barriola ez duk 16ra helduko! Baietz Titinek 15 tanto egin! Igan-dean Lau t'erdiko finala jokatu zuten Gasteizko Ogeta pilotalekuan Abel Barriolak eta Titin III.ak. Han izan bazineten, agian egingo zenuten apusturik. Baita partidua telebistaz jarraitu zenu-tenok ere, izan lagunekin, lankideekin, etxekoe-kin zein taberna zuloan zuen ondoan eseri zen espontaneoarekin. Halakoetan aditu bihurtzen gara guztiok. Ideiarik ez izan arren, mihia dan-tzan jarri eta albokoak xaxatzen hasten gara, hark dirua mahai gainean jartzen duen arte. Horretan abila gara euskaldunak. Edozein kirol desafiok bultzatzen gaitu besteak baino jakin-tsuago garela erakutsi nahi izatera.

Duela gutxi arte apustuak paper gainean sina-tzen genituen ia beti, baina pixkanaka Internet indarra hartzen ari da. Erosoa da, eta era askota-ko apustuak egiteko aukera eskaintzen du. Kirol mota guztien ingurukoak, gainera. Futbola, sas-kibaloia, auto lasterketak eta txirrindularitza bezalako kirol ezagunez gain, nazioartean hain-beste jarraitzaile ez dituzten kirolek ere badute lekuri Interneteko apustu-etxeetan. Betfair.com enpresak, adibidez, Barriola-Titin finalerako apustuak antolatu zituen.

Kafe, garagardo eta ke arteko apustuak egi-teko aitzakia gehiegirik behar ez genuenok, sentipen kontrajarriak sorrarazi dizkigun albis-tea jaso berri dugu: datorren urte hasieran lehenengo apustu-etxeak irekiko dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Hiru enpresek

JON TORNER

lortu dute lokalak irekitzeko Eusko Jaurlaritzaren lizentzia: Euskal Kirol Apustuak (EKASA), Teleapostuak (Aspe eta Egursport enpresen elkarlanetik sortua) eta Garaipen Victoria Apustuak (Codere, William Hill eta Gabascar –Asegarce eta Bainet biltzen dituen enpresa nagusia– enpresek osatzen dute). Apustu-etxeek Ingaleterrakoen tankera izango dute. Apurka-apurka irekiko dira eta 0,20 eta 100 euro bitarteko apustuak egin ahal izango dira Espainiako Estatuan aitzindari diren lokal horietan. Euskaldunen neurrira egokitutako apustueta parte hartzeko aukera ere emango dute. Pilotaren, estropaden eta herri-kirolen ingurukoetan, esaterako.

Lokal horietara ziurrenik ez gara joango, baina aipatutako hiru enpresek bingo, kasino eta tabernetan ere jarriko dituzte apustu makinak. Tabernak dira gure eztabaida eta adarjotzeen agertoki, eta alboan apustuak egiteko aukera eskainiko duen makina izateak zeresanik eman dezake. Albistea jakin-minez jaso dugu, baina beldur pixka bat ere badugu, litekeena delako tentazioari ezin eutsi eta edozein kirolen inguruko apustuak egitea. Horregatik sentipen kontrajarriena. Zentzuz jokatzeari besterik ez dugu.

Informazio gehiago:

www.ekasa.net

www.victoriaapuestas.es

www.kiroljokoa.com (Teleapostuak) ■

<http://www.argaia.com/sarekada.php>

kanalean, Sarekada gehiago.

Sarekada



ASEGARCE



MIHILUZE mahai jolasa



**Jolas ezazu
telebistako
programan bezala**
eta erakutsi benetan
MIHILUZEa zarela

Ba al dakizu nola esaten den
leioa Ultzaman?

Bixkor-bixkorra al zara galderak
erantzuten?

Mihiluzea zarela baina ez zara inoiz
telebistako programan parte hartzera
ausartu?

33€

**ARGIAren
harpidedunek
%15eko
deskontua**

Eskaerak

943 37 15 45
denda@argia.com
www.argia.com/denda

Zauri gaiztotuenak goxatzen ditu eztiak

The benefits of honey in wound management (Eztiaren onurak zauriak sendatzeko) lerroburua ez da apiterapiari buruzko webgune batekoa, ez eta medikuntza alternatibozko aldizkari batekoa:

Britainia Handiko erizainen elkarteak plazaratzen duen *Nursing Standard* kazeta instituzionalak ekarri du eta Richard White mediku eta ikerlariaren sinadura darama. Orain, berriz, Richard White bera, Peter Molan eta Rose Cooper-ek –zaurietan espezializatutako medikuak hirurak– honako liburua argitaratu dute: *Honey: A Modern Wound Management Product* (Eztia, zauriak artatzeko produktu modernoa).

PELLO ZUBIRIA

APITERAPIAKO LIBURU ETA ALDIZKARIETAN

xeheki esplikatuta izan dira erle eztiaren onurak. Baina azkenaldian osasungintza publikoan usu aipatzen ari da. Eztiaren ahalmen terapeutikoak aztertzen dira, eta ikerketon emaitzak plazaratzen. Hona horietako bat. Mundu aberatseko ospitaleetan hedatu den izurriari dagokio. Orain gaixo asko kliniketan bertan gogortu diren bakterioek –*Staphylococcus Aureus*-en andui menderakaitzek, esate baterako– kutsatzen dituzte eta bakterio egoskor horien kontra ahulegiak dira orain arteko antibiotikoak. Aldiz, mikrobio horien kontrako guduan erle ezti emaitza onak ari da eskaintzen.

Richard White eta beste bi medikuek argitu dutenez, historian zehar betidanik erabili izan da ezti zauriak goxatu eta sendatzeko, baina antibiotiko berriak hedatu zirenetik osasungintzako saretik kanpora geratu zen. Antibiotikoei aurre egiten dieten bakterio bortitzagoak azaldu direnean, jakintsu asko erremedio zaharretan hasi dira erreparaka.

Urteotan, ezti erabili da artatzeko erredura larriak, azal txertaketak, lesio onkologikoak, irradiazioak eragindako erredurak, ebaki ultzeratuak, diabetikoen oina deitua, operazio kirurgikoen orbainak, eta abar.

Medikuntza ofizialak erabilera horiei oniritzia eman aurretik azterketa asko eginarazten ditu, tartean “Randomised Controlled Trial” (RCT) delakoa. Hori gaingitu duten ikerketak aipatu dituzte erizainen artikuluan. Etsenplu bat jartzeko, eztiak eman omen ditu zauriak artatzeko emaitza hobekak sarritan erabiltzen den zilar sulfidiazinak baino. Beste produktu askorekin alderatuz, berdin.

Sendagileok erizainei gomendatzen diete ezti erabiltzea honako kasuetan: zauri kroni-



Mutikoa aberaska prestatzen ari da, zentrifugaziot ezti ateratzeko.

Apiterapia

koetan, zauria sendatu ez eta infektatu denean, erredurak bezalako zauri kroniko infektatuetan, eta larruazaleko txertaketa edo injerto aurretik prestatzeko.

Gaur badira marka komertzialak –Medihoney izan liteke famatuena– osasun sistemaren estandarretan sartzen diren ezti eginak. Eztiok aurki daitezke hodian (liki-do zein ukendu edo gel moduan), ezti inpregnatutako saretan, ezti blaitutako oihaleetan, eta antzeko formulazio gehiagotan. Gainerakoan, bere burua erremedio naturalekin zaindu nahi duenak, badaki zauriak sendatzeko ezti bezalako gauza gutxi dagoela. Izatekotan, ezti bera propoliz aberastua. ■

<http://www.argia.com/erlea-apiterapia>
kanalean, Pello Zubiriaren Erlea & apiterapia bloka.



HERRIAREN TAUPADA



Hieri bat eta bere nortasuna 90 minututan. Mugaria jarri zuen filma.

Herriaren zerizana frankismoaren zentsura saihestu zuen dokumentu bikain batean.

EKHEk berriskuratu eta zaharberitu du Fernando Larruqueren eta Nestor Basterretxearen film emblematico eta hunkigarria.

**DVD/Liburua 14,95 €
+ GARA**

Abenduaren 6tik aurrera, salgai kioskoetan eta Durangoko Azokan, GARAREN erakustokian.

GARA
bikotza azalean

Argiaren abiadura

3 x (10 x 8) m/sg: irudikatzeko gaitasunari ere ihes egiten dio, ezin da ikusi bi begiez, ez hunkitu hatzez, azkarregi doa argia. 300.000.000 metro segunduan; burmuineko auskalo zein hemisferiotan eta zein txokotan egongo den espazio eta denbora hori biak batean interpretatzeko argia, baina hori pizterako alde egin du hark, eta orduan, eseri lasai, eta konparaziotan hastea baino ez da gelditzen. 300.000 kilometro segundo bakar batez, Gibraltarreko putzua ehuneneko bat baino azkarrago. Begi guztiak baino azkarrago doa argia.

AMETS ARZALLUS

AIR MADRID makalagoa da. Hogeita hamar ordu pasa zituen gu Boliviarraino eramaten. Bezperan jaso genuen bideokamera berriaren funtzio oinarritzkoenak ikasteko eta berrikasteko beste. Sekula ez nuen hartua nik halako kamera bat esku artean, eta holakoetan dardara egiten du eskumuturrak. Baina ez eskumuturrak bakarrik. Ez nekien nik zer zen Internet erabiltzea.



FOTO © TXOMIN TXUEKA

Internet e-mailak zirela uste nuen hasieran, gero informazio web orriak zirela, edo bideoak ikusteko zela Internet. Baina sortzeko eta zabaltzeko erreminta bezala ez nuen ezagutzen sarea. Eta ez naiz gainera, oso bakan batzuk kenduta, blog pertsonalen zalea. Gu Boliviara abiatu ginenean, hamar eguneko bloka, argazki erakusketa zenbait, eta bideo batzuk ekarriko genituela, erdi hitza hartuta joan ginen. Eta La Pazen ikasi nuen Internet zer ere baden, kalean hiru metro ibili oro zapata garbitzaile bat eta ziber bat ikusten dituzun hirian.

Bolivia

Plaza bat aurkitu nuen, kazetaritzatik harago eskapatzeko kale bat, eta bide batez, hitzez sortu eta mugitu ezin diren irudiak zabaltzeko sare bat. Eta ez dakit zer arrantza izango ote zuen, baina dakidana da aurrez ikusezina zitzaidan tresna ikusgarri egin zidala. Eta baliagarri.

Eta beldurgarri. Azkarra da Internet, argia bezain. Eta errotatibean arrabolak garbitzen

bost minutu pasa behar dituen langileari pentsa nora joan zaion argia. Baina nire baitan, aldizkariak eta paper argitaratuak errespetu handia du. Jaiotze adin bat du eta zahartu egiten da, eta gogortu, eta apaldu, txokoan, itzalean. Internet beti dago argitan, jaioberria balitz bezala, espazioan eta denboran iragankortasunaren mugak hautsita. Hautsita egunkari eta telebisten arteko mugak. Informazio eta ezerezen arteko mugak. Denbora irabaztearen eta galtzearen artekoak. ■

<http://www.argia.com/bolivia> eta

<http://www.argia.com/palestina>

helbideetan, Bolivia eta Palestinako bidaiei buruzko kanalak.

**gure!
artean!
euskaraz**



Vicent Partal, Vilaweb-eko zuzendaria

«Lurreko telebista digitala erabateko porrota izango da»

Egunkari elektronikoetan liderrak dira Katalunian eta duela bi urte Vilaweb tv hasi ziren egiten. Dagoeneko 500dik gora bideo dituzte sarean. Telebista kartara egiten dute horrekin, bere esanetan Interneteko telebistaren ezaugarri garrantzitsuena. Internetek telebistara dakarren iraultzaz aritu zaigu: "Idatzizkoetan izandakoa baino askoz azkarragoa izango da".



VILAWEB

Azalduko al duzu modu laburrean zer den IP telebista, Interneteko telebista?

Laburrean esanda, Internetez zabaltzen den edozelako bideo formatua da IP telebista. Era askotara ikus daiteke, esate baterako YouTube ospetsua bera, nabigatzailearen leiho txiki batean ikusten dena. Edo Internetez zerbitzatu eta, aparailu batzuen bidez, etxeko telebistan ere lasai asko ikus daitekeena.

Ettxeko sofatik normal ikusi daitekeela diozu. Formatuaz gain, beraz, zein da ohiko telebista eta IP telebistaren arteko desberdintasunik handiena?

Ohiko telebistan dagoena jasotzen dugula eta Internetekoa kartara egindako telebista dela, hau da, guk nahi duguna aukeratuko dugula. Kable bidezko telebistak eskaini dezake kartara egindako telebista, baina oso modu mugatuan.

Zein da, beraz, zuen helburua Vilaweb tvrekin?

Duela bi urte hasi ginen proiektu honekin, gure ustez edozein komunikabidek egon behar duelako komunikazioa egiteko dauden molde guztietan. Egunkari elektroniko gisa Vilaweb oso ondo sustraitua genuen eta telebistaren apustuari ekitea pentsatu genuen, gure bezeroak jakin dezan telebista ikustea erabakitzen duenean, bai ordenagailuan edo bai telebistan, Vilawebek hori ere eskaintzen diola.

Zein izan da bi urteko ibilbidearen aurkikuntza nagusia?

XABIER LETONA

Guk ere telebista egin dezakegula frogatzea, hori izan da funtsezkoena. Bideo laburrekin, kalitatezko telebista produktuak egin daitezkeela frogatu dugu eta, beraz, gero eta gehiago zaborrez betetzen ari den telebista generalistaren aurrean IP telebista alternatiba ere bilaka daitekeela.

Konklusio nagusietakoa da LTD (Lurreko Telebista Digitala) estatuan planteatu den moduan absurdoa dela. Ez du inongo zentzurik hainbeste telebista kate izatea, tamaina horretako telebista produkzioa... Hori erabateko porrota izango da.

Eta zergatik izango da alternatiba IP telebista?

Jakina, hori ekoizten den arabera da, baina gaur egungo telebistaren kalitate txarraz kezkatuta gaudenontzat aukera interesgarria da. Edukiak norberak sor ditzake eta 20 edo 30 minutuko telebista produkzioa eskaini. Jendeak batez beste ordu bate pasatzen badu telebistaren aurrean egunero, norberak ekoiztutako kalitatezko produktu horrekin lehiatu zaitezke beste telebistekin.

Gureak moduko kultura txikiak ezin izango dira demografikoki lehiatu gaztelania, frantsesa edo ingelesarekin, eta alde horretatik, kostu egokietan gure kultura eta hiltun komunitateentzat kalitatezko produktuak ekoiztea ahalbideratzen du IP telebistak.

Oraindik, dena den, jendeak Interneteko bideoak ordenagailuan ikusten ditu, eta hori ez da etxeko telebistaren aurrean egotea.

Oso epe laburrean aldatuko da hori. Podcast euskarria, Irons konpainiak herritartu duena, dagoeneko etxeko telebistan ikus daiteke Apple tv moduko tresnekin, nik hala egiten dut. Zenbait etxek dagoeneko esan dute hurrengo telebista aparailuek halako tresnak integratuak izango dituztela eta, beraz, prest izango direla Interneteko telebista ordenagailu eta dekodifikagailurik gabe ikusteko.

Abiadurarena da beste erronka. Oraindik ere askotan motel dabilta bideoak. Pentsatzen dut beste erronka handia banda zabal txukuna lorzearena izango dela.

Hori ere oso epe laburrean arazo txikia izango da. Kontua ez da banda zabaltzen ari dela, baizik eta artxiboen konpresio gaitasunean izugarri ari dela aurreratzen. Flash-ek dagoeneko irabazi du guda hori, ikusgarria da irudia kalitatez konprimitzeko duen gaitasuna, duela gutxi arte imajina ezina zen.

Teknologia honekin, jadanik ADSLarekin kalitatezko telebista ikus daiteke. Martxotik aurrera gainera, Adobek Flash-aren aldaketa handia iragarri du eta orduan sekulakoa izango da.

Ipar Katalunian eta Ipar Euskal Herrian, adibidez, han duten Free izeneko hornitzailea medio, telebista pertsonalerako aukera eskura dute. Hau da, zuk konektatzen duzu modemera zure bideo kamera eta Frantziako Estatuan

dagoen Free-ko edozein erabiltzailei igorri ahal izango dizkiozu irudiak telebistako kalitatearekin. Horrekin, imajina ditzakezun aukera guztiak zabalik daude.

Zein da Vilaweb tvn eskaintzen duzuen programazioa?

Gaur gaurkoz informazioa bakarrik jorratzen dugu: elkarrizketak, erreportajeak... Eguneke bost eta hamar minutu arteko saioak dira eta eguneke 20-25 minutuko saioak egitea da helburua. Uste dut hortik gora egitea ez duela zentzurik, ikus-entzulea gehienez ordubete dagoelako pantailaren aurrean eta jakin badakigu Interneten dabilena ez dela guri bakarrik begira egongo.

Gainerakoan, saio finkoagoekin ere hasi gara: ostiraletan kirolari buruzko saio alternatiboa egiten dugu eta Enderock aldizkarikoekin hilero musika saio batekin hasi gara.

Zenbat jende daukaze bideoak egiten?

Gutiz horretan aritzen direnak bi, baina Vilawebeko gainerako kazetariak ere egin dezakete zerbait telebistarako eta, maila batean edo bestean, denek egiten dute. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>

helbidean, Vicent Partalek Sareko Argiaren 10. urteurrena dela-eta emandako hitzaldia bideoan.

kulturagenda

Abenduaren 1etik 15era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak

Eraiki, bete, hustu
Espazioaren erabilerak

Erakustaretoa

2007ko azaroak 29
2008ko otsailak 9

Bisitaldi gidatuak
kmk@komazk.com

BILUZIK
Miguel Angel Alvarez

2007ko abenduaren 12tik
2008ko otsailaren 2ra

Orduategia:
Asteartetik larunbatera
10:30-14:00 / 16:00-20:30
Astelehen, igande
eta jaiegunetan itxita



Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia

www.arteleku.net

Erakusketa

KEA

Abenduak 5-urtarrilak 5
Aitor Bengoetxea, Ion Arregi,
Martin Ferran.

Inaugurazioa:
Abenduak 5. 20:00.

Bideoaren aurkezpena

Hera Piadosa


Abenduak 5. 20:00.
Manu Uranga Aizpurua

Ikastaroa

Edizioa Avid
Xpress Pro eta
Avid Media Composer-en
bidez.

Abenduak 10-14

Emaila: Iñigo Eraso
Orduategia: 10:00-14:00
Prezioa: 120€
Taldeak: 6 lagun gehienez.





JTK 03

DVD

'UNE IRAUNKORRAK' GURE DVD BERRIA ETA BESTE AZKEN LAN GUZTIAK ERE ELKAR BANAKETAK STANDEAN TOPATUKO DITUZU:



SU TA GAR 2008 EGUTEGIA



MORE VOLUMEN TOUR 93 DVD



JAINKO HILEN UHARTEAN CD

JO TA KE EKOIZPENAK

Sutagar

HURRENGO KONTZERTUAK

ABENDUAK 14 L'HOSPITALET
SALAMANDRA ARETOAN

ABENDUAK 29 ANDOAIN
GAZTETXEAN

kontratazioa: 619116974 | www.sutagar.com



Cristina.
Garaizabal

«Prostitutek eskubide laboralak behar dituzte»

Psikologoaren kontsultara joan nintzen.
Eta psikologoa bere arazoak kontatzen hasi zitzaidan...

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Carlos Terreros

... Irudika dezala jendeak, gizon bat adibidez, goiz batean pitilina barrura sarturik esnatzen dela, eta bere inguru guztia neska deitzen hasten zaiola, eta femenino tratatzen dutela, eta denak tematzen zaizkiola gonak jantzi ditzan. Edo alderantziz, pentsa emakume bat goiz batean esnatzen dela klitori handi batekin, eta jende guztia tematzen dela bizarra luzatzen utzi behar duela eta utzi behar duela. Sufrimendu horixe bera da transexualak bizi duena. Eta horrek oso gogorra behar du. Baina gizartea ez da kontziente. Bestela ez da ulergarria sexu aldaketa osasungintza publikoak ez ordaintzea.

Guri ikastolan labezomorro bihurtuta esnatzen den mutikoarena kontatu ziguten. Transexualitateaz ez zigun inork hitz egin.

Eskolan gai hauetaz gehiago ez hitz egitea dramatikoa da, eta jende askori sufrimendu handia dakarkio, bere burua arraro sentitzen delako. Ez dira normalak ikusten, eta hori barne errepresio gogorra da, norbere buruari izatearen hegoak moztea, nolabait.

Psikologiak asko lagundu al dizu transexualitatea ulertzen?

Egia esan, transexualak ulertzeko, nik estudiatua nuen psikologia desegituratu gehiago egin behar izan dut horretan oinarritu baino. Baina ez dira teoria denak itsugarri eta trabagarri, badira psikologiaren munduan ere argia egiten lagundu didatenak, adibidez Judith Pavler.

Eta gizartea noiz hasi zen transexualak ulertzen? Baldin eta hasi bada behintzat...

Duela hogeit urte arte transexualari mespretxu handiz begiratzen zitzaion, arraroak balira moduan. Non eta trabestiekin nahasten ez zirenean, normalena nahasketa egitea baitzen. Baina 1990eko hamarkadatik aurrera hasi zitzairen bidea errazten, batik bat Transexualia bezalako taldeei esker. Gizartean jendea horretaz hizketan hasi zen, eta telebistan ere bai. Kazetariak baliatu egin zuten gaia eta *amarillismo* handia ekarri zuten, programa merkezurretako gai bihurtu ziren, eta telebistara eramaten zituzten transexual prototipiko eta folklorikoenak. Alde batetik onuragarria zen telebista transexualitateari buruz hizketan hastea, baina bestetik oso modu zabarrean eta folklorikoan azaltzeak transexualen irudi faltsua sortu zuen, eta horrek min handia egin dio transexual askori. Nik kontsultan ikusi ahal izan dudanez, telebistako irudi horrekin nahastuko ote dituzten beldur, transexual asko ikaraz egoten da bere izaera azaltzeko.

Zuk sekula jarri duzu zalantzan zure genero identitatea?

Ez, sekula ez. Beti eduki izan dut garbi nire emakume izatea, baina horrek ez du esan nahi frankismoak bultzatzen zuen emakume tradizional izatea gustatuko litzaidakeenik, sekula ez naiz identifikatu emakume pasibo, zaintzaile eta ama izatera eta etxeko lanetara mugatutako horrekin. Gehiago ikusten dut nire burua feminitate eta maskulinitate arrastoen nahasketan, baina inoiz ez dut zalantzan jarri nire emakume izatea.

Zure orientazio sexuala bai.

Tira, nik uste dut hori oso modu naturalean gertatu zitzaidala. Nire lehen harremanak heterosexualak izan ziren, gizonaekin maitemindu nintzen, eta egia esan oso zoriontsu izan nintzen su horren indarrak iraun zuen arte. Baina egun batean emakume bat gustatzen hasi zitzaidan, eta hori zela medio Madrilgo lesbianen kolektibo feministan sartu nintzen. Hain zuzen, orduan ezagutu nituen transexualak. Lesbianen kolekti-

Nortasun agiria

1955eko ekainaren 5ean jaio zen Tuteran (Nafarroa). Laster aldatu ziren gurasoak Bartzelonara, eta Cristinak haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa Bartzelonan pasa zituen. Euskalduna baino gehiago kataluniarra sentitzen da. Psikologia ikasi zuen Bartzelonako unibertsitate zentrolean, eta minoria sexualen eskubideen aldeko borrokan sutsu dihardu. Hetaira prostituten eskubideen aldeko elkarteko lehendakaria da. Duela hogeit urte joan zen Madrilera psikologo.

botik plataforma aldarrikatzaile bat egitea erabaki genuen, eta plataforma horretan ohartu ginen emakume transexualei buruz oso gutxi genekeela. Emakume transexualak esaten dut, garai hartan gizon transexualak nahiko ikusezin pasatzen zirelako. Madrilgo Transexualia kolektibora hurbildu ginen eta han hasi ginen transexualak eza gutzen. Beraien bizitzaz eta gertatzen zitzaizen guztiaz interesatuz azkenerako lagun egin ginen. Mundu berri horrek feminismoaren zenbait zutabe nagusi kolokan jarri zituen nire baitan, ustez argiak eta garbiak nituenak buruan. Horietako bat genero nortasuna norberaren sexu biologikoaren arabera dela. Alegia, nortasun horren eraikuntzan anatomiaren bidea ez zela bide bakarra ikasi nuen.

Galdera filosofikoak datozkit: zenbateraino gara izaki naturalak? Zenbateraino izaki kulturalak?

Nik uste faktore askoren emaitza garena, eta gure genero identitatea, gure orientazio sexuala eta gure jarrera humano guztiak gidatzen dituen esku ikusezina, batetik elementu biologikoen gainean eraikitakoa da, eta gero elementu kulturalak janzten dute. Ezin dira ukatu pertsona bakoitzaren berezko bideak, bestela Aristotelearen dikotomiara itzuliko gara, gorputza eta arima bi izate bereizi eta holako lelokeriak. Bestalde, ezin daiteke kausalitate genetiko batera mugatu guztia, alegia jaio egiten garena homose-

Sexu dikotomikoak

“Pertsona transexualak sistema dikotomikoaren biktima dira, gizarteak bi sexu dikotomiko existitzen direla pentsatzearen biktima, gizon edo emakume izan behar duzula alegia, bat edo beste, bien artean espaziorik ez balego bezala”.

xualak, edo jaio egiten garena emakume edo gizon. Nik uste dut ez dela hain sinplea gure istorioa, norbera aurre-bide biologiko batzuetatik etortzen da, baina gero inguruak, familiak, lagunak, kulturak, osatzen gaituzte humano bezala. Eta horrek denak markatzen du nola gure genero identitatea hala gure orientazio sexuala. Jarrera humanoek beti dute euren zati biologikoa eta euren zati kulturala.

Eta posible da dakargun zati biologikoa kulturaren presioz eta indarrez aldatzea?

Ez baitakit nik zein diren gure biologiarene bideak! Eta uste dut predisposizio biologikoei botatzen diegun begirada bera ere kulturala dela, beraz oso zaila da galdera horri erantzutea. Baina konbentzita nago haur bat musikarako sekulako predisposizioarekin jaiotzen bada, biolina jotzeko sekulako senarekin, eta gero bere inguruan ez bada musikarik entzuten, eta ez bada biolinik existitzen, mutikoaren ezaugarriak oharkabea pasa eta ezabatzen joango direla. Inkontzienteki. Kontzienteki ezabatu nahi den guztia nik negatibotzat jotzen dut. Transexualen adibidearekin azalduko dizut. Nik transexual asko ezagutzen dut beraien transexualitatea deskubritzen dutenean, eta aldaketa prozesua hasten, kolpetik aurretikako urte eta gertaera guztiak ezabatu nahi dituenak. Genital aldaketen ebakuntza



IVAP
HERRI ARDUALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDIA

IVAPeko azken argitalpenak Durangoko azokan

[Standa: Eusko Jaurlaritza. Artekale 105-109]

IVAPeko argitalpen katalogoa:
www.ivap.euskadi.net



50 LITRO UR
BEHAR IZAN DITU
HAZTEKO

10 LITRO UR
BEHAR IZAN DITU
HAZTEKO

JARRI BERRIKUNTZA ZEURE AGENDAN

Enpresako edozein alorretan eta edozein produktutan egin daitezke berrikuntzak. Zure enpresa berritzailego egiteko eta zure enpresako langileak berritzaileago bihurtzeko aukera duzu orain.

berrikuntza
agenda
de innovación 

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eta SPRIk lagunduko dizute, horretarako, **Berrikuntza Agenda** ekimena jarri da abian euskal enpresak berritzaileak izan daitezen eta arrakasta izan dezaten.

AHOLKULARITZA + PRESTAKUNTZA + LAGUNTASUNA

Ez galdu aukera, inoiz ez baita berandu berritzaile izateko.
902 25 25 95 - www.euskadinnova.net

berriz jaiotzea bezala ulertzen dute. Nik uste dut bizitzan behin bakarrik jaiotzen garela, errenkarnazioaren teoriak pisu zientifiko handiagoa hartzen ez duen arte bai, bederen. Beraz, zure bizitzari mugarri bat jarri eta mugarri horren aurreko esperientzia guztiak ezabatu nahi izatea zure zati bat zikiratzea da. Gizon jaio baldin bazara eta bizitzako etapa bat hala bizi izan baduzu gero emakume bihurtu aurretik, nik uste dut emakume bizitzarako balioko dizuten irakaspen on asko jaso zenitzakeela zure gizon bizitzatik.

Noiz jotzen du transexual batek psikologoarengana?

Asko beren aldaketa prozesu osoa egin eta gero etortzen da, eta nahi duen bakarra interbentzio kirurgikorako baimena da, hori psikologoak baino ez baitezake eman behin frogatu duenean pertsona hori transexuala dela. Baina bada jendea askoz lehenago, identitate krisia eduki eta beren genero nortasuna zein den argitu nahian etortzen dena ere.

Eta nola laguntzen zaio horri?

Bere desioa argitzen lagunduz, eta aukera erreal guztiak kontuan hartuz. Bada jendea ez dena maskulinitate eredu tradizionalarekin identifikatzen, eta hori dela eta krisi gogorrean sartzen dena. Halakoe-tan psikologoak pertsona horrek bere buruan dituen genero estereotipoak landu behar ditu, eta gizon eredu berria proposatu, ez da bortsaz transexuala. Beste kasu batzuetan aldiz krisi hori ez da eredu maskulino tradizionalan ezin kabitutik sortzen, emakume izan nahiaren ziurtasun handitik baizik. Elementu gakoa norberaren gorputza bizitzeko era da. Alegia, sexu aldaketa prozesua hasteko, eredu maskulinoarekiko sintonia falta maiz zehazten da gorputz biologikoaren ukazioarekin, eta fantasia azkenerako konbikzio bihurtzen da; biologiak emandako gorputza ez beste bat eduki nahia.

Noiz hasten zara zu pazienteari femeninoan edo maskulinoan hitz egiten?

Ikusten dudanean berak garbi daukala zerekin identifikatzen den.

Lehenago saiatzen naiz neutro hitz egiten eta generoa ez markatzen. Eta beharrean, galdetu egiten diet ea zer duten nahiago.

Gaiz aldatuz, noiz eta nola hasi zinen prostituten eskubideen aldeko lanean?

Bartzelonan gerturatu nintzen lehen aldiz prostitutengana, 1982ko Munduko Futbol Txapelketan. Holakoe-tan beti gertatzen den bezala, hiriak garbi utzi nahi ziren atzeritar dirudunak etor zitezen, eta kalean lan egiten zuten prostituten kontra hasi ziren gogor. Garai hartan erasoan aurkako komisioan nengoen, eta Bartzelonako prostitutengana hurbildu ginen lagundu ote genieziaie-keen jakite aldera. Orduko gure diskurtsoa feminista gogorren diskurtso abolizionista klasikoa zen, nik ere hori aldarrikatzen nuen, prostituzioa abolitzea, “prostituzio-ari ez, prostitutei bai”. Arrazionalki pentsatzen hasten bazara kontrako eztarritik ere pasatzen ez den aldarrikapena, digeritu ezineko leloa, baina gu ustez emakumeen defentsan ari ginen. Kotsideratzen genuen emakumeari gerta ziezai-keen gauzarik okerre-na prostituzioa zela, eta prostitutak patriarkatuaren biktimak zirela. Ez genuen bista handirik, borondatea bai sobera. Baina ikusi egin behar zen gure hitzak entzun eta prostitutek nolako begiekin begiratzen gintuzten, galdetuz bezala: “Nondik atera ote dira moja xahar hauek?”.

Tira, mojen kolegioan ikasi zenuen, denak uzten du bere arrastoa.

Ai ene, nerabezaroan mojen kolegioa zen nigan errebelia gehien sortzen zuena, batik bat han inposatzen zizkiguten normak: ilea libre bazeneraman bildu egin behar zenuen, gonak luzera jakin batekoa izan behar zuen, meztara joan behar zen... Horiek dira nire haur-tzarotik zapore mikatzenarekin oroitzen ditudanak. Batik bat sexu eta gorputz adierazpen osoaren errepresioa. Eta gero ikusirik psikologia eta feminista bezala mino-rien askatasun sexualera bideratu

naizela, garbi dago orduko ezin haietatik sortutako sentsibilitateak bizi nauela.

Tabua zen orduan sexualitateaz?

Jakina. Garai hartan sexualitatearekin zerikusia zuen guztia erreprimtua zegoen, eta are gehia-



go emakumeen sexualitatearekin zerikusia zuena. Moral bikoitzak agintzen zuen. Gizonetzkoek ezkutuan gogotik pasatako guztia egin zezaketen, baldin eta gero kontatzen ez bazuten, eta emakumezkoak ez gintuzten izaki sexualtzat hartzen, edo oso sexualitate gutxiko izakiak ginen, amatasunerako eta ezkontzeko jaioak, beste ezertarako ez.

Eta nola iritsi zinen pentsatzera sexua langai ere izan daitekeela?

1987an udalak prostituzioari buruzko jardunaldi batzuk antolatu zituen Madrilen eta bi prostituta italiar etorri ziren: Carla Corso eta Pia Covre. Feminista bezala han nintzen, eta beraien diskurtsoak, beraien jarrerak, presentziak, eta duintasunak, harritu eta txunditu egin ninduen, ahazabalik gelditu nintzen. Beraiekin harremanetan sartu ginen, eta beren bidetik Madrilgo Desengaño kalean lan egiten zuen prostituta bat ezagutu genuen, Puri, eta lagun egin. Transexualak ere ezagutu genituen, eta haietako batzuek prostituzioan egiten zuten lan. Pixkanaka mugimendu feministako beste kide batzuekin mundu horretara hurbiltzen joan ginen, eta prostituzioari buruzko beste ikuspegi bat hartu genuen. Horrela, 1995ean, Hetaira kolektiboa sortu genuen, prostituten eskubideen aldeko taldea. Ez zen gure helburua prostitutak birgizarteratzea –hitz itsusi hori erabili beharrak ere min ematen du–, baizik eta prostituzioan lanean jarraitu nahi zuenak baldintza hobetan lan egiteko erreferentea eta babesa aurki zezala, bidelagun bat.

Alderdi politikoekin ere hitz egiten duzue, nolako erantzunak jasotzen dituzue?

Hetairakook beti pazientzia handiz jokatu dugu erabaki guneetan dauden taldeekin. Alderdi guztiekin eztabaidarako jarrera izan dugu beti, onar dezaten eta batik bat ken dezaten prostituzioaren gaiari buruz begitan duten zapi itsugarria, eta azken batean onar ditzaten prostitutak. Batez ere ezkerreko sektore osoarekin egin dugu lan eta urteak pasa eta gero egiten dugun balantzea ona da. Oroitzen dut lehen-lehenik CCOOren-gana zuzendu ginela sostengua galdetzeraz, eta horra Madrilgo CCOOko idazkariak nola erantzun zigun: “Guk ezin dugu esklabutza sexuala legalizatzeko borrokatu”. Hori 1994an esan ziguten. Eta pentsa hamaika urte beranduago beraiek antolatu zituztela estatu mailako “Hiritarren eta sexuaren langileen eskubideak” izeneko jardunaldiak. Beraz uste dut borroka politikoan irabazten ari garela. PSOEn edo IUri dagokionez, duela zenbait urte, jarrera monolitikoak zituzten prostituzioarekiko: abolitzea, eta prostituzioa desagertzea. Momentu honetan badakigu gai horiekin barne eztabaidan daudela eta ikuspegi ezberdinak dituela barneko jendeak. Gas-

Putaseme

“Putaseme esatea ez litzateke irain izan behar, baina sozialki pentsa zer bide egina duen. Nik uste dut ideologia patriarkalaren zati dela putaren irudi estigmatizatua. Termino hori bera da emakumeak ongi porta daitezen baliatzen den Damoklesen espata. Mugimendu feministaren lehen ibilietan gizonezko askok esaten ziguten: “Hauek puta batzuk dira!”. Eta hori da emakume bati egiten ahal zaion irainik handiena. Putaren estigmatizazioaren funtzioa horixe da, onak eta txarrak bereiztea, eta emakumea garatzen duen sexualitatearen arabera epaitzea. Horrek ez die putei bakarrik eragiten, horrek emakume guztioi eragiten digu, eta hortik eratortzen da putaren estigmatizazioa kentzeko gure borroka feminista”.



AZKEN HITZA

Princesas

“Harreman handia izan dugu Fernando León de Aranoarekin eta oso gertutik egin dugu lan berekin. Fededunak ez garelako, bestela jainkoaren irudia Fernando Leónen itxuran etorriko litzaiguke. Tira, bromak aparte utzita, nik uste dut guretzat eta prostituzioarentzat orokorrean, *Princesas* filma izugarritzko txutea izan dela”.

par Llamazares bera ere aldeko zaigu, eta beraz badira IUn gure aldeko sektoreak.

Nolako eskubide laboralak exijitzen dituzue sexuaren langileentzat?

Lehenik eta behin borondatezko prostituzioa eta prostituzio behartua bereizi behar dira. Abiapuntua hori da. Lehenbizikoa legalizatu egin behar da, eta bigarrena borrokatu. Funtsan behartutako prostituzioan ari diren emakumeen kopurua esaten dena baino askoz ere txikiagoa da, baina existitzen dira, eta egoera izugarria bizi dute. Inork ez ditu babesten, eta lan hori estatuak egin beharko luke. Prostituten gehiengoari dagokionez, berriz, beste edozein langilek bezalako eskubide laboralak beharko lituzke. Baina lana sexu jarduna denez, eta pertsona baten sexualitatea tartean dagoenez, eskubide laboralek beregain hartu beharko lukete emakumeen autonomia eta askatasuna, beraiek erabakitzeke zein jardun sexual egin nahi duten, eta zein bezero onartzen duten. Zurrupada bat egitea ez baita gutun-azal batean seiluak jartzea bezalakoa.

Prostitutekin zuzenean nola lan egiten du Hetairak?

Madrilgo prostituzio zona historikoan lokala dugu, eta hara igotzen dira prostitutak informazio edo preserbatibo bila. Festak ere antolatzen ditugu, batik bat prostituten arteko elkargune izan daitezen, nolabait elkartasun hariak josten ere joan daitezen. Kaletik baino ez badira ezagutzen oso zaila dute harremana egitea, kalea oso gogorra baita, eta kaleko gatazkek nahiko harreman gaiztoa sortu ohi dute beraien artean. Bestetik badugu furgoneta bat, eta gauean prostituzio zonetara ateratzen gara. Atzeko zatia prestatua du, mahai txiki bat, eserlekuak, kafea eramaten dugu, denbora eskaintzen diegu eta preserbatiboak ere bai. Horrez gain, prostituzioari buruz edozein neurri berri ateratzen denean, beraiei berri emateko eta komentatzeko baliatzen dugu furgonetaren ibilia.

Moral bikoitza

“Herri honetan, oraindik ere, moral bikoitzak pisu izugarria du. Jende askori prostituzioaren aurkako hitzez betetzen zaio ahoa, eta gero berdin-berdin izan daiteke putazalerik handiena. Sexuaren langileek badakite hori oso ongi. Arazoa da nola profesionalak diren ezin dezaketela hitz egin. Egunkari handienak ere prostituzioaren iragarkietatik bizi dira. Nahi duenak nahi duena esango du, baina hau putazaleen herria da”.

Denetik dago, esate baterako gehiengo handi bat ama da. Bikote sentimentalak aurkitzeko zailtasunak izaten dituzte normalean, baina batzuek badituzte bikotekideak, eta beste edozein pertsonak bezain bizitza normala daramaten emakumeak dira gehienak. Badirudi prostituta pertsona berezia dela, eta prostitutak ez dira beraien sexuarekin lan egiten duten pertsonak baino. Nire bizitza ez dago markatua psikologoa izatearren, beste berrehun faktore gehiagok ere markatzen naute, eta prostitutak ere berdin. Baina arazoa da, eta guk hori borrokatzen dugu gehienbat, oso estigmatizatuak daudela. Autoafirmatzen hasten diren prostitutek lehenik hauxe esaten dute: “Ez naiz *puta*, puta lana egiten dut”.

Gizonekin ere egiten duzue lana?

Bai, gu hasieran gizonekin hasi ginen lanean. Eta kuriosoa da, prostituzio heterosexualean lan egiten duten mutilek ez dute emakumeek bezalako estigmatik sufritzen, are gehiago, kasu horietan estigma ez da mutilengan erortzen, baizik eta beraien zerbitzuak erosten dituzten emakumeengan. Uztar-ezinak dira nonbait emakumea eta sexualitatea, gizonezkoek egiten dutena eginda ere beti onartuko da. Beraz, prostituzioan ari diren mutikoak harro eta zoriontsu daude beraien gorputzaren edertasunetik eta hori ongi erabiltzen jakitetik soldata ateratzeaz. Aldiz, prostituzio homosexualera dedikatzen diren mutilen errealitatea ezberdina da. Eta hori ere kuriosoa da, mutil horiengan pisu handiagoa baitu homosexualaren estigmak prostitutu izatearenak baino. Alegia, sexualitate jarduna saltzeak ez dio jendeari inporta, homosexual izateak pisatzen du.

Feminismoaren korrante nagusienak oraindik ere prostituzioa debekatzeko eskatzen du. Zu Hetairaiko lehendakari izateaz gain feminista ere bazara.

Bai, feminista naiz, eta iaz sortutako OTRAS voces feministas koordinadorako kidea. Nazkatuak geunden herrialde honetan feminismoaren ahots ofizial hori entzuteaz, bai baitzirudien feminismo bakarra zegoela eta ez besterik. Nire ikuspuntutik nahiko zaharkitua dagoen feminis-

moa da hori, generoen arteko bereizketaren berrafirmazioan ainguratua gelditzen delako, eta gizonak estigmatizatzen ahalegintzen delako, beraiek izango balira bezala emakumeen opresioaren egoeraren kausa bakar eta eskusiboa. Ahots hori izan da feminismoa gidatu duena genero bortizkeriaren aurkako borrokan, eta horrek eman dio bide legeari. Nire ustez, genero indarkeriaren aurkako legea beharrezkoa zen, baina gabezia handiak ditu. Gabeziak ditu behintzat sakoneko ikuskeran, bortizkeriaren kausa definitzerako orduan; genero bortizkeria emakumeekiko gizonezkoen dominioa dela dio, oxala hala izango balitz, pastilla txiki bat emango genieke, dominatu nahi duten gizonezkoak zikiratuko genituzke, eta arazoa akabo. Baina ikusi da arazoa askoz ere korapilatsuagoa dela, eta faktore asko sartzen dira jokoan, batetik maitasun harremanak ulertzeko modua, bestetik arazoak nola konpontzen diren, eta beste elementu asko ere bai. Gizonezkoen aurkako postura eskusibista duen eta prostituzioa kondenatzen duen feminismo horretaz nazkatuak geunden eta beste ildo hori sortu dugu. Uste dugu beharrezkoa dela oraindik ere feminismoa, baina feminismoak integratzaileagoa izan behar du, multilateralagoa, eta gizonezkoak ere konprometitu egin behar ditu berdintasun osoko egoera eta emakumeen benetako askatasun egoera lortzeko.

Askatasun bide horretan zenbat aurreratu da azken urteotan?

Emakumezkoak sartu dira lan sol-datadunetan, oso kopuru altuan gainera, baina etxeko lanen banaketan, ia ez da deus ere aldatu. Nik uste berdintasun maskulino batera iritsi garela, alegia, emakumezkoek lehen gizonezkoenak ziren lan guztiak egin ditzakegu, oso ongi dago hori, baina gizonezkoak ez dira neurri berean sartu tradizionalki emakumezkoenak izan diren lanetara. Bide hori oraindik ere egiteko dago. Baina horretarako indarrean dagoena ez beste feminismo bat landu eta egin behar da. ■

Aurreikuspen
Pentsio
Planak EUSKADIKO KUTXA

Félix en Plana

“Jende askok galdetzen dute ea benetan dirudien beste gutxiak zaidan zinea. Eta nola esateko: er dute gutxiak. Ilanagari gutxiak beldir. Agian, denbora gehiag ere eskaintzen dion. Eskerak etorkizuneko gauza serio hautarako Euskadiko Kutxa daukadan.”

Félix Llanas
Aurkezlea eta zine-zirkulak

Planari egiten dizkiozun
ekarpenek **badute saria.**

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erditzea

Aukerarik pertsonalena

Amaren besoetan da haur jaioberria. Bederatzi hilabeteren ostean amaren erraiak utzi eta mundura heldu da. Erditzean jasandako min eta urduritasunak ahaztuak ditu jada amak, zorion uneak dira. Batzuek bide medikalizatua hautatu dute, epiduralarekin edo gabe, etxean erditu dira beste batzuk. Era asko daudelako.

LIERNI ALKORTA

ETXEAN ERDITU ZIREN gure arbasoak, etxean jaio gure gurasoak. Belaunaldi berriek, ordea, garapenaren izenean, ospitaleak hautatu dituzte haurrak mundura ekartzeko. Urrun geratu dira etxea eta goxotasuna, eta 'haurrak egiteko fabrika' bilakatu dira erietxeak. Hala ere, geroz eta gehiago dira erditzearen inguruan erabakitze eskubideari eusteko gogoia duten emakumeak. 19 urteko semearen eta 14 urteko alabaren ama da Cristina Aznar ginekologo eta psikoterapeuta. Etxean erditzeko erabakia hartu zuen bietan. "Nire erritmoa eraman nahi nuelako hartu nuen erabaki hori. Nire intimitatea nahi nuen, nire erritmoa eta maite nuen jendearekin egotea. Eta ospitaleak garai hartan ez zidan horretarako aukerarik eskaintzen. Teknologia gehiegi zegoen eta etxean, nire espazioan, seguruago eta lasaiago sentitzen nintzen".

Cristina Aznar, babestuta

Lehen erditzea gogorra izan zen, 17 ordu iraun baitzuen. Bi emaginen laguntza izan zuen eta baita bere bikotekidearen eta hainbat lagun babesa ere. "Nire jendea ondoan sentitzeko beharra nuen. Guztiek babestu ninduten, nirekin arnasten zuten, nirekin mugitu, dantzatu... Gorputzak eskatzen zizkidan jarrera guztiak hartu nituen. Dena den, une gogorak ere bizi izan nituen, ahuldadea eta adore falta sentitu nituen hainbat momentutan. Baina gogorraz gain, ederra izan zen benetan eta munduari nire ateak ireki nizkion", dakar gogora. Alabaren



MADDI SOROA

Elurtza Etxebestek epiduralarekin izan zuen Gexan. Lau urte geroago jaio zen Magali, erditze naturalaren bidez.

erditzea oso ezberdina izan zen. Azkarragoa eta bakartiagoa. "Nik neuk bakarrago erditzeko asmoa nuen. Erdiminetan hasi eta doi-doi izan nuen nire bikotekideari eta emaginei deitzeko denbora. Larri ailegatu ziren eta bi orduren buruan nire besoetan nuen alabatxoa".

Erditzea munduari irekitzea da Aznarrentzat, "eta irekitze prozesu orok dakar berarekin mina". Bereaz gain, beste emakume ugariaren esperientzien berri ere badu Aznarrek, egun horretan ez bada ari ere hainbat urtez etxean erditu nahi ziren emakumeei laguntza ematen baitzien. Izatez aragoiarra den baina Hondarribian (Gipuzkoa) bizi den ginekologo honen ara-

bera, haurra izateko unean minari eta ezagutzen ez denari izaten diote beldurrik handiena emakumeek, “gai izango al diren pentsatzeari”.

Erditzeari medikuntzaren kutsua kendu behar zaiola uste du Aznarrek, baina zein litza-teke erditze gela perfektua? Europa iparraldeko herrialdeetan ‘erditze etxeak’ edo amaetxe txikiak daude, adibidez. Ginekologoaren arabera, argi eta kanpoko soinu gutxi duen gela da egokiena. Bertan erditzearen prozesu fisiologikoa erraztuko luketen ariketak egin ahal izateko baloi handi bat, bainuontzi bat eta koltxoi bat edukitzea nahikoa lirateke.

Hain zuzen, etxean erditzearen eta osasun publikoak eta erietxe gehienek eskaintzen duten ohiko erditzearen erdibidean, Donostiako Pilarreko Ama ospitaleak erditze pertsonalizatua eskaintzen du. Ohe bakarreko gela bat ezarri dute, lasaia eta ahalik eta kanpoko estimulu gutxien dituen (argia, soina...). Ohea zutitu eta modu bertikalean erditzeko aukera dago, eta gainera baloi erraldoi bat, sofa moduko bat eta komuna ere baditu, besteren artean. Emakumea etxean bezala sentitzea da helburua, eta prozesu osoa bertan garatzea, hau da, emakumea gela berean egoten da hasieratik amaierara. Baina badaezpada ere, alboan dituzte erditzeko gela medikalizatua eta kirofanoa.

Sentimenduak kontuan

Irene Alzola ginekologoak dioenez, “emakume batentzat erditze ideala dena beste batentzat oso erasokorra izan daiteke”. Pilarreko Ama ospitaleko unitate berriko arduraduna da Alzola eta emakumeen sentimenduetan du abiapuntua martxan pare bat urte daramatzan ekimen horrek: “Epiduralarekin erditzen ziren emakume asko, nahiz eta guretzat erditze perfektua izan, ez ziren erabat asebeteta sentitzen, esperientzia arrotza gertatzen baitzitzairen. Ikertzen hasi eta eskaintza zabaltzea erabaki genuen, emakume bakoitzak nahi duen erditzea izan dezan”. Horrelaxe sortu zen erditze pertsonalizaturako unitatea.

1940ko hamarkadan, emakume bat erditze-
ra zihoanean azken igurtzia ematen zitzaion, prozesuan emakume asko hil egiten baitziren. “Zentzu horretan irabazi egin dugu eta asko aurreratu, baina agian gehiegi lotu dugu medikuntzarekin. Ospitale batera zoazenean dena agintzen dizute: ‘jantzi arropa hau, zatoz hona, orain hau jarriko dizugu, bestea egingo dizugu...’, eta gure ideia da erditzeak etxeokoren itxura edukitzea”, dio Alzolak.

Bere aburuz, ordea, erditzea naturalago bihurtzea ez da soilik ospitaleen betebeharra. “Emakumeak proposatzen duena errespetatzen saiatzen gara. Gure ustez erditzearen unea ez da pertsona batek gaiari

Gehienek ospitalean

Emakume gehienek –Gipuzkoan, esaterako, hamar emakumetatik bederatzik–, epiduralarekin eta modu medikalizatuan erditzea aukeratzen dute, horrek seguruago sentiarazten dituelako. Irene Alzola ginekologoaren arabera, Pilarreko Ama ospitalean ez da %10era heltzen erditze pertsonalizatuaren alde egiten dutenen kopurua. “Hautu hori egiten duten emakumeen asebetetze maila oso ona da, ordea. Oso pozik gaude”.

“Gure gorputzaren memoria historikoa berreskuratu behar dugu, emakumearen sena berreskuratu. Baina, noski, belaunaldiak beharko dira”

CRISTINA AZNAR, GINEKOLOGOA

buruz duen ideia aldatzeko momentua, haurdunaldi osoa baizik. Haurdunaldian zehar modu arduratsuan prestatu behar du erditzeko unea eta gainera, hautatu duen horretan sinetsi egin behar du”. Aznar haratago doa: “Emakumeak kontzientziatu behar dira, gaur egun emakumeak eurak direlako oso erditze medikalizatua eskatzen dutenak. Aurretiazko kontzientziazio lan bat egin behar da. Haurra izateko momentua ez da eremu horretan lan egiteko unea. Eskoletatik hasi behar da prozesua. Gure gorputzaren memoria historikoa berreskuratu behar dugu, emakumearen sena berreskuratu. Baina, noski, horretarako belaunaldiak beharko dira”. Gizartean erditzea ulertzen den moduak ere badu errurik, Aznarren hitzetan: “Batuetan amek euren alabei erditzea zerbait beldurgarria dela transmititzen diete. Oso gutxi dira erditzea zein zoragarria den edo gogortasunaz gain zenbat gozatu zuten esaten dutenak”.

Oraingoz, Euskal Herrian erditze pertsonalizatuaren aukera eskaintzen duen erietxe bakarra da Donostiako Pilarreko Ama. “Badi-ra hautu hori egin duten hainbat ospitale publiko, baina ez Euskal Herrian. Esaterako Bartzelonako Ospitale Klinikoak badu erditze pertsonalizatuko unitatea eta Kataluniako beste hainbat ospitaletan ere bidean dira. European hori da joera, guk ez dugu ezer asmatu”, dio Alzolak. Dena den, gutxiengoak aukeratzen du momentuz erditze pertsonalizatua.

Esther Cruz, bere espazioaren bila

Murtzian jaio baina Zumaian (Gipuzkoa) bizi den Esther Cruz da Donostiako Pilarreko Ama ospitaleko erditze pertsonalizatua hautatu dute-narikoa bat. Iazko uztailaren 1ean jaio zen Haizea, bere bigarren haurra. Cruzek 24 urte zituela, 2001eko uztailaren 5ean heldu zen mundura Eneko, lehena. Bi erditzeek ez dute, ordea, bata bestearekin zerikusirik izan. Lehena erditze medikalizatua izan zen Donostiako Pilarreko Ama erietxean, bigarrenean aldiz, ospitale bereko unitate berria probatzeko aukera izan zuen. “Enekorena oso desperpersonalizatua izan zen. Gela jendez bete zen, nire senarraren gurasoak, osaba-izebak, senarra bera... Surrealista izan zen. Egoerak eskuetatik alde egin zidan. Ez nuen nire erditzearen gaineko kontrolik izan eta horrek min handia egin zidan”. Azkenean, epidurala jar-tzeko erabakia hartu zuen, “egoera hartatik ihes egiteko besterik ez bazen ere”, gogoratu du Cruzek.

Lehen esperientzia hain desperpersonalizatua izateagatik erabaki zuen Haizearen erditzea beste modu bate-ra egitea eta ez da, inolaz ere, damut-zen. Erditze naturala izan zen Haizea jaio zenekoa, epiduralik gabe. “Luze jo zuen eta ez zen erraza izan. Gaueko hamabiak aldera joan nin-



ESTHER CRUZ



DANI BLANCO

Ezker eskuin: Esther Cruz 2006ko uztailaren 1ean erditzeaz; eta Irune Alzola ginekologoa.

tzen erietxera, erditu aurreko uzkurdurak bost minuturo nituela eta arratsaldeko 17:15ean jaio zen Haizea”. Tarte horretan krisiren bat edo beste ere izan zuen Cruzek. “15:00ak aldera-edo ikusi nuen ez nintzela gai, ezin nituen ez mina eta ez nekea jasan. Eta orduan bai pentsatu nuela, ‘eta orain zer? Pasatako guztia pasata orain etsi egin behar al dut?’ Indarrak itzuli zitzaizkidan, ordea, eta guztia amaitu zen”, gogoratzen du. Cruzek erditzeko aukeraturiko jarrera erdibidekoa izan zen. “Hasieran zutik erditzeko ideia nuen buruan, askoz ere erosoagoa iruditzen zitzaidalako, baina unea heldu zenean egia esan gorputzak huts egin zidan oso luzea izaten ari zelako, eta neke fisikoak gain hartu zidan. Azkenean tarteko jarreran erditu nintzen, ez nengoen etzanda, hori oso antinaturala baita, baina ezta zutik ere”.

Bere esanetan “etxean naturalki erditzea bezala izan zen, baina mediku bat uneoro bertan izanda eta erietxe batean egoteak ematen duen ziurtasunarekin. Eta batez ere espazio baten jabe zarela”.

Elurtza Etxebeste, epiduralik gabe hobeto

Osasun publikoaren aldeko apustua egin zuen, aldiz, Elurtza Etxebeste 32 urteko oiarzuarrak (Gipuzkoa). Donostia Ospitalean jaio ziren bere seme-alabak; Gexan 2002ko martxoaren 5ean eta Magali 2006ko otsailaren 20an; lehena epiduralarekin, bigarrena gabe. Etxebesteren arabera Gexan jaio zenean lehen haurra izatearen esperientzia faltak eraman zuen epidurala hartzera, eta argi du nola zen jakin izan balu ez zukeela hautu hura egingo. “Erditza oso ongi joan zen, gaueko 23:30ak aldera ospitalera joan eta goizeko 4:30ean jaio zen Gexan. Baina epidurala jartzera etorri zitzaidana sentsibilitate handirik gabeko pertsona iruditzen zitzaidan eta uste dut haren jarreragatik ere erabaki nuela

“Ohez aldatzeko unea
beldurgarria izan zen. Indarra
egiten saiatzen nintzen, baina
ezin nuen eta zaku bat baintzan
aldatu ninduten ”

ESTHER CRUZ, AMA

Magali jaiotzerakoan epiduralik gabe erditzea”. Magaliren jaiotza, aldiz, gogorragoa izan zen. Bezperatik hasi zen erditu aurreko uzkurdurak pairatzen. Gau osoa etxean minez igaro eta goizeko 11:00ak aldera hartu zuten erietxerako bidea. “Eguerdia eta arratsalde osoa pasilloan ibili nintzen, gora eta behera. Baina arratsaldea aurrera zihoan heinean, konturatu nintzen neka-neka egina nintzela. 18:00ak aldera uste nuen ez nintzela hura jasateko gai izango. Hamar minuturo nituen uzkurdurak, gero bost minuturo, gero bi eta berriro ere hamar minutura luzatzen zen tartea. Ez zuten erritmo logiko bat eta gai izango ote nintzen, zalantzak sortzen hasi zitzaizkidan”. Baina erizainak begiratu eta erditzeaz zela ikusi zuen. Ordubeteren buruan jaio zen Magali, 19:10ean.

Errekupeazioa, erditzearen araberakoa

Erditze medikalizatua eta pertsonalizatua bizi ondoren, bien arteko ezberdintasunak argi ikusten ditu Esther Cruzek. “Mina ematen du, ados, baina uneoro kontziente zara, badakizu nola eta noiz bultzatu behar duzun. Ez dizute esaten, askoz ere pertsonalagoa da. Eta errekupeazioa ere askoz azkarragoa da. Ni Haizea jaio eta bi ordura oso nekatuta nengoen, maratonia egin izan banu bezala, baina ezin hobeki nengoen, epiduralarekin ez bezala”. Enekoren erditzearen ondoren, hain zuzen ere, errekupeazioa astunagoa egin zitzaion. “Ingurukoek aurretik askotan errepikatu zidatenez segituan orkatilak mugitzen hasi nintzen, hankak mugitzen”, baina ahalegin hori eginda ere, buruko eta bizkarreko min asko izan zituen Cruzek.

Epiduralaren ondorioetatik nekezago errekupeatu zen Etxebeste. “Gexan jaio eta gelara igo nindutenean ezin nituen hankak mugitu eta lauzpabost ordu igarota ere hanka

bat ez nuen ondo sentitzen, txingurrituta bezala nuen. Ezin nuen altxa, erori egiten nintzen. Erizainak esaten zidan normala zela, baina nire burua ez kontrolatzearen sentsazio hura ez zitzaidan batere gustatu”. Ez daki zergatik kosta zitzaion horrenbeste egoera gainditzea: “Agian nire gorputzak denbora gehiago behar zuen, edo behar nuena baino anestesia gehiago jarri zidaten, edo pixa beranduegi egin nuen, edo puntu txarrean ezarri zidaten epidurala. Ez dakit”. Arrazoiak edozein izanda ere, gaur egun oraindik zerbait arraroa sentitzen duela dio oiartzuarrak: “Eguraldi aldaketekin-eta hanka hori nekatuago sentitzen dut. Beharbada nire irudipena da, baina naturistarengana joan nintzeanean nik ezer esan aurretik haurra epiduralarekin izan al nuen galdetu zidan”.

Errekuperazioa ez da epidurala erabiltzearen edo ez hartzearen arteko ezberdintasun bakarra. “Nire buruarengan inongo kontrolik ez nuen sentitzen”, dio Cruzek. “Eskuohetik erditze gelako ohera pasa ninduten unea niretzat beldurgarria izan zen. Indarra egiten saiatzen nintzen, baina ezin nuen eta zaku bat baintzan aldatu ninduten ohez. Gainera, bultzatzen duzun modua ere beste bat da. Ezer sentitzen ez duzunez ikaragarriko indarra eginez bultzatzen duzu eta ziurrenik behar duzuna baino indar eta denbora gehiago xahutzen dituzu”.

Etxebesteren esanetan, gogorra da, “baina hala ere niri Magaliren jaiotza askoz politagoa izan zenaren sentsazioa geratu zait, gehiago gozatu nuen haurraren jaiotzarekin. Gorputzak jipoia hartzen du momentuan, baina errekupeazioa askoz errazagoa da. Gelara igo eta hankak momentuan mugitu ahal izatea, hori niretzako izugarriko askatasuna izan zen”.

Galdera argia da. Eta hirugarren haur bat baletor? Esther Cruz eta Elurtza Etxebestek segundu bat baino gutxiago behar dute galderari erantzuteko, ez dute inongo zalantzarik, bakoitzak bere bigarren esperientzia errepikatu ko luke: Cruzek erditze pertsonalizatua epiduralik gabe; Etxebestek, osasun publikoa epiduralik gabe.

Eginiko hautua edozein dela ere, Cruzek argi dauka norberak eduki behar duela bere erditzearen gaineko kontrola. “Bere erditzea da, bere haurra, bere haurdunaldia, eta ez dezala inolaz ere onartu inork esatea zer egin behar duen eta nola egin behar duen. Eta batez ere borroka dezala errespetatzen, erditzea asko deshumanizatu baita. Haurdunaldia ez da gaixotasun bat, eta zuk ez daukazu zertan jasan 20.000 erditzetan lagundu duelako zure erditzeaz erabaki nahi duen erizain edo emaginek. Ez, oso pertsonala da eta naturala. Horregatik emakumeok erditzearen gaineko kontrola eta erabakitze eskubidea berreskuratu beharra daukagu”. ■

Errenteriako Ekitaldiak Abendua

Zinema euskaraz

Beste guztia

Emanaldia: Helduentzat (euskaraz azpidatzia)

Non: Errenteria Hiria Kulturagunean

Noiz: Abenduak 13

Ordua: 19:30

Olentzero, subilaren lapurreta

Non: Errenteria Hiria Kulturagunean

Noiz: Abenduak 15

Ordua: 11:30

Kontukontalaria

Turroizko ipuinak

Non: Haur liburutegian

Noiz: Abenduak 20

Ordua: 18:00

Eskolatik Kalera

Anne Monna, Oskola eta Karramarroi

Non: Errenteria Hiria Kulturagunean

Noiz: Abenduak 28

Ordua: 17:30ean



**euskara
zerbitzua**
errenteriako world



BASANDERE ARGITALETXEA

Testu benetan interesgarria da liburu honetan Antonio Tovarrek lantzen duena; alegia, historian zehar, euskararen inguruan Iberiar penintsulako intelektualen eta euskaltzaleen artean gertatu diren eztabaiden azalpenak eta ateratako ondorioak.

Iberiar penintsula osoaren antzinako hizkuntza izan zen euskara? Eta kanpotik etorri bazen zeneke ekarri zuten? Zein harremanak ditu beste hizkuntzekin: zeltaarekin, latinarekin, grekoarekin, iberierarekin, etrurierarekin, ...? Testuan zehar eztabaida zorrotzak eta gogorrak agertuko dira. Estrabonetik hasita, Erdi Aroan zehar eta, azkenean, euskaldunen eskutik jadanik: Esteban de Garibay, Andres de Poza, Oiehnart, eta nola ez Larramendirekin eta hark sortutako obra itzelarekin; Hiztegia, toponimiako

lanak, euskaraz idatzitako lehenengo gramatika eta haren euskararen apologiarekin. Gero Moguelek euskaraz idatzitako lehenengo nobela argitara emango du eta Astarloa saiatuko da gure hizkuntza mundu osoko jatorrizko hizkuntzekin konparatzen, ... eta nola ez, beti ere, Madrilako akademikoekin borroka latzak izango dira.

Hervás, Humboldt, Arana-Goiri, eta Unamuno izango dira euskaltzaleen historia honen azkeneko belaunaldia, euskarak gaur duen maila zientifikoa lortu baino lehen.

Oso liburu atsegina, erabilgarria, eta euskararekiko maitasuna isurtzen duena. Euskaltzale guztiok gure liburutegian izan behar genuena.



BASANDERE
ARGITALETXEA

**DURANGON IZANGO DUZU BASANDERE
ARGITALETXEKO SALTOKIAN**

Basandere argitaletxea
Birmingham 1 • Pral. eskuina
20002 Donostia • (Gipuzkoa)
Tel / Faxe: (943/453852)

Nabigatu?
Horixe Nabigatzen
dudala!!!

ZiabloGa
eta
Guzti!!!



Alkartasun batuak uztartuz

Badu abertzaleen batasunera-ko deiarren leitmotivak hala-ko puntuu anxiogeno bat. Airea eskas dudala sentitzen dut halako egoera utopikoa (?) irudikatzen saiatzen naizen bakoitzean. Nola batu zaitezke, izan ere, zeure buruarekin? Angelen zabala uste nuen nire kultura sexuala zabalagotu dit *irrumatio* delakoa ezagutaraziz –esan nahi dut wikipedian ezagutu dudala, ez dezala inork gaizki pentsatu–. Italiarazko wikipedia orri batean aurkitu dut definizioa. Orriaren izenburua “sesso orale” zen eta irakurtzen jarraitu dut bertan zerrendatzen zen ahozkotatasunaren deklinabideari interesgarria iritziz.

Hona zer aurkitu dudana auto-fellatioaren definizio gisa. Uste dut harira datorrela abertzaleen batasunaz ari garela. Entzun bestela: “*Auto-fellatio e' il sesso orale praticato da un uomo su sé stesso: una forma di masturbazione che consiste nello stimolare il proprio pene con la propria bocca e lingua. In realtà, è un atto che alla stragrande maggioranza degli uomini risulta impossibile; infatti non riesce se non vi è la giusta combinazione di un corpo snello, di una notevole flessibilità della spina dorsale, e di una sufficiente lunghezza del pene, necessari per compiere questo atto*”.

Itzulpenik behar baduzue horra nire gutxi-beherakoa: auto-fellatioa gizon batek bere buruarekin praktikatzen duen ahozko sexu jardura da: masturbazio mota bat da zeinetan ahoaz edo mihiaz norberaren zakila estimulatu baita. Egia esan, gizonezko gehienek ezinezkoa zaien ekintza da; izan ere ezin lor daiteke halakorik ez badira egokiro konbinatzen gorputz malgutasuna, bizkarrezurraren tolesgarritasun handia eta zakilaren luzetasun nahikoa.

Zuen esku uzten dut erabakitzea hiru baldintza hauetatik zein falta zaigun abertzaleoi gure behin-betiko batasuna bermatzeko.

Garbi daukadana da badela sexu jardura kilika-garriagorik web orriak proposatzen duen zerrendan. Adibidez *mormoratore* izen



Ur Apalategi

Basterretxea

Erro

iradokigarria daramana, zeina fellatioaren aldaki txit kuriosoa baita: “*chi riceve la fellatio o il cunnilingus può trovare piacevole se chi esegue queste pratiche mormora o canta durante l'atto. Questo effettivamente rende la bocca come un vibratore, oltre a ciò la bocca ha un lubrificante incorporato*”.

Honelako zerbait litzateke: fellatioa edota cunnilingusa jasotzen duenak atsegina aurki lezake –nola ez du ba aurkituko!– ahoa darabilenak sexua miazkatu bitartean marmarikatu ala abesten baldin badu. Abesteak, izan ere, ahoa kontsoladore edo bibragailu bihurtzen du, eta horrez gain berezko lubrifikagailuduna.

Irudika ezazue orain abertzalea ez den norbaitek egingo lizuekeen aho oparia “Gora ta gora Euskadi” marmarikatuz. Ez al da auto-fellatio akrobatiko bezain arriskutsua baino perspektiba pozgarriagoa? Zuk besteari bere gustuko kantu batekin erantzun zeniezaioke, noski.

Josiren galderari erantzun zuzen bat eman behar banio hau litzateke: gizartea sistema dialektiko gisa ulertzen badugu, abertzaleen batasuna ez dago ekintza ofizial edo sinboliko baten bitartez zigitatu beharrik. Ikuspegi orokor batetik begiratuta, jadanik eta uneoro existitzen den errealtate objektiboa da. Euskal Herriak urrunduz gero segituan “ikusten” den zerbait. Besterik da egunerokoan eta “gure” arteko hurbileko tratuan haserreak eta urradura sakonak egotea. Baina ikuspegi makro-politiko batetik abertzale ona eta gaiztoaren bikotea osatzen dugu abertzale demokrata-kristau eta abertzale terrorista-paganook. Polizia ona

eta gaiztoaren antzeko bikote bat finean. Norbaiti inoiz bururatu al zaio pentsatzea polizia ona eta gaiztoa ez zeudenik “batuta”? Bestalde, eta bukatzeko, uste dut askoz ere numero erakargarriagoa dela horrela bereizita abertzaleok aurkeztzen duguna, eta agian eraginkorragoa, salbuespenak salbuespen. ■

Ikuspegi makro-politiko batetik abertzale ona
eta gaiztoaren bikotea osatzen dugu abertzale
demokrata-kristau eta abertzale terrorista-paganook.
Polizia ona eta gaiztoaren antzeko bikote bat finean

LUPAREKID
Juan Cruz Lakasta

KAZETARIA

Kain nafarrak

X

IX. mendean zein XX.aren hasieran, Nafarroako eskuin politiko, mediatiko, erlijiosoak esaten zuen Foru Erkidegoan ez zela apenas hilketarik izaten, eta are gutxiago pasio krimenik. Tesiaren argudio nagusia zen pasioak ezin zituela itsutu nafarrak bezalako herritar fededun jator eta garbiak.

Hain justu tesi hori hankaz gora jartzeko xedearekin, iragan hamarkadan Victor Moreno idazle iruindarrak –Ramon Lapeskera ezizenarekin– bi liburu karrikaratu zituen aipatu aroan Nafarroan gertaturiko krimenak bilduz, betiere arreta berezia eskainiz pasio krimenei, hau da, bihotz –edo hankarte– kontuekin loturikoei. Prentsatik zein artxibo ofizialetatik egiazko hamaika kasu bildu zituen, gero bere lumaren literatur trinkoarekin kontatzeko. Lan eskerga horren fruitua, *Cáines Navarros* eta *Crímenes en las calles de Pamplona*, odolez ez ziprztintzeko zira eta katiuskak jantzita irakurri behar diren liburu interesgarriak.

Garai batean pasio krimen deitzen zituztenetako gehien-gehienak egun hilketa matxistatzat joko genituzke. Hartara, dokumentaturik dago gurean aspaldidanik, oso aspaldidanik existitzen dela emakumeengana indarkeria. Argi uztea komeni delakoan nago, irudipena dudalako aspaldi honetan gero eta hedatuagoa dagoela genero indarkeria oro har, eta hilketa matxistak bereziki, etorkinen kontuak direla. Datuak haien erruz okertu direla. Badi-rudi berpiztu egin dela nafar jatorrok –berdin balio du euskal herritar jator guztiontzat– ez dugula horrelakorik egiten.

Gurean bikotekideak emakume bat hiltzen duen aldioro, hiltzailea edota hildakoa etorkina bada, komunikabideek berehala nabarmen-tzen dute non-gotarra den, non jaioa



MIKEL SAIZ

den. Egunkarietan, hizki molde handienekin egiten dute. Gehienetan, tituluan. Bestela, azpituluan. Aldiz, biok, borrarora eta biktima, euskal herritar peto-petoak badira, nekez jakinen dugu zehazki non jaioak diren. Agian, eta soilik agian, testuko hizki txikietan irakurri ahal izanen dugu. Telebistetako zein irrati-tako albiste-gietan gauza bera gertatzen da.

Hori guztiori horrela, deigarria egin zait zenbait erakunde ofizialek eta Amnesty Internationalek berak, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren kariatara, mezu nagusitzat ibili izana emakume etorkinak direla indarkeria matxista modurik gordinenean pairatzen dutenak. Badakit egia dela. Badakit Euskal Autonomia Erkidegoan, genero erasoak pairatu duten emakumeen artean,


etorkinak %30 direla, nahiz eta berez emakume guztien artean %5 besterik ez diren. Badakit hori salatzeak kontzientziatzen eta konponbideak bilatzen lagun dezakeela. Baina halere arriskutsua iruditzen zait, klise arrazista indartu egiten duelako.

Datu estatistiko guztiak modu askotan irakur daitezke. Eta, nire uste apalean, gauden-tan egonda, ongi legoke nabarmen-tzea genero indarkeria pairatzen duten emakumeen %70 euskal herritar peto-petoak direla.

Erasotzaile zein erasotu gehienak euskal herritar zintzoak direla. Ardura ez dela besteena. Errua gurea dela.

Gurea, euskal herritar peto-petoena. Eta gurea, kazetariena. Egunotan indarkeria matxistaren inguruan entzun dudana gogoetarik zentzuzkoenetakoa, Xabier Aierdi soziologoarena: ahalik eta lasterren frogatu behar da isiltasun mediatikoa konponbide moduan. Hau da, lagungarri izan daitekeela fokuak aldentzea gizonkeriak eragiten dituen heriotzetatik, inori ideiarik, eredurik, oihartzun mediatiko zabaleko mendeak gauzatzeko aukerarik ez eskaintze aldera. Guztiz zentzuzkoa dirudi. Ez diot beste inori entzun edo irakurri. Bitartean, aurrera segitzen dute *reality show*ek, xehetasun morbosoa eta odoltsuz beteriko albistegiek, erruaren zama etorkinengan jartzen duten informazioek. ■

«
Gurean bikotekideak emakume bat
hiltzen duen aldioro, hiltzailea edota
hildakoa etorkina bada, komunikabideek
berekala nabarmen-tzen dute
nongotarra den, non jaioa den
»



Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Iturriak herriko jendea edan du

Iturriak herriko jendea edan du. Inor konturatu gabe. Asperturik omen zegoen ura ematen, izerdiak garbitzen eta umeen globoak betetzen. Ehun bat pertsona irentsi omen ditu. Herriko jendea aztoratuta dago.

Inor gehiago ez da ausartzen iturrira joaten.

Beno, alkateak munizipalak bidali ditu zer gertatu den ikertzera, baina aholku zorrotz batekin: iturritik hamabost metrora geld! Ez gehiago hurbildu!

Gero, jende gehiago azaldu da jakin-minez, baina munizipalek ez diete utzi iturrira hurreztatzen.

– Bai gauza arraroa! –dio batek.

– Umeen kontua izango da –beste batek.

– Ez dakizue ehun lagun edan dituela iturriak, ala! –eten dio, zakar, munizipalak.

Iturriak, bitartean, ura ematen jarraitzen du. Baina munipa gazteena konturatu da aurrena:

– Begira, begira, ur zikina ateratzen hasi da!

Irentsitako biztanle guztiek zikin ikusi dute euren arima ur gardenaren ispiluan.

– Garbi gaitzazu, iturri maitea, eta aratz jaregin gaitzazu, inbidia, gorroto, handiuste eta zuhurkeria guztietatik askatuta –erregutu dio aitona buruzuri batek.

– Gu ere bai... gu ere bai... –oihartzun antzeko bat entzun du iturriak.

– Nire izen ona eta ospea galdu beharko ditut eginkizun horretan, ur zikina eta kiratsa



DANI BLANCO

besterik ez baita irtengo datozen hogeita lau orduetan.

– Hala ere, gure zikinak bota ondoren, berriro betiko iturri garbi bihurtuko zara eta gu zurekin jolastera etorriko gara egunero –agindu dio xalotasunez zortzi bat urteko umetxo batek.

Iturria errukitu egin da ume ahotsa entzutean eta hunkitu haren agindua jasotzean. Umeek ez dute maliziarik, baina hauek ere badute zer garbitua. Eta haiekin hasi da aurrena. Hasieran, pixkanaka zikindu da iturriko hura, baina jende helduagoa garbitzen hasi denean, iturriak nazka sentitu du: nolako zarakarra eta zornea botatzen duten pertsona apain eta dotore itxurako hauek! Kirats hau jasango duen ama-semerik ez dago munduan. Bere biltegiko urak azkarrago bildu ditu eta zentrifugazio lan izugarria egin behar izan du.

Kanpoan munizipalak eta inguratutako jendea harriturik dago. Iturriak gero eta ur zikinagoa botatzen du, ustel usaina inguru guztira hedatuz.

– Goazen denok hemendik! –agindu du munipa zaharrenak.

Iturri ingurua hutsik geratu da. Hesi antzeko bat ere jarri dute, inork gaitz kutsakorrik harrapa ez dezan.

Hurrengo goizean, edandako guztiak isuri ditu iturriak garbi-garbi, lirain, begietatik distira berezia daniela, arimaren garbitasuna poro guztietatik barreiatzen zaielarik. ■

« Jende helduagoa garbitzen
hasi denean, iturriak nazka
sentitu du: nolako zarakarra
eta zornea botatzen duten
pertsona apain eta dotore
itxurako hauek! »

TXANDAN

Joxerra Garzia



Errentagarritasuna kulturen, alegia. Prezioaren eta ordainetan

jasotzen denaren arteko erlazio egokia besterik ez da errentagarritasuna. Horrela esanda, ez dut uste inork zalantzan jarriko duenik formula hori. Kome-diak gero datoz, formula aplikatzen hasi eta prezioa eta ordainetan jasotzen dena zehazterakoan. Kulturen alorrean behintzat, ez dira horiek kalkulu errazak.

Zein izan da, esaterako, Guggenheimen prezioa? Dirutan zenbat kostatu den ere ez dakit nik, baina ez dut uste dirutan bakarrik kalkulatu behar genukeenik museoaren prezioa. Egitasmoa sortu zenean kulturagintzan zihardutenei galdetu,

Errentagarritasuna

ea zenbat buruhauste, haserre eta itolarri kostatu zitzaizen titaniozko museo. Ordainetan, berriz, zer

eman digu Guggenheimek? Onura batzuk begi-bistakoak dira: Bilboren itxura-berritze miragarriaren ardatz izan da museo, ez dut ukatuko. Kulturagintzako gauzak kulturagintzari dagozkion irizpideen arabera ebaluatzearen aldekoa naizen aldetik, ordea, ez dut ulertzen nola izendatu duten museo titanikoa “euskaldun unibertsal”.

Neure inozoan, uste nuen euskalduntasunean sakontzea zela unibertsal izateko bide bakarra. Antza denez, ordea, bada horretarako hori baino bide errentagarriagorik. Batzuentzat, behintzat. ■

Gotzon Garate

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Euskal filologoak

Irakurri izan dut nonbait ere euskara alorrean filologiaren usain handiegia sumatzen dela. Idazleak ez zuen kontua asko “zehazten” eta ezjakinean gelditu nintzen, non edo zertan aditzen zen usain hori.

“Lar, txar” esaten dute oso ongi Bizkaian. Kontua horixe da, ea filologiaren usaina gehiegizkoa denentz.

Hau ez dago ukatzerik: euskal fillogoek izugarrizko mesedea egin diotela euskarari.

Besteak beste, izen ona, ohore eta ospea eman diote euskarari. Gu haur ginelarik, euskararen etsaiek puzturik, uste oker bat zabaldua zegoen: euskara *boronoe*n, ezjakinen eta arloteen hizkuntza zela.

Horrek eta gizartean zegoen euskararen kontrako giroak kalte handia egin zigun: milaka eta milaka gurasok ez zieten seme-alabei euskaraz erakutsi. Zertarako, euskara inozoen ezau-garria bazen?

Euskal fillogoek uste hori hankaz gora bota dute. Euskara unibertsitatean ere ikasten dela. Ez dela hutsaren hurrengoa. Jende ikasiek ere egiten dutela euskaraz. Jende dotorea ez dela euskaraz egiten lotsatzen.

Beste aldetik euskal filologoak jende ongi jantzia dira. Bost edo lau urtez jo eta ke, zinez euskararen erraiak aztertzeari ekin diote. Unibertsitateko karrera bukatu eta edonon jakinduria zabaltzeko gerturik daude.



« ‘Lar, txar’ esaten dute oso ongi Bizkaian. Kontua horixe da, ea filologiaren usaina gehiegizkoa denentz »

Garai baten euskaraz jakinez gero, jendeak uste zuen euskarari buruzko kontu guztiak bazekizkiela. Etimologiak eta, barra-barra azaltzen zituzten, maiz gauza okerrak esanez.

Euskal filologoak, euskarari buruz ari denean, zuhur jokatzeko du. Zer dakien badaki eta zer ez dakien ere bai.

Euskal fillogoek esker, uste oker asko pikutara joan dira. Adibidez, Gipuzkoako euskara Bizkaikoa baino hobea dela.

Edota Eibarko eta Bermeoko euskara traketza dela. Euskal fillogoek ongi dakite herri horietako euskararen egiturak, hezurdurak ez diotela inongoari zorrik.

Eibarko euskararen aberastasuna azken aldi honetan frogatua baino frogatuago gelditu da.

Bermeoko euskara, berriz, noranahiko dela besteak beste, Eneko Barrutiak, Antonio Perez Bilbaok, Begoña Bilbaok... garbi eta argi erakutsi dute.

Euskal fillogoek idatzitako liburuak asko eta estimagarriak dira.

Euskal kulturaren alor asko maisuki jorratu dituzte.

Beste aldetik euskal filologoak kargu eta postu garrantzitsuetan dabilte: ikastetxeetan, euskaltegietan, udaletxeetan, irratietan, telebistan, itzulpen lanetan, Eusko Jaurlaritzan, lana seriozki eginez.

Euskal fillogoek arnasa berria ematen diote euskarari. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zuzendarien sukarra. Agintea infekzio, berdintasunari beldurra diotenen eritasuna dugu oro kontrolatu behar izate hau, erabakietan parte-hartzearen kaltetan. Autogestioa genuen amets, proiektuetan zerikusi zuzena zutenen arteko erabakimen ahalmena jotzen genuen arrakastaren oinarritzat, parte-hartze aktiboaren onuran ezarri genuen esperantza. Eta ugazabaz betetzen ari zaizkigu inguruak. Edozein dela ere jardunbidea, taldeetako buruak dantzan baino talde-buruak ezartzen ditugu *plaiibakan*, musika bakarrean adimenen hilgarri. Soldadutza eredu, Pitterman sistema. Eta okerrenera zera da, sistema hau kultura bilakatua dugula. Josu Jonek

Kontrola

bere agurrean eskatu du: denok bat Urkullurekin. Konfiantza osoa eman behar zaio bere aginpidean. Horretan datza guztion onura. Hala ere, beti dauka kideak bere ahotsa entzuna izan dadin aukera. Demokratik gara eta barne egiturak hori ahalbidetzen du. PSOEn bezala. Begiratu bestela Nafarroara. Alderdien tribunalak dira parte-hartzearen katixima. Kuota ordaindu, botoak bildu eta zuzendaritzaren konbokatoretan parte hartu. Kide soilen diziplinak bermatzen du zuzendaritzaren arrakasta, mundu mediatikoan beharrezko itxura emango diona, transferiezina, propioa. Orogen gainean handinahia izatea beharrezkoa da besteak dantzan jartzeko, doinu bakarrean musika jotzeko. ■

Gidoilarien laudorio

Juan Nadie eta *Suvedió una noche* filmen gidoilari izan zen Robert Riskin, besteak beste. Hollywoodeko gidoilarien grebaren oihartzun urrunengatik izango da akaso, baina sarri samar akordatzun naiz aspaldion haren pasadizo batekin: ernegatu samartuta zebilen nonbait Riskin Frank Caprarekin. “Capra ukitu bereziari” zor ziotela bere filmek arrakasta errepikatzen zuen zuzendariak noiznahi, eta gidoiaren garrantzia menosteko zuen setarekin kokoteraino zegoen Riskin. Behin eta berriro hurrengo filmerako gidoia eskatu arren, Riskinek atzeratu egin zuen hura Caprari eskura emateko momentua, harik eta epez estu samar zebiltzala eta, ekoizleak urduritzen hasi eta gidoilariaren telefonoa txinpartaka hasi zen arte –“hemen inork ez dauka presarik, presa daukan arte”, horixe gidoilariaren leloetako bat–. Ezarritako epea betetzeko egun bakarra falta zela, filma errodatzen hasteko zain talde guztia, irribarreitsu azaldu zen Robert Riskin Capraren bulegora, eta ehun folio zuriko sorta utzi zion mahai gainean, burlaize nabarmenez: “Ea bada, Frank, emaiok honi hire ukitua, ahal baduk”.

Zuzentzea ez dela hain zaila ere, alegia, zer zuzendu garbi dagoenean. Edo alde erantzira: esku artean daukazunari etekinik onena ateraz ondo zuzentzea, ikaragarri zeregin zaila dela. Gure ingurura begiruta, gauza bat garbi samar dago, ehun folioak eskura ditugu –are gehiago ere esango nuke: Ehun Folio Zuriaren sektaz gainezka ez ote gaude arlo guztietan?–, baina zer gertatzen da folio horiek zikintzeaz ari garenean? Aise lortuko al ditugu horiek betetzeko istorio mamitsuak? Ez hain aise.

GIDOILARIAK ETA ZUZENDARIAK. Gidoilari eta zuzendarien arteko gaizkiulertuak ez dira berriak. Sonatua izan da aurten Guillermo Arriaga eta Alejandro Iñárrituaren arteko dibortzioa. Lehenak gidoilari hitza arbuiatu du, bera “gidoilari ez, baizik eta pelikula-idazle” dela



DANI BLANCO

aldarrikatuz, eta filmaren ereinotzak oro zuzendariarentzat bakarrik direla ikusteaz aspertuta dagoela adieraziz. Gidoilari ofizioaren prestigio faltaren ondorio den alboko kalte penagarri honekin, beldur naiz ez ote diren biak galtzen aterako. Kontua basaki da humanoa, hala ere: taldean lan egiten dugunean, denok uste izaten dugu ingurukoek baino gehiago –edo hobea– dela guk taldeari aportatzen dioguna. Talde lanari ezer gutxi eranstean diogunean ere, geure printzaren axal fina preziazten dugu –“Capra ukitua”, nonbait– lankideen ezpal-sortaren aurretik, nahiz eta ez garen gehienetan sentimendu hori plaza-ratzeko bezain autosuntsizaille izaten. Horrela heziak izan gara. Humanoa izatea, horrek ez dauka bueltarik. Nola jokutzen dugun jakitea, ordea, mesedetarako da beti. Horixe da gidoilariaren lanetako bat: egoerak sortu eta pertsonaiak hizketan jarri liskarrak eragitea. Gidoilariak berak sortu duen aferari begira geratzen da gero, haurra bere bihurrikeriari nola.

Esango dut: munduan gehien gustatzen zaidan bigarren gauza da taldean lan egitea. Lehen, bakarrik lan egitea da.

Eta, hala ere, maite dut gidoiak lau eskutara idaztea. Idatzitakoa gero komikigile baten esku edo aktore talde baten esku uztea. Egin dezatela haiek nahi dutena testuarekin, birrin-du, edertu. Liberazio bat ere izan liteke.


Eta bestalde: asko hitz egiten da zinemaren eta literaturaren arteko loturez, baina noizbait hasi beharko dugu telebistaren eta literaturaren arteko harremanaz ere hizketan. Ez al dira, akaso, AEBetatik iristen zaizkigun hainbat telesaietako pertsonaiak, egoerak eta elkarrizketak, hango zinema ustez independentea baino askoz ere berritzaileagoak eta gaur egungo errealitatean txertatua- goak? Baina zinemako gidoilariak menostuak badira, atera kontuak zer gertatzen den telebistakoekin.

NOBELAGILEAK ETA GIDOILARIAK. Zer da nobelagile bat gidoilariaren artean: norbait arrotza? Hasieran bai, litekeena da. Gidoilariak artisautzat dauka bere burua, egiturak menperatzen ditu, tempo-

«
Munduan gehien gustatzen zaidan
bigarren gauza da taldean lan egitea.
Lehen, bakarrik lan egitea da
»



irudiak:
Antton Olariaga



ak, sinetsi-
ta bizi da
—eta arrazoi
du— lau istorioen
seina aldaki besterik
ez daudela kontatzeko, eta,
funts-funtsean, Antzinako
Greziaren garaitik idatziak
daudela denak, gainera; per-
tsona apala da gidoilaria, badaki
plantilarekin lan egiten, formula
matematikoetan sinesten du ongi
egindako lanean adina. Gidoilari
profesional bat, zer da? Lan bati
baiezkoa eman ondoren esanda-
ko epean lana burutu eta horren
trukean dirua kobratzen duena
—topikoen zerrenda egin dut,
ados—. Nobelagileak aldiz, artista-
tzat dauka bere burua, *sortzailea*
da, bakarra eta errepika ezina
denaren bila dabil, harri filosofa-
laren bila, errazkeriatzat jotzen
ditu gidoietako elkarriketak
—“amaitu gabeko esaldi ziztri-
nak!”—, gorroto ditu telesailtako arduradunek
jartzen dizkieten eszenatoki eta pertsonaien
muga hertsia, epeak gorroto ditu oroz gain,
eta ziurtzat jotzen du bere tormentuaren ordain
ekonomiko plakoa bere obraren handitasunare-
kiko zuzenki proportzionala dela —ostera ere
zerrenda parodiakoa, ados—. Alta, nobelagile
parodiakoak asko du ikasteko gidoilari topiko-
engandik. Ia dena, esango nuke. Eta hala ere,
eskafandrarekin bezala ibiltzen dira idazle asko
gidoilarien artean, *ez kutsatu nahian bezala*. Kon-
tutua bitxia da: poeta batek gidoiak egiten baditu,
poeten kale-kantoira poesia irakurtzera gonbi-
datzen dutenean, bere gidoilari alderdia ezkuta-
tzen saiatzen da kosta lain kosta. Gauerdian eta
basoerditan oso sartuta dagoenean bakarrik
aitortuko du, ordu txikitan, aho txikiarekin, tele-
bista *autonomiko* batean —hori are aho txikiagoa-
rekin— lan egiten duela, gidoiak eginez halako



Askok hitz egiten da zinemaren eta
literaturaren arteko loturez,
baina noizbait hasi beharko dugu
telebistaren eta literaturaren arteko
harremanaz ere hizketan



fikziozko telesail batean —*glamourrik* ez izatea
zer den!—. Alderantziz, gidoilari bezala lanean
ari denean, poemak idatzi izan dituela zabaltzen
bada lankideen artean, hobe du hurrengo lan-
afarian txizari eutsi, berehala baliatuko baitute
komunerako lehen osteratxoa barre zantzotan
hasteko bere *dibinotasunaren* lepotik. Poeta izan
ala gidoilaria izan? Ez al dago biak batera izate-
rik? Ez itxuraz, susmagarri izan gabe. Truman
Capote gidoilaria ez balitz bezala. John Ford
narratzailea ez balitz bezala. Chaplin poeta ez
balitz bezala. Talde lan honetan, eta erabat
injustua izanez, idaztea injustua izatea baita
—Paul Morandek neutraltasunari buruz esan
zuenarekin bat nator: “fraideena, deabruarena,
txoriena da neutraltasun erabatekoa”—, aletu
ditzagun ofizio elkarrekiko ez-hain-diferente-
tako kideek elkarri buruz pentsatzen dituzte-
nak, aktoreak ere tartean sartuz:

Nobelagileak gidoilariari buruz pentsatzen
duena: “uretan disolbatutako idazle ezindua,
gajoa!”.

Gidoilariak nobelagileari buruz pentsa-
tzen duena: “kimatuko nitek nik
ederki nobela horren erdia, betelan
hutsa egiaz... Eta egitura? Zer egitu-
ra eskasa!”

Aktoreak gidoiari buruz pentsa-
tzen duena: “nik salbatu beharko diat
bada *oraingoan* ere nire talentuarekin,
testu-uste estu hau...”

Gidoilariak aktoreari buruz pen-
tsatzen duena: “izorratu zidak, izo-
rratu zidak berriz ere!”

HONEN ONDORIOA. Aktoreak beren
gustuko testuak idazten hasten dira
—baina Woody Allen bakarra dago—;
nobelagileek ideia mamitsuenak
beren-berenenak bakarrik diren nobelen golko-
rako gordetzen dituzte —ez dute haien ofizio-
aren erdiarekin gozatzen, beraz—; eta gidoila-
riek... zer egin dezakete gidoiak egiteko
ofizioa odolean daramaten gidoilariak?
—nobelak idazten hasi beharbada, mendeku
gisara?—. Hainbeste mesfidantza dagoen
lekuan ezinezkoa da talde lana: abandonua
eskatzen duelako talde lanak. Puntu batera
ailegaturik, zure Ideia Maiteari ibaian behera
joaten utzi behar diozu, abandonatu egin
behar duzu beste batzuen esku. Eta hori da
kostatzen zaiguna. Beharbada Ideia Maite
gutxiegi ditugulako eta estekatuegi gaudelako
haiei. Talenturik gabeak garela onartzea
baino errazagoa da, aukeran, zikoitzak garela
pentsatzea.

Horrela ez dago ehun folio beteko ditue-
nik. ■

ENAIri jarriak

I

Iruñeko ferietan
iragan hilabetetan
postutxo bat salgai dago
governuko goi mailetan
curriculum egokirik
ez omen da jaso bertan.



KARLOS CORBELLA

IV

Tranpan ez gara erori,
orain opari bat tori!
gure Euskararen Nafar
Institutua da hori
batzuk ez dute ulertzen
zer ez duten egin ongi.

II

Gobernu honetan trebe
“euskararen alde gaude”
tratu hartan sos erdia
nahikoa zen alafede
eta orain ezin itxi
bikoitza eskainita ere.

V

Ordenagailu eta mahai
betetzea ezin amai
zuzendari kargu gabe
oraindikan zaude ENAI
esplikatu dezatela
nola inor ez duten nahi.

III

Bortziri, Araitz, Baztangoiza,
Sakana edo Agoitza!
baldintza hauek betetzeko
egiten dute otoitza:
koherentzia erdia
eta nortasun bikoitza.

VI

Hiru zona, hiru atal
eguzki bat mila itzal
Nafarroan gureari
begiratzuz apal-apal
berriz ez dugu izan nahi
EAEkoen Orfidal.

Txuma Murugarren
“Diskoak garestiegiak
dira, askoz merkeagoak
izan behar lukete”

❑ *Ezpalak*
❑ *Ihesi*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Elkarrizketak
Euskal editoreen
iritziak aurtengo
Azokaz

ARGIA

e r d i k o k a i e r a

kultura eta aisia

42. Durangoko Azoka: abenduarien 5etik 9ra bi(d)artean

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 42. ekitaldia abian da. Bete-betea ari duzu abenduaren 5etik 9ra bitartean. Gerediaga Elkarrekin buru-belarri jardun du prestaketan urte osoan. Ez du, antza, umorea galdu horregatik, Umorea baita Azokako gaia. Ekitaldi parrasta izanen da umorearen zioz, baita jende parrasta hauen inguruan igurikatu ere. *Maiatz* literatur elkarteak jasoko du Argizaiola saria, bere 25. urteurrenaren kari. Durangon, alabaina, zenbakiak dira distira egunotan: 317 stand, 554 nobedade eta 61 parte-hartzaile. Guk geuk, “geure” Azoka hizpide, liburu ekoizpenaren arima eta motore diren hainbat editoreen berbak paratu ditugu erreportaje honetako orriotan. Txuma Murugarren musikariak berriz, berezko “doinua” jarri die orriei. Durango kari, kultur berriak lau haizetara aldarri.

DANI BLANCO



MIKEL ASURMENDI

Durango kari, gailu berriak lau haizetara aldarri

BATASUNA ETA ELKARLANA berbak –euskal kulturegintzak behar duen bitasuna– hobetsi genituen orriotan iaz, Durangoko Azokaren karietara. Kultur kontsumoaren etorkizunaz gogoetatu genuen, baita euskal kultur industria botila legez irudikatu ere. Erdi betea edo hutsa baino, botilaren beste erdia zerez bete behar den arrazoitu beharra adierazi genuen. Iaz ibilitako ildo beretik hurbildu gara Durangoko Azokara aurten ere. Iazko ARGIAko azalean zetorren Olentzeroren bidetik gatoz. Olentzero modernoa irudikatu zigun Marko marrazkigileak. Zakuaren orde, MP3 Playera zekarren bizkarrean.

42. Azokako kartelean Olentzero ageri da. Biluzik. Igotz Ziarreta egileak *Jantzi Euskara* izeneko kartelean aipu egiten dio aurtengo gaiari. Umorea da gaia. Umorea-parrastada eskainiko duten artista parrastaren izenak, pertsona omenduenak nahiz saritutako elkarteak ezagutzen ditugu jada. *Maiatz* literatur elkarteak da saritua –parrasta Ipar Euskal Herriko elea da, parrastada berriz, Bizkaikoa–.

“Jantzi euskara” diosku umoretsu Olentzero biluziak: liburuak eta diskoak eskaintzen dizkigu jantzi gisara. Liburuak eta diskoak dira Azokaren berezko izenak eta gailuak. Azokako nahiz kultur industriaren izen berriak parrastan datoz urtetik urtera. Blog edo txat izenez gain, PDF edota MP3 Record Player izenak, barbarako, heldu dira.

Azoka “geure” etxera iritsi zen aspaldi

Aurtengo ekitaldia “trantsizio”-ko Azoka bezala iragarri du hedabideren batek. Trantsizioak gauden egoeratik edota tokitik beste norabait joateko eta finkatzeko aldi bezala ulertzen ditugu guztiok. Trantsizio garai honetan diskogintzaren industria krisi bete-betean sartuta bide dago. Liburua ere, paperezko euskarri gisa, bide beretik joango ote den beldurrez dihardute bere sustatzaileak.

Nora ote goaz? Horra galdera. Durango ez da kultur industria ekoizpenaren agerle soilak –jainkoak libra gaitzala, eta deabruak babestu– gal-

derak eta iradokizunak pausatzeko gunea eta unea da, gure kultur industria txikiari buruz gogoetatzeko ekimena. Eta hara, “geure” liburuaren eta diskoaren Azoka txikia –baina handiena– garatuz joan den batean, azoka bera garai bateko gune fisiko egonkorra izatetik gure etxeko gune izatera pasa da aspaldion. Agerkariak lehenik, irratiak eta telebistak gero, izan dira azoken eta merkatuen ekarleak eta transmisoreak. Internetek azoka –merkatua jagoitiki– finkatu du geure etxean. Areago, mundu mailako merkatu honetan, merkatu globala, eredu berriak indartzen ari dira. Johannes Gutenbergen aroaren amaieran gaude –bost mende luze iraun duen aroa, ez da gutxi arraioa–. Egun PDFak eta MP3ak beste, barbarako, Kindle gailua munduratu eta merkaturatu da berriki. Irakurtzeko gailua ez ezik jostailutzat ekarria da Kindle delakoa. Folio erdiko tamaina duen E Ink berri-paper elektronikoa duzu: 300 gramokoa. Internetera konektatu zaitezke –ez duzu ordenagailuaren beharrik– bere bidez. Liburuaz gain, PDF artxiboak ere irakurri ditzakezu. Ezaugarri eta xehetasun guztiak Interneten dituzu, noski. Bost berbetan: bide berriak ireki ditzake liburugintzan. Publizitateko gailu eta eremu egokia izaki, gainera.

Trantsizio garai honek nora garamatzen sumatu dut. Azokak –azokek– beste izen propio bat bere egin zu(t)en aspaldi: digitalizazioa. Ez naiz azitia ez Cristobal Colon berria, bistan da. Durangon, diskogintzan eta liburugintzan ari direnek lelotzat hartu naute dagoeneko. Aspaldion jakina dena iragartzen ari naiz. Munduko lau haizetara zabalduko berrien

iragarle motela besterik ez naiz, zahar berrien –edota berri zaharren– aldarrikatzaile: “Munduaren berri teknologia eta gailu berrien bidez zabaldu da aspaldi motel!” Hara, Durangoko Azokak gogoetatzeko eskaintzen digun parada profita-tu nahi izan dut. Ez da gutxi gogoetatzeko soilak ere. ■

ARGIAko eskaintzak

ARGIAko Egutegia hostokatzen ederto iraganen duzu 2008 urtea. Aurten gainera, mahai egutegi bertsioan ere eskura dezakezu. Gure katalogoa urtetik urtera sendotuz doa. Mihiluze eta Naturpolis dituzue aurtengo eskaintza paregabeak. Naturpolis etxeko ilustrazioez eta diseinuaz ondo baino hobeto moldatua dator, apain-apain. Inguru-neaz eta naturaz jabetuko zara, baita ondo ilustratuko ere. Galdererantzunetan Lohiker maltzurra izanen duzu pare-parean. Telebistako Mihiluze saioaren zale bazara berriz, orain duzu aukera zure trebetasuna lantzeko. Ziur zuk uste baino bizkorragoa zarela. Hona gure eskaintzak, paregabeak. Aipatu hauek, baita askoz gehiago ere.

G P U N T U A

IPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007



*banoa,
banoa...
banoxhaa!!*

ILLUNBEN

ABENDUAREN 16AN

www.gpuntua.com

Laguntzailea:



Bost editore eta patu bakarra

Landako guneko hitzorduaren aurretik egin dugu berba euskal argitaletxeetako ordezkari hauekin. Lau ziren galderak eta hamaika izan dira erantzunak.

GORKA BEREZIARTUA

1. Literatur liburugintzan urteko ekoizpenaren zati handiena Durangoko Azokara begira prestatzen da. Ez al da karta bakarraren alde egindako apustua?
2. Nobedadeen eremua da Durango, baina azoka pasa ondoren, zenbateko bizitza komertziala dute euskarazko liburuek?
3. Azokan salgai dauden liburuen artean ehuneko handia erdaraz izaten da. Beharrezko ikusten al duzue euskarazko produkzioa baino izango ez lukeen azoka bat?
4. Nolakoa da euskarazko liburuaren irakurlea? Nabarmendu hiru ezaugarri.

Inazio Mujika (Alberdania)

«Kaltegarria litzateke aparteko azoka egitea euskarazko liburuentzat bakarrik»

1. Ez da hain egia hori. Egia da urteko azken produkzioa Durangora begira egiten dela eta Azokarako pilatzen dela zati handi bat, baina urtariletik ekainera bitartean ere bada produkzioerik, baita irailean hasi eta urrira arte ere. Beste gauza bat da Durangora begira gaudela abuztuko azken egunak heltzen direnetik. Liburu asko pilatzen zaizkigu azaroan, hori egia da. Baina nik uste dut argitaletxe guztiok egiten dugula ahalegina –guk behintzat bai– Durango baino lehen ere produkzioa egoteko. Ez da karta bakarreko apustua. Gertatzen dena da batzuk Durangora justu justu iristen direla eta beste batzuk berriz, bide bat egina dutela dagoeneko.

2. Nobedadeen azoka da; hala da oro har. Baina bada era guztietako irakurlea eta literatura eroslea. Bada liburu deskatalogatuak eta Durangon bilatzen dituenik. Ez dut esango gehiengoa direnik, inola ere ez, baina hori ere bada Durango. Nobedade baten bizitza zaila da neurtzen, baina gero eta laburragoa dela ematen du: Durangoko Azokaren iraupena eta Eguberrietako kanpaina guztia. Hortik aurrera neurtu behar da zer bide egin duen. Bide ona egin dutenek liburu dendetan irauten dute eta besteek ez. Nobedade batek normalean,

Durangotik aparte, hiru hilabetetik aurrera nekez irauango du liburu denda batean, non eta ez den eskaerarik. Tira, denbora tarte hori esan dut, baina azterketa zehatzik egin gabe.

3. Euskal liburuaren azoka da Durango, euskaraz idatzitako liburuez eta euskal gaiari buruzko liburuez ari garela ulertuta; euskal gaia dutenak, nahiz eta espainolez edo frantsesez idatzita egon. Nik ez nuke hori aldatuko. Zainduko nuke bestelako gairik ez sartzea, baina ez nuke aldatuko, jendea ekartzen duelako. Uste dut kaltegarria izango litzatekeela aparteko azoka egitea euskarazkoentzat bakarrik, euskarazko liburua erosten duenak erdarazkoa ere erosten duelako, eta alderantziz. Muga zainduko nuke, euskal gaia izatea alegia. Beste kontu bat hori mugatzea da: zer da euskal gaia? Baina zabal jakatuta ere, denok ulertzen dugu zer den.

4. Hori bai dela zaila... Lehenengo eta behin literaturazalea dela esango nuke, euskaraz izan, ala erdaraz. Bestela ere irakurlea dela, alegia. Askotarikoa dela esan beharra dago. Zaila da euskal irakurleen aurpegia marraztea. Liburuarekin batera euskarazko prentsa ere irakurtzen duela esango nuke. ■

DANI BLANCO



Gorka Arrese (Susa)

«Erdarazko diskorik ez da ametitzen, baina liburuak bai. Nork behartuta?»

1. Uste izaten dugu euskal argitalpenetan bakarrik gertatzen dela edizio berrien kontzentrazioa. Baina berdin izaten da Ingalaterran, Italian, Alemanian... Urte sasoi honetan (urria-azaroa-abendua) argitaratzen dira literatur liburu gehien, abenduko oporraldiak baino lehen. Nolanahi dela, azkenaldian argitaletxe asko dira argitalpenen egutegia urte osoan banatzen dutenak. Susak honela antolatu du berea 2007an: otsailean bat (nobela), martxoan bat (narrazioak), apirilean bat (poesia), maiatzean bat (nobela), irailean bi (nobela eta kronika), urrian bat (nobela), azaroan lau (bi poema liburu, saiakera bat eta narrazioak). Huts txiki bat egin dugu, hasierako asmoa baitzen urrian bi eta azaroan hiru argitaratzea.

2. Edozein hizkuntzatan liburu gehienek izaten dute bizitza komertzial laburra, besteak beste, teknologia berriekin azken hamar-hamabost urteetan liburu berrien produkzioa asko handitu delako. Euskarazko liburuei berdin gertatzen zaie, baina gainera gero eta itoago iristen dira merkatura, espainolezko eta frantsesezko liburuek –sortzezkoek eta batez ere itzulpenek– gero eta leku gehiago hartzen dutelako dendetan. Euskarazko argitalpen berrietan “inflazioa” ote dago? Ez nuke hainbestekorik esango, ohar-tuta bainago azken lau urteetan (2003-2006) helduentzako euskarazko nobela-ipuin-poesia-antzerki liburu berriak urtero 73 inguru izan direla; 2002n 82 izan ziren; 2001ean 79; 2000an 62; 1999an 47; 1998an 51. Argi dagoena da edizio eta fabrikazio prozesuak pixka bat bizkortu egin direla teknologiari esker. Ez dakit haur eta gazte literaturaren edizioak zein garapen bizi



DANI BLANCO

izan duen; interesgarria da hori ere aztertzea eta alderatzea.

3. Ehuneko handia erdaraz izaten dela diozunean, ba ote dakizu zenbatekoa den ehuneko handi hori? Interes bizia daukat jakiteko. Inork egingo ahal du kontable lana! Ez dakit Azokan zenbat liburu erdarazko izaten den, baina haxe da kontua: erdarazko diskorik ez da ametitzen (ez Barricada, ez La Polla, ez Doctor Deseo, ez El Inquilino Comunista, ez La Oreja de Van Gogh, ez Mikel Erentxun), baina erdarazko liburuak bai. Noiztik eta zergatik? Nork behartuta? Azokako araudiak honela dio lehen lerroetan: “Liburuak euskaraz edo erdaraz idatzirik egon daitezke (...) Disko arloan, euskara izango da onartuko den hizkuntza bakarra”. Uste dut inork ez duela sekula hori azaldu eta arrazoitu publikoki garbi eta garden. Nik ez dut beharrezkotzat jotzen beste azoka bat, baizik eta benetan euskarazkoa izan beharko lukeela Durangoko Azokak; erdarazko liburu azokaren edo eleanitzekoaren premia dutenek –halakoak badira, ezta?– sor dezatela beste bat gehiago. Tira, ohar-tuta nago gero eta gutxiago direla euskaraz bakarrik argitaratzen duten editorialak. Beraz, bide batez, zorionak diskoeetxei Azokan egiten duten ahaleginagatik.

4. a) Gutxienez elebidunak dira den-denak.
- b) Ez dute euskaraz bakarrik irakurtzen.
- c) Editore guztiek eskertu behar diegu beren arreta –biziagoa edo apalagoa izan–, eta hori esatean keinu berezia egiten diet irakurle klubetan elkartzen direnei. ■

Musika entzuteko, ikusteko, bizitzeko.

CD - DVD

AGORILA

www.agorila.com

Productions disks - BAIONA - Lapurdi

Xabier Mendiguren Elizegi (Elkar)

«Gizartean ez bezalako bizikidetza bilatuko nuke, euskarak lehentasuna izango duena»

1. Gure kasuan argi eta garbi esan deza-kegu ez dela hala. Urte osoan ari gara lanean, eta urtean barrena kaleratzen ditugu liburuak; gainera, uste dugu hala komeni dela, literaturazaleari urte osoan eskaini behar zaiolako zer irakurria. Dena dela, egia da liburu garrantzitsu bat edo beste aldi honetan kaleratu ohi dugula, Azokari ere eman behar baitzaio bere bixigarria.

2. Ez da guztiz egia nobedadeen eremua denik, guretzat behintzat. Gure argitale-txean *fondo* gehiena eramaten dugu, eta salduko ez diren liburu asko ere bai: adibidez, eskola-liburuak. Saltzeaz gain, urte osoan egiten denaren erakusgarri izatea ere badelako Azokaren zereginetako bat, edo hala beharko luke. Hori zehaztuta, liburuaren bizitza komertziala berdintsua izango da Durangon plazaratu nahiz beste edozein garaitan kaleratu. Lehen bizialdi bat izaten da urtebete ingurukoa, literaturazaleek erosteko eta ahoz ahoko propagandak funtzionatzeko; hortik aurrera, libururen bat eskolarako material aproposa iruditzen bazaio norbaiti, euskalergi edo institutuei esker liburu horren bizialdi komertziala luzatu egingo da. Erabilera didaktikorik topatzen ez badiote, beste zenbait urtez egongo da katalogoan, baina ia salmentarik gabe.



DANI BLANCO

3. Durangoko Azokan betidanik izan dira erdal liburuak, sorreratik bertatik; guretzat, argitaletxe euskaldun gisa, horiek ezin dira izan Azokaren bereizgarri, baina gure artean badira Euskal Herriko ikuspegiarekin kulturgintzan ari direnak, eta horiek ere behar dute lekua bertan. Zer irtenbide proposatu beharko genuke? Nik uste euskarazkoentzat beste azoka bat eskatzea ez litzatekeela onerako, eta erdarazkoak gure artetik uxatzea ere ez; gizartean ez bezalako bizikidetza bilatuko nuke, euskarak egiazko lehentasuna izango duena; baina horren ardura ezin diogu Gerediagari bakarrik leporatu: sortzaileek eta editoreek indarra eta kementa erakutsi beharko genuke, hedabideek lagundu, eta erosle-hartzaile-kontsumitzaileek ere euskararen aldeko hautua egin, benetan.


4. Ez nuke jakingo irakurle-tipo bat marrazten, eta uste dut ezinezkoa dela, zorionez. Gizon nahiz emakumeak dira irakurleak, adin-tarte guztietakoak eta era askotako ideologiadunak. Kultura eta ikasketa maila handi samarrekoak direla iruditzen zait, eta euskaltzaleak. Dena dela, gure apustua da, dauzkagun irakurleak zaintzeaz gain, egun ez dauzkagunengana ere iristea, haien intereseko liburuak sortzea. Ez da erraza baina. ■

Antzararen bidea JOKIN MUÑOZ ELEBERRIA	Gu, nafarrok XABIER ZABALTA ZERBERRI SAILA	Jainkoaz galdezka JOXE ARREGI SAIKERA	Perfumea PATRICK SÜSKIND ELEBERRIA
ALBERDANIA 	Dakiguna ikasten PATZIKU PERURENA SAIKERA	Horrela egiten dute emakumeek amets KRESSMANN TAYLOR NARRAZIOA	Pijama marradunaz jantzitako mutikoa JOHN BOYNE ELEBERRIA



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT

gure!
artean!
euskaraz



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak duela lau urte abian jarritako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa duen bilduma honen xedea ezagutza edonoren esku jartzea da, liburu interesgarriak, entretenigarriak eta kalitatezkoak eskainiz. Oraingoan, sei dira bilduma osatzen duten lanak. Zientziara hurbiltzeko tresna fresko eta erabilgarriak ZIOk dakartzanak.



Iñaki Aldekoa (Erein)

«Durango oso ondo dago, baina irakurleak behar ditugu»

1. Bai, halaxe da. Nahiago nuke gauzak beste modu batera gertatuko balira. Baina ez dago hori norbere esku, oro har euskal ekoizpenaren inertiak du zeresan handia horretan. Ze, liburugintzako beste eragile askorekin, banatzaileekin esate baterako, istilurako besterik ez da hori guztia. Baina, era guztietako inertiak gorabehera, euskal liburugintza Durangoren esanetara dago. Eta Durangoko ezta-riak ezin ekoizpen guztia irentsi.

2. Hasteko, eskolaren eta bestelako irakurleriaren arteko bereizketa egin beharko genuke. Eskolak erosten dituen bitartean ez dauka liburuak zertan ez egon liburu dendan. Beste kontu bat da irakurlea eskolatik kanpora aurkitu behar duenean. Orduan gauzak zaildu egiten dira. Hala eta guztiz ere, normalean askoz ere iraupen luzeagoa dute euskal liburuek dendetan beste liburuek baino. Ez dakiguna da noiz arte gertatuko den horrela, ze liburugintzako zenbait eragile prest baldin bada- go dendariari ordainduz beren liburuen presentzia ziurtatzeko, ezin dugu lasaitu esanez ez doala halakorik gurekin. Gaur egun dendariak aukeratu egiten ditu zein liburu bai eta zein ez onartu bere saltokian. Beraz, gauzak ez daude lasai ibiltzeko.



DANI BLANCO

3. Ez, gaur egun erabat instituzionalizatu da beste behar batzuk medio sortutako ekimen hau. Orduan bai behar zen euskara hutsezko azoka, gaur ez. Irakurle-eroslearen liburuarekiko ohitura arruntena Durangoko euforiatik atera eta urte osora zabaldu ahalko banu, nahiz eta epelagoa izan, ez nuke dudarik egingo. Ez du horrek esan nahi Azoka soberan dagoenik, baina bai alda baneza munduko edozein irakurle ohituretan normalena den portaerengatik, gustu handiz egingo nukeela. Durango oso ondo dago, baina irakurleak behar ditugu, eta ez da irakurlea Durangon erosten duena soilik –hori irakurle folklorikoa litzateke–.

4. a) Euskal irakurleak nagusiki ikasleak dira. Irakurle gatibua beste hizkuntzetan baino altuagoa da portzentajetan.

b) 35-60 urte bitartekoa ere inportantea da, garai batetik euskal mundua konpromiso puntu batekin bizi duen jendea.

c) 20-30 urte bitartekoak, irakurle gazteagoak, nahiz eta asko nabarmendu, hau da, dinamikoak izan gizarte mailan, ez dira asko. Uste dut urte horietan huts egiten digula irakurleriak.






Jakina, hauek inpresioak baino ez dira. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea



GAIK
ARGITALDARIA

**Durangoko azokan
zain gaituzue!!!**

Tel. / Faxe 943 47 13 04
jiak@facilnet.es • www.gaiak.net



Mikel Soto (Txalaparta)

«Beste edonon nekez mantenduko lirateke Euskal Herriko proiektu editorialak»

1. Tira, esango nuke literaturari lotutako edizioan bi kolpe daudela: udaberri ingurukoa eta Durangoko Azokakoa. Azken hau da garrantzitsuena produkzio aldetik, mediatikoki, ekonomikoki eta abar. Ukaezina da hau, nahiz eta iruditzen zaidan urtarila eta ekaina bitarteko produkzioa nabarmen gutxiesten dela. Horretan, nik uste, *mea culpa* orokorra bota behar dugula: argitaletxeetatik hasi, irakurleetatik pasa eta azken liburu saltzaile edo kazetarira arte karta bakarrera apustu egiten dugulako. Gu urtero saiatzen gara Euskal Herriko hiri eta herrietako azoketarako zerbait berezia ateratzen, urtero gaia era berezian tratatzen dugu erredakzio kontseiluan, baina, zeini axola dio horrek? Tokian toki eta nazioartean gertatzen den bezala, gure sistema editoriala honela finkatu dugu eta orain ez dakigu horri buelta ematen.

2. Zoritzarrez, normalean oso bizitza laburra daukate liburuek eta ez nuke esango soilik bizitza komertziala; bizitza, kito. Grafikoki adieraztearren, esan dezakegu liburu batek gailurra lortzen duela argitaratzen den urtean eta gerora malda behera azkarra nozitzen duela. Liburu arrakastatsu batek manto sago egiten du maldan behera, egonkortu eta sektoreko argotean *fondoko* liburu bihurtu arte. Egun, hori lortzea arrakasta itzela da. Zortea izanez gero, urtean behin edo bi urtetik behin gerta dakizuke hori. Gurean azken lau urteetan aipatutakoaren bi adibide garbi



TXALAPARTA

dauzkagu: Joseba Sarrionandiaren *Kolossal izango da* (2003) eta Jon Maiaren *Rio-mundo* (2005). Baina hori esan eta dena esana dago: gure produkzioaren ehuneko zenbat dira aipatu liburuak?

3. Zaila zait baieztatzea beharrezkoa ote den ala ez, izan ere, arestian aipatu bezala, gure sistema editoriala honela finkatuta dago eta ausardia handia behar da hori aldatzeko. Horretan al gaude? Beharrezkoa da euskarazko produkzioa bermatzea, Azokan eta hortik kanpo. Hori diskriminazio positiboaren bidez baino ez daiteke egin. Hala, gizarteak presio egin behar du administratibotik hasi eta argitaletxe edota Gerediaga bezalako elkarteetan euskararen aldeko neurriak indarrean egon daitezen eta berriak sor daitezen.

4. Batetik, esango nuke irakurlea zorrotza dela produktuarekin. Badaude arrakasta nola eskuratu eta mantendu duten ulertzen ez dudana hainbat liburu, baina oro har, esango nuke zaila dela irakurleei ziria sartzea. Bestetik, anitza dela iruditzen zait, zentzu guztietan: generoa, adina, maila soziala, gustuak... Azkenik, eta aurrekoarekin kontraesanean dagoela dirudien arren, irakurlea militantea dela uste dut. Adibide bat ematearren, mundu osoan ez da existitzen Durangoko Azokaren pareko fenomenorik... ezta hurrik eman ere! Euskal Herrian dauden proiektu editorialak nekez mantenduko lirateke beste edonon, ez zalantzarik eduki. ■



**Konfiantza
delako
garrantzitsuena**

Egunez egun
zure konfiantza
geureganatzen dugu,
etengabe produktu
berriak eta
zerbitzu berriak
bilatzearen bidez.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20084 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL: 943 420 624

G A R R A N T I A

Esteban de Terreros y Pando

XVIII. mendeko bizkaitar jakintsu baten lana eta bizitza

2008ko otsailaren 17ra arte

Enkarterrietako Museoa

Abellanedako Batzarretxea

Sopuerta

Tfnoa: 94 650 44 88
www.enkarerrimuseoa.net
www.jjggbizkaia.net
Sarrera doan



ENKARTERRIETAKO MUSEOA
MUSEO DE LAS ENCARTACIONES



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



Txuma Murugarren

«Single-aren garaiak datoz»

Marjinalian topatu dugu Txuma, hitzak piztu eta zigarretak erretzen. Akustikoa du jariora, melodikoa ia. Nota emateko intentziorik gabe mintzo da, konpasak janez batzuetan, armonian besteetan, ahots propioz beti.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Iñigo Azkona

Esaidazu disko hau dela inoiz egin duzun zintzoena...

Zintzotasunaz asko hitz egiten da azken bolada honetan. Denak gara zintzoak, denak dira disko-rik zintzoenak... Zintzotasuna demokrazia hitza bezalakoa da, erabiliaren erabiliaz zentzua gal-tzen doan hitz bat. Zintzotasuna, lotsarik gabe, juzkurik gabe, zu zaren bezalakoa agertzea da, eta nik oso ondo egiten dut hori, besterik egiten ez dakidalako. Ez naiz moztortzen dakien horieta-koa, oso aho-beroa naiz, batzuetan damutzen naizen arren. Nire diskoa entzuten ari denak

badaki esaten dudana benetan esaten dudala, ez dela pose bat, ez dela itxurakeria.

Hain zintzoa izanda, zergatik akorde bakoitza, letra bakoitza, esplikatzeko behar hori?

Poeta batek hitz egingo luke hobekien futbolari buruz eta disko bati buruz entzuleak. Ateratzen denerako, egileak barruan kadukatuta dauka disko hori. Gero zuzenekoetan berpizten zaion arren, ezin du objektiboki entzun. Jende askok esaten du “nik ez dut azalduko ezer, egiten dudana hor dago, eta kito”. Baina gaur egun, jendeari atentzioa pizten ez badiozu nekez eto-riko da zuregana.

Promozioa ez da diskoetxeen asmakizun bat, beraz?

Diskoetxeak, denak daude krisian, eta diskoak egiten dituzte benefizientzia etxeak direlako. Hala ematen du. Nik ez dakit zer dagoen atzean, eta bakoitzak jakingo du bere etxe logelan zer ger-tatzen den, baina niretzako promozioa garrantzi-tsua da, jendea erakartzen duelako nire musikara, nire kontzertuetara... Ekonomikoki ez zait axola!

Diskoetxeari gehiegi axola zaio ekonomia?

1991an diskoak grabatzen hasi nintzenetik, dis-kografika guztien etengabeko leloa ez da aldatu, krisia, krisia, eta krisia! Eta “krisi” hitzak jende asko uxatu du, gauza asko justifikatzen ditu, toki eroso batean paratzen zaitu. “Badakizu, krisian gaude, eta krisiak dauka errua”. Baina krisi horren zergatiak ez dituzte aztertzen. Aldaketa teknologiko ikaragarriak etorri dira eta datoz, baina Euskal Herriko diskoetxeek ez dituzte serio hartu. Krisiak etengabe jarraituko du dis-koetxeak krisian eroso daudeno, baina erosota-sun hori galtzen dutenean hasiko dira espabila-tzen, eta bada garaia.



Diskoetxeak eroso egongo dira, baina musikariak...

Musikariek ordaintzen dituzte ondorio guztiak! Ez dakit zeren aldeko kontzertu batean denek kobratzen dute musikariek izan ezik. Esaiozu txosnan zerbeza jartzen duenari ez kobratzeko? Edo eszena montatzen duenari?

Musikariari lasai asko esaten zaio ez kobratzeko, eta kobratzen baldin badu kabroi bat da. Gainera, bere errua dela entzun behar du, bere musikak ez daukalako lekuri, bere musikak ez duelako engantxatzen...

“Diskoetxeak, denak daude krisian, eta diskoak egiten dituzte benefizentzia etxeak direlako. Hala ematen du”

Bitartean, denak negarrez, baina bakoitza bere aldetik.

Musikariak ezin dugu kolektibo bat izan, garen bezalakoak garelako. Oso pertsona independenteak gara. Bakarlari izateko pertsonalitate handia izan behar duzu, eta nortasun handia dagoen lekuetan ezin bat etorri. Musikarien kolektibo txikiak egongo dira, baina sekula ez Euskal Herri osokorik. Gainera, beldurra emango lida-ke, instituzionalizazio bat izango litzateke, bilerak egin, gauzak adostu... Uff, oso trotskista iruditzen zait hori.

Zeri diozu beldurra, bilerak egiteari, ala arazoari adarretatik heltzeari?

Zer indar eduki dezakegu guk? Euskal Herriko musikariok greban jarriko bagina inor ez litzateke ohartuko, jendea bost axola. Jende pila atzetik daukazunean, zure musikak masak engantxantzen dituenen, badaukazu nolabaiteko boterea, baina hemen... Diskoetxe batek esan diezazuke “beno, ez dut disko gehiago egingo eta kito”. Ez dut ikusten diskoetxea etsai bezala, ezta gainontzeko musikariak ere, baina guztien artean ez-erasotze paktu bat lortu behar genukeela iruditzen zait.

Hor dago *The singles*!

Hori imitazio hutsa da, Frantzian, Espainian, edo Ameriketan egiten den gisako zerbeit. Erraz liseritzeko produktua da, dirua lortzeko modu erraz eta ez oso duina. Niretzako, diskoetxe batek egin-dako jokaldi ekonomikoa da, ez dauka beste transzendentziarik. Egin duenak egin du eta ezin dio inork ezer esan. Antzinako hit-ak gogoratzea baino gauza askoz interesgarriagoak daude egiteko Euskal Herrian. Jendea akomodatzeko ari da, ez du gauza berririk nahi. Jendeak betikoa nahi du, entzun duena, gustatzen zaiona. Ez du burua nekatu nahi, eta hori oso txarra da.

Diru publikoa itotzeaz dagoena itotzeko erabiltzea bezain txarra?

Diru publikoa gehiengoaren onurarako erabiltzen da beti, eta gehiengoak hori nahi duenez, ondo erabilitako dirua da, demokratikoki erabilia. Baina hori kudeatzen duen erakundeak herri kultura ere zaindu behar du, eta ez dakit zer puntutaraino hartzen duen musika kultur ondare bezala. Kultura sustatzen duen erakundeak ahalik eta jende gehienarengana iristeko eta dirua ateratzeko produktu komertzialak egiten baditu kontraesan handia dago. Kultura eta dirua beti kontraesanean doaz, horiek ezin dira lotu.

“Antzinako hit-ak gogoratzea baino gauza askoz interesgarriagoak daude egiteko Euskal Herrian”

Durangok lotzen ditu.

Bai, baina makrokultura da hori. Durangokoa eskaparate bat da. Beharrezkoa? Litekeena da gauden tokian egonda, bestelakorik ez delako egiten, eta Durangoko Azokari ematen zaio-lako produktuak zabaldu eta duintzeko aukera hori. Apenas egiten den beste ekimenik urte osoan, eta jakina, Durangoko Azoka instituzio bat da, ezinbesteko zita. Pertitua dago? Ez dakit zer puntutaraino. Ezinbestekoa da? Ez dakit zer puntutaraino.

Nahi duzuna, baina denok egon nahi izaten duzue bertan.



Durangoko Azoka 2007

erdiko kaiera

Ezinbestean agertu behar zara hor. Leku handia da, eta zure diskoak egon behar du. Baina nirea, adibidez, Durangoko Azokan galdu egiten da. Ezingo nuke diskoa Azokari begira atera, eta horregatik ateratzen dut beti udaberrian edo udazken hasieran. Bezperetan atera ezkerro badakit izen handiagoko hainbat eta hainbat etorriko direla eta nire proposamena zeharo itzaliko dela. Baina zer egiten du ume batek ikastolan bere lagun guztiek erretzen dutenean? Erre. Orduan, guk ere pixka bat erretzen dugu.

Diskoaren formatua da erabat erreta omen dagoena.

Segur aski bere eite fisikoa galduko du. Hemen-dik gutxira agian bit-etan banatuko dira diskoak eta JPG formatuan portadak. Pena ematen dit, baina bestelakorik ezagutu ez duenarentzat zergatik ez? Mundu birtualean ibiliko da diskoa. Masifikazioaren eta mediatizazioaren erruz galdu dituen esparruak berreskuratu behar ditu musikak. Aski da kantu ergel eta azukaratuekin. Eldarniorainoko eztiak dira, ondo apainduak, eta ez diote entzuleari lekurik uzten. Ez dago parte-hartzerik, ez freskotasunik, ez naturaltasunik, ez deus. Dena estudio batean txikituta eta manceiatuta dago. Bide alternatiboetan dago gakoa.

Alternatibaren parte izango zarela pentsatzen dut.

Nire lanera ailegatzen dena bere erabakiz iristea nahi nuke, ez bonbardatu dutelako. Deskubritu nauelako, gustatu zaiolako, eta engantxatu delako entzun nazala. Balore handiagoa dauka horrek. Hori da benetan interesatzen zaidana. Alprojakeria hori guztia gabe, ekonomizismo eta mediatizismo hori gabe. Nola deskubritzen ditut nik diskoak aspaldian? Oso talde ezezagunak entzuten ditut, nire kuttunak dira. Nire aurki-kuntzak direla dirudi, parte naiz. Horrela funtzionatu behar luke musika munduak, ez gaur hartu eta bihar ahaztu.

Gaur hartu eta bihar ahaztu, pirateoaren definizioa da hori!



“Gasolinaren prezioarekin bezala gertatzen da. Brent upelaren balioa igo ahala, gasolinaren prezioak gora egiten du. Brent upela jaisten denean, ordea, gasolinaren prezioak ez du behera egiten. Musikaren industrian berdin. Teknologia guztiak merkeagoak dira. Diskoen prezioa jaitsi da? Ez”.

Horri ezin diogu bueltarik eman. Pirateoa pagotxa da. Pirateoa ezagutu eta ondo badoakizu zergatik erosiko duzu disko bat? Hori kontuan izan behar da, eta musikak bestelako faktore batzuk eskaini behar ditu. Ekonomikoak? Beti horretan gaude. Zergatik? Egitura astuna mantendu behar delako, Internetek hori dena asko erraztu duen arren. Gasolinaren prezioarekin bezala gertatzen da. Brent upelaren balioa igo ahala, gasolinaren prezioak gora egiten du. Brent upela jaisten denean, ordea, gasolinaren prezioak ez du behera egiten. Musikaren industrian berdin. Teknologia guztiak merkeagoak dira. Diskoen prezioa jaitsi da? Ez. Diskoak garestiegiak dira, askoz merkeagoak izan behar lukete.

Noiz hitz egingo dugu musikaz?

Musikaren akzesorio guztiak buruz hitz egiten da, eta akzesorioetan geratu, eta musikaren balio bakarra galtzeko arriskua dago. Zein den balio bakar hori? Kotxean zoazenean disko bat jarri eta joatea. Joaten uztea. Baina ez daukagu astirik hori egiteko. Pena da. Single-aren garaia datoz. Talde bakoitzak single bat aterako du, eta diskoaren kontzeptu osoa bukatuko da. Gaur egun jadanik, jendeak kantuak deskargatzen ditu, ez diskoak. Abesti jakin bat nahi du, ez zaizkio diskoko beste hamabiak interesatzen. “Hau gustatu zait eta hau nahi dut, ez dut ezer berririk nahi”. ■

KONTZERTUA! GAZTELUPEKO HOTSAK GAUA

Abenduak 6 22:30-etan Durangoko Platuena Kafe Antzokian



+



+





zenbat gara elkartea


San bizente 2 - 48001 bilbo
Tel: 94 423 75 91
e-mail: bulegoa@zenbatgara.org

hamaika
bide

- kafe antzokia bilbo
- kafe antzokia ondarroa
- arrigorri itsas pentsioa
- gabriel aresti euskaltegia
- algara konpartsa
- kurkuluxetan umegunea
- tailerrak eta ikastaroak
- zerbitzuak
- bakaikuko etxea
- bilbo hiria irratia 96 fm
(interneten ere entzungai)
- gara argitaletxea

hamaika aukera

www.zenbatgara.org



Ezpalak

JON TORNER

Logela Multimedia

taldearen *Ardoaren negarra* ikus-entzunezkoak irabazi du Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilerako sari nagusia. Profesionalen atalean, Telmo Esnalen *Setioa* –film dokumentalen sailean– eta Iñigo Kintanaren *Itzalak* –argumentuzko obren artean– ere saritu dituzte. Amateurren atalean, bestalde, Lander Arbelaitz ARGIAko kazteariaren *Su eta lore artean* lanak jaso du dokumental arloko lehen saria. Estoniako errusiarren integrazioari buruzko dokumental hori www.argia.com webgunean duzue ikusgai.

Juan Izuzkiza

filosofia irakasle bergarrak irabazi du Juan Zelaia Saiakera Sariaren zazpigarren edizioa, *Paranoiaren hozberoa* lanarekin. Munduaren egoerari buruzko azterketa eta hausnarketak bildu ditu Izuzkizak bere saiakeran.

Jose Luis Zumeta

pintore usurbildarraren 30 koadro jarri dituzte ikusgai Donostiako Kur galerian. Zumetak azken urteotan margotutako olio pintura koloretsuez osatutako erakusketa urtarilaren 23a arte izango da zabalik.

Helena Orkoien

21 urteko sopranoari eman dio Interprete Gazteen saria Espainiako Juventudes Musicales elkarteak.

Sarkozyk Interneteko sarbidea moztu nahi die 'piratei'

Frantziako Gobernuak pirateriaren inguruko azterketa egiteko eskatu zion urrian Denis Olivennes Fnac enpresako zuzendariari. Orain eman dute txostenaren berri, eta emaitzak ez du inor harritu: pirateria dela-eta diskoen salmenta izugarri (%50 inguru) gutxitu da bost urtetan. Horren aurrean Sarkozyren gobernuak izan duen erreakzioak ordea emango du zeresanik: ikus-entzunezko artxiboak legez kanpo jaitzen dituzten herritarrei Interneteko sarbidea eten nahi diete. Zein erabiltzaile zigortu erabakitzeko, epaile baten kontrolpean lan egingo duen "autoritate administratibo independentea" sortu nahi du Frantziako gobernuak. Helburua "norbanakoen askatasun eta eskubideak errespetatzea" dela dio.



Abian dira Nontzeflash eta Nontzefilm lehiaketak

NONTZEBERRI webguneak Nontzeflash SWF formatuan egindako proiektuen eta Nontzefilm film laburren lehiaketan edizio berria jarri du abian. Nontzeflash lehiaketan parte hartu nahi dutenek 2008ko otsailaren 21a baino lehen bidali behar dituzte euren lanak, eta Nontzefilm-en lehiatu nahi dutenek otsailaren 28a baino lehen. Bi lehiaketetan 11.100 euro banatuko dituzte saritan. Irabazleen lanak eta epaimahaikideek hautatutako beste batzuk 2008ko Fant Zinema Fantastikoaren Bilboko Jaialdian erakutsiko dituzte. Informazio gehiago www.nontzeberri.com/nontzeflash/2008 eta www.nontzefilm.com webguneetan.

Mery Cuesta arte kritikari eta komisarioak adierazpen hauek egin zituen Gara egunkarian: «Trudi zirkulazioa da gaur egungo ekoizpen eta erakusketa eremu nagusia da. Museoa konturatzen ari da higiezinezko lursail huts bihurtzen ari dela. Hortik helburu turistiko bihurtzea (Guggenheim bezala) eta dendaren eremua handitzeko joera».

Idoia Otegi Titirijai jaialdiko zuzendariak Aldaketa 16 aldizkarian: «Txotxongiloak pixkanaka merezi duten toki hartzen ari dira. Niretzat arterik osoenetakoa da. Egia da badaudela oraindik askoz inportanteagoak diren arteak, oihartzunari begira. Hona opera bat ekarri eta komunikabide guztiek toki handia ematen diote. Txotxongiloen obrak ekarri, aldiz, eta batzuen kasuan ematen du ez garela existitzen. Horrek amorrua ematen dizu, Donostiako Musika Hamabostaldira edo Antzerki Feriara datozenekin konpara daitezkeen ikuskizunak izaten direlako».

Juan Ignacio Vidarte Guggenheimeko zuzendariak Administrazioa Euskaraz-en: «Museoaren ondorio inportanteenetakoa herritarrengan duen efektu psikologikoa da: proiektu endogeno bat; ez da Expo bat, ezta olinpiadak ere. Hemen-go erakundeek erabaki eta abiarazitako egitasmoa da, lehenengo momentutik proiektu konplikatua, arrisku handikoa esango nuke, baina bere helburuak betetzen ari dena eta, are gehiago, aurreikusi baino neurri handiagoan».

Txema Muñoz Kimuak programako koordinatzaileak El Correo-en: «Inor ez da profeta bere lurraldean» esatera bete egiten da EAEko telebistetan. Gehiago baloratzen gaituzte telebista valentziarrean edo katalanean. Badaude ETBk erosi ez dituen duela pare bat urteko film laburrak, euskarazkoak barne. Ez dut zergatia ulertzen. Pentsatzen dut arrazoi politikoengatik izango dela, baina ez da onargarria programazioa betetzeagatik Koldo Almandozen *Belarra* film laburra gaueko hamabietan eta aldeztu aurretik jakinarazi gabe ematea».

baskepensiones
+ BBK gordailua
%12ko UTB, 6 hilabetera



Buena Jantziak bermeak ditu
matxak 17/03/04 erregistratuak

**BBK gordailua %12ko UTB, 6 hilabetera
+ baskepensiones**

Gutxienez, 8.000 euroko zenbatekoentzat.

Banaketa: %70 BBK baskepensiones eta %30 BBK gordailua.

Gordailuaren ITN: %11,39, interesen ordainketa hilero egiten bada.

Eskaerak 2007/12/31r arte irauko du edo 20 milioi euroko gehieneko jaulkipen agortu arte. Ezin da inelatu, baskepensionen sustapen harpazkako beste eskaintzetara.

baskepensiones
e.p.s.v.

100bbk

100bbk enpresa finantziarioa da. Enpresa honen kapitala 100 milioi eurokoa da.

AQUARIUM



Karlos Blasco de Imaz Plaza, 1

20003 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

e-posta: aquariumss@aquariumss.com

web orria: www.aquariumss.com



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Balekoa (Elikatzen dugun sistemaz gogoetatzeko modukoa)

Filma: *Leones por corderos (Lions for lambs)*. AEB, 2007. **Zuzendaria:** Robert Redford



Film bat ikusi orduko, jeneralki, zer edo zer irakurri duzu berari buruz. Irakurri nuen kritikak ipar-amerikar sistema politikoa eta zuzendaria "azaleko demokrazia"-tzat jo zituen. Film honekiko azaleko inpresioak dituzu nire hauek.

Pelikularen aurrean nauzu jadanik. Hiru leku ezberdinetan gartzen dira berau osatzen duten istorioak, hirurek lotura daukate alabaina: irakasle baten (Robert Redford) bulegoa, senatari errepublikar baten (Tom Cruise) bulegoa eta Afganistango mendi tontor elurtsua. Dozena erdi bat dira protagonistak. Gerra sekuentzia eskas batzuk tarteko, bitarteko gutxirekin egindako filma duzu. Muntaketa xumea da. Pertsonaien arteko elkarriketak dira filmaren oinarri eta berme. Gaia AEBen eta Ekialde Ertaineko (Afganistan, Irak...) herrialde arabiarren arteko gerra(k). Istorioak harrapatu nau. Gustatu zait zinematografiari dagokionez. Balekoa dut. Alejandro Gonzalez Iñárrituaren *Babel* filma gogoratu zait: "Robert Redfordek, zuzendari eta gidoilari bera izaki, ez du Iñárrituk bezala Guillermo Arriaga gidoilariarekin gorabeherarik izango", pentsu dut. "Botere gorabeherak, hots".

Robert Redfordez beste, Tom Cruise senatariak nahiz Meryl Streep kazetariak ederki jokatzen dituzte beren rolak. Istorioa osatzen duten narrazioak ondo uztartuta daude. Konturatu orduko filma amaitu da, ia ohartu gabe irentsi dut istorioa. Bikain! Hollywooden dohaina, alajaina. Zer besterik eskatu film bati? Beno, bai. Filmak bizitzari eta garenari buruz gogoetatzeko parada ematea. Esate baterako.

Istorioari buruzko nire ikuspuntu ideologikoa nahi duzu honekin bukatzeko, noski. Hona: senatari errepublikarra senatari demokrata izan daiteke, baita Europako senatari sozialista edo popularra ere. Senatari errepublikarren aurrean dagoen kazetaria berriz, gutako edozein kazetari. Dihardugun hedabidearen botereak ezberdintzen gaitu, naski. Baina denok gara boterearen transmisio gailu, baita boterean —aldian-aldian— dagoenaren aurka ari garenok ere Aldez edo moldez denok elikatzen dugun demokraziaren —boterearen— araberrako egituretan ari gara-eta. Filmeko —unibertsitateko— irakasle idealistaren rolean Europako edozein irakasle izan daiteke, Euskal Herriarentzat demokrazia aldarrikatzen duen ezkerreko edozein irakasle barne.

Amaitzeko, irakasle idealistak ikasle herritar lehoiak nahi ditu bildotsen beharrean. Nik bizi dudana demokrazia *hollywoodar* hone-tan, lehoiak otsoak dira eta bildotsak berriz mordo. Zernahi.



DURANGOKO 42. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

ABENDUAREN 5ETIK 9RA

Literaturaren alde gaude, musikaren alde.
Ezagutza bultzatzen dutenen alde gaude,
unibertsoak sortzen dituztenen alde,
hitza guztion gune bihurtzen dutenen alde.

Kulturaz mintzo garenean,
guztion mintzaira baitarabilgu.

 **EROSKI**
zurekin

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

GERNUA ESANAH BERA DUEN HITZ	BAKARRIK, SOILIK NULU U BARIK	PAIRE BAT NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA	BEGIRADA KATUAREN OIHUA	ERAKUNDE MILITARRA	GOI MAILA- KO OSTATU RUTENIOA	3 ARRAIN IZENA
1 JADANIK	BETORTZ KANARIETA- KO	GOROTZA LEGATZ TXIKIA	ZARETEN HAUEK 4	GIZONEZKO IZENA BAZTER	HITZA, BERBA ZUHATZ MOTA	KRIPTONA GIDARI
ATZIZKIA: LEKUA DRAINATZEKO TUTU	ARROTZ, ATZE ABANTZU, KASIK	OLERKI LIRIKOAK ZAKURRAK	5 ATZIZKIA: DENBORA	10 GERRA	BOKAL BOROBILA AKATSA, NARRIOA	URREAREN SINBOLOA
ADITZERA EMAN JUSTU, NEURRIZ	GARAIAK ESTRON- TZIOA	EZKUTUAN, ISILEAN BAT	JANARIRIK EZ HARTZEA			

Durangoko Azoka

1 Aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako edizioa, erromatar zenbakiz.

2 1965. urtetik euskaldunen topaleku den azoka hau antolatzen duen elkarte. Urtero gure euskal munduko argitaletxe, diskoetxe eta kultur mugimenduko ia talde guztiak bertan biltzen ditu.

3 ... Irazabal, Azokako zuzendaritzaz arduratzen den historialaria eta Gerediaga elkarteke kidea.



4 Lehenengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka 1965ean egin

INIGO AZKONA

zen Andra Mariko elizpean, eta han egon zen urtez urte 1974. urtera arte.

Urte hartan Andra Mariko elizpean egitea galarazi zuten eta Merkatu plazara eramane behar izan zuten. Baina hura laster txiki geratu eta 1996. urtetik Durangoko leku ezberdinetan karpak altxatu eta karpapean egin zen azoka. Zein erakustazokatan dauka behin-betiko kokapena 2003. urtetik?

5 ... Ziarreta, lehenengoz Durangoko Azokako kartela aukeratzeko antolatu den lehiaketa irabazi duen meñakarra. "Jantzi euskara" leloa dauka kartelak.

Anagramak



Hitz bakoitza hurrengoaren anagrama da, hau da, letra bat kendu edo gehitu beharko duzu hitza lortzeko.

1. Gutxi gorabehera noiz.
2. Oinutsik.
3. Ona, ontasunez betea.
4. Lapurtu, ebatsi.
5. Hegazti mota. 6. Gar.
7. Jatorriz Euskal Herrikoa den karta joko.
8. Txakurraren usaimena.
9. Irakasle gizona.
10. Soinu.
11. Airez edo likidoz betetako mintzeko zaku.

Soluzioak

ANAGRAMAK

1. NOIZTSU
2. OINUTS
3. ONTSU
4. OSTU
5. USO
6. SU
7. MUS
8. SUMA
9. MAISU
10. MUSIKA
11. MASKURI

J	O	N	A	R	O	Z	A	U
P	A	N	E	K	A	T	A	A
H	O	T	E	L	X	O	F	A
O	T	R	E	L	I	G	U	A
S	O	K	I	K	R	A	K	O
B	I	M	I	A	Z	O	K	I
N	I	E	L	A	N	D	A	K
S	O	I	L	K	A	I	S	R
P	I	X	A	K	A	R	I	O
S	J	O	K	A	D	O	K	P



PETTI
On



TXUMA MURUGARREN
Marginalia



UEK
Uhinak



FAST FATUM
Fast Fatum



ROY LONE & SENOR NO
Bottle of wine



SURFIN KAOS
Triphyllon



KOKEIN
Mundu margotu berri bat



HOTSAK DANTZARI
Dantza Beltza



JOSETXO GOIA-ARBE
Los Pendientes de La Reina



MAMBA BEAT
Mamba beat



BOSGARREN HARIA: LIBURU BERRIAK

ELLIOTT MURPHY:
Amerikarra Parisen
(Jorge G. Murarriz)

MORRISSEY & THE SMITHS:
Hildakoa izango naiz famatua!
(Jorge G. Murarriz)



errabal
www.errabalaz2.com



gaztelupeko HOTSAK
Errabal 22
28040 BELLALBA
Tel. +34 943 730074
Fax. +34 943 738 129
gastelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

Markina (Bizkaia)

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
AMAIA UGALDE

Sortaldeko etsaiantzat harresia



Gipuzkoatik zetozen erasoez defendatzeko sortu zen Markinako herria, XIV.

mendean, eta oraindik ere helburu horrekin egindako hainbat eraikinek diraute zutik. Sei mende geroago, 36ko Gerran, berriz defentsa lanak egokitu zitzaizkion Markinari, frankisten aurka orduko hartan. Gatazka hark ere utzi zuen eraikin uzta polita. Erdi Aroan dorretxeak, XX. mendean bunkerrak eta parapetoak. Batzuei zein besteei bisita egin diegu.



Markinako ikuspegia, atzean marmol beltz ospetsua ematen duen harrobia duela.

1355. urtean Bizkaiko Jaun Don Tellok, Gaztelako Alfonso XI.aren semeak, Villaviciosa de Marquina hiribildua sortu zuen. Antza denez, Markina izena erdarazko *marca* hitzetik dator, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko muga-mugan baitago egon ere Markina. Hiribildu berria eskualdeko biztanleek eskatuta sortu ei zen, Gipuzkoako familia ahaltsuengandik defendatzeko. Hala ematen du Markina-Xemeingo Udaletxearen webguneak herriaren sorreraren berri.

XIV. mendean gipuzkoarrak ziren geldiarazi beharreko etsaia; 36ko Gerran, berriz, armada frankista. Orduko lubaki bat izango da, hain zuzen, gure ibilbideko lehenengo geraldakua, Iparragirre auzoan. Osasun etxe albotik abiatuz, ezkerreko kantoia hartuta, ibilbideko aldapa luzeenetako batekin egingo dugu topo, eta Iparragirre auzoan izango gara hamar-hamabost minuturen buruan. Bidean Markinako ikuspegiak gozatu eta marmol harrobien handitasunaz txunditzeko aukera dago.

Auzoaren izena zizelkatuta ikusiko dugu etxe eder baten ondoan. Dagoneko Iparragirren gaude, baina apur bat gehiago jarraitu behar dugu aurrera. Aldapa baten amaieran, eskuman, ur biltegi bat dago, eta ezkerrean oinezkoek egindako bidexka. Handik sartuta iritsiko gara lubakira; oraindik han dago metrailadore habia txikia. Bertatik, Etxebarri eta Markina lotzen dituen bidea kontrolatu gura zuten

Errepublikaren aldeko soldaduek. Orain landaredia hazita dago, eta gordelekuko zirrikitutik ez da bidea ikusten, baina irudimen erabiliz 70 urte atzera egin daiteke.

1936ko irailaren hondarrean, Markina inguruan frontea jarri zuten errepublikazaleek, Kalamua eta Urkaegi inguruan zeuden armada frankistei begira. Lehenengo defentsa lerro horrek zazpi hilabete eta erdi iraun zuen, frankistak Markinan sartu ziren arte. Bigarren lerroa, erretagoardian zegoena, 1937ko urtarrilean eraiki

Markina ez da dagoeneko dorreetako familiek indarra zuteneko herri txiki hura, baina historiaren testiguen zutik diraute

zen, eta ez zen sekula borrokarako erabili. Lerro horretakoa da Iparragirreko metrailadore habia, eta baita beranduago bisitatuko dugun Parape-toa ere. Defentsak defentsa, 1937ko apirilean sartu ziren Markinara tropa frankistak, eta handik gutxira hartu zituzten Gernika eta Durango.

Erdi Arorantz: Ugarte dorretxea

Iparragirrera joateko igo garen aldapa-tik jaitsi eta beherantz jarraituko dugu, bidegurutze batera iritsi arte. Gorako bidean ere pasa gara hortik, eta zuzen

jo dugu. Oraingoan, lehenengo bidea hartu barik, ezkerretara egingo dugu Markinara jaisteko. Bidegurutze horretatik herriaren ikuspegi benetan politaz goza daiteke. Behin herrira helduta, zuzen jarraituko dugu. Tunel batetik igaro, errepide nagusira heldu, eta espaloitik Ugarte dorretxerantz abiatuko gara.

Ugartetarrek botere handia izan zuten XV. eta XVI. mendeetako Markina eta Xemein inguruko lurretan. Jauntxoak baserritarren zergez, basoez eta oletako diruaz bizi ziren. Ugartetarrek, gainera, zubia zeukaten Donejakue bidearen ondoan, eta bidesaria kobratzen zuten. Izan ere, dorretik kontrolatzen zen Ondarroatik Durangorako pasabidea.

Ugartetarrekin batera, Barrueta familiakoak ziren herriko jauntxorik boteretsuenak, eta biak elkarri moka ibili ziren bandokideen guduetan. Liskarretako batean, Ugartetarrek Barruetako dorrea erre eta guzti egin zuten. Azkenik, Enrike IV.a erregearen aginduz liskarrak amaitu eta jauntxoen indarra moteltze aldera dorreetako almenak moztu zituzten.

Orain, Ugarteko dorretxeak jauregi itxura du. Duela hamar urte eraberritu zuten azken aldiz. Lehen altuagoa zen, eta leiho handiak barik gezi-leihoak zituen. Gaur egun harrizko paretak ikusten badira ere, Erdi Aroan dorre guztiak karez estalita egon ohi ziren. Harri merke eta zikinez eraikitakoa estaltzeko joera zegoen.



Ezkerreko argazkian, Ugarte dorretxea. Eskumakoan, Torrezar.



Buelta eman eta bide ertzetik joko dugu atzera. Kiroldegi alboan ezkerre-rako bidea hartuko dugu. Baserri baten albora iritsi gara, eta haren ezkerreko bidetxo hartuz, burdinezko ate batera ailegatuko gara. Asto-korta baten aldamenetik, lurrezko bidean gora egingo dugu. Aurrean beste baserri bat dago, baina haraino heldu baino lehenago eskuman dagoen bidezidorra hartuko dugu. Lurrezko eskaileretatik gora harrizko bide zabalago batera iritsiko gara. Atzeko Beñe baserri albotik pasa eta gutxira amaituko dira aldapak. Markinako ikuspegi polita dago inguru lau horretan. Eskuman

bidezidor bat nabari da, pertsonen joan-etorriek eginikoa. Belar artetik igaro, eta laster haitz eta arbola artetik gorantz egin beharko dugu apur bat. Alanbrezko hesi bat gainditu eta Parapetora iritsiko gara.

Gerrarako parapettoa, jolasleku

Markinan ezaguna da Parapettoa, makina bat herritar txikitik jolastera eta txitxiburduntzi —txorizo erre jana— egitera askotan igo izan baitira bertara. Parapetotik herriaren bista ederra dago, sasitza hazita egon arren. Bunkerra zegoen bertan, baina orain ez dago osorik, gerra ostean txatarra lortzeko apurtu baitzuten. Bunker aztarnez gain, harrizko lubakiko hormek zutik diraite Parapettoa.

Parapettoa 1937ko urtarrilean egindako bigarren defentsa lerrokoa da. Han, soldaduek Markinako sarrera kontrolatzeko leku paregabea zuten. Parapetotik gertu, Igozetik Santa Eufemirantz soldaduek bide bat egin zuten, herria frankisten eskuetan geratzen bazen, markinarrek bertatik ihes egiteko. *Gorrixen bidie* moduan ezagutu izan dute bide hori herriko zaharrenek.

Lehenago bidetik irtengo gara Parapetotik, eta aldapan behera hasiko gara eskumarantz. Ituarte

baserriaren ezkerretik pasa eta gutxira bidegurutze bat aurkituko dugu. Ezkerreko bidea hartu eta aurrera, Axpe auzorantz. Eskuman, San Jazinto ermita ikusiko dugu, lehen Axpeko Udaletxea zena.

Arrosak ditugu eskuman eta ezkerrean berriz tomateak. Bidea apur bat zabaltzen da, eta eskumako etxeari begira jarriko gara, hura baita Torrezar. Ez dirudi zaharra. Erdi Aroko hainbat dorretxeren antzera, hau ere eraberrituta dago. Almenak kenduta ditu eta aurretik ez du dorre itxura handirik. Haren berezitasun handiena haitz gainean eraikiata egotea da.

XV. mendekoa da Torrezar. Lehen kubikoa zen, baina gaur egun bertan bizi direnen gurasoek etxea erantsi zioten. Familia hori ez da, baina, Torrezar eraiki zuena. *Dorreko señoría* Etxebarriko etxe batera joan ei zen bizitzera. Izan ere, Erdi Aroko dorreetan bizi ziren familia boteretsuek baserriarrengan errespetua eta beldurra eragiten zituzten. Baina Markina handituz zihoan heinean, XVIII. mende aldera, herri barruko merkataritzak garrantzia hartu zuen. Hiriko ekonomian esku hartu guran, landatik hirira joan ziren jauntxoak. Dorreak baserriarrei alokairuan utzi zizkieten askok, eta horiek, errenta hainbat urtez ordaindu eta gero, erosteko aukera izan zuten.

Barrueta, ikusgarriena


Torrezarretik bidean aurrera egin eta aldapa behera jarraituko dugu. Bost minutu inguruan, suhiltzaileen ondotik pasako gara, eta hurrengo bidegurutzean ezkerreantz joko dugu. Axpe sagardotegia ezkerrean utziz errepidera hurbilduko gara. Ondoren, ezkerreantz egin eta Berriatua eta Ondarroa-rako norabidea hartuko dugu bide hegaletik. Gasolindegia ikusten da berrehunen bat metrora. Hara heldu aurretik, bidea pasatu eta Bauskuraine-

Arretxinagako Mikel Deuna

Xemein elizatean, Arretxinagako Mikel Deuna basiliza dago. Iturri batzuek XI. mendean kokatu dute haren sorrera, baina ziurtasunez aipa dezakegun lehenengo data 1451 da. Basilizak badu berezitasun bat: barruko aldean landu gabeko hiru harritzar dauzka. Hirurek elkarri eusten diote, eta tartean geratzen den espazioan aldarea eta Mikel Deunaren eskultura daude. Xemeingo jaiak basiliza parean egiten dira —hantxe daude udaletxe zaharra eta probalekua ere—, Sanmigeletan noski. Orduantxe egiten dute herriko gazteek ezpata-dantza ezagun bezain ikusgarria.



Unai Brea



1937an eraiki zuten Parapettoa (ezkerrean), Markinako frontean. Zaharragoa da, noski, herria inguratzen zuten harresiaren zatia (eskuman).

rantz joango gara, eskuman dagoen errotuluari jarraituz. Gorantz jarraitu eta bidegurutzean eskuineko bidea hartuko dugu. Laster aldapa behera hasiko gara zuhaitz artean, eta handik gutxira Barrueta dorrea ikusiko dugu.

Irudimena lanean jartzeko momentua da berriro. XIV. eta XV. mendeen artean eraikitakoa da dorrea. Orain

baino altuagoa izango zen hau ere, hamahiruren bat metrokoa. Behin, Markinako alkatearen semea edo alkateak bidalitako agintari bat –ez dago argi zein– hil omen zuten dorretxetik gezia botata, zeozertaz berba egiteko hara joan zenean.

Zer nolako bizimodua izango zuten barruetarrak bezalako familia

boteretsuek? Etxea gaur egun euren ondorengoena da, gaitandarrena. Mendeetan barrena iraun duten istorio ugari jakingo dituzte ziurrenik. Markina-Xemein ez da dagoeneko dorreetako familiek indarra zuteneko herri hura, baina historiaren testiguen zutik diraute. Herri erdian dagoen harresi zatiak, esaterako. ■

Abenduan **ARGIA**ren harpidetza

99 €

Eskaintza berezia

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

EKOLOGIA

Suteak, CO₂ iturri erraldoiak

COLORADOKO UNIBERTSITATEKO (AEB) NCAR zentroko ikerlarien arabera, AEBetan gertatzen diren sute handiek herrialde horretako ibilgailu guztiek urte osoan adina karbono dioxido igortzen dute.

Baieztapen hori egiteko sateliteetatik egindako argazkiak eta suteek igorritako karbono dioxido kopurua estimatzen duen eredu informatiko bat erabili dituzte. Egileek onartzen dute %50eko errore-marjina dagoela.

Dozena bat estatutako suteak aztertuz, horiek karbono dioxidoa oso azkar igorri zutela ikusi dute. Adibide gisa, Kalifornia hegoaldean urriaren 19tik 26ra gertatuta-



Kalifornian izandako suteak erabili dituzte ikerketarako.

O s a s u n a

JABIER AGIRRE

Zaurien aurrean zer?



Lehenbizi zauria baloratu behar da.

ZAURIA ESATEN ZAIO ehun bigunen, azalaren, osotasuna galtzeari. Izan daiteke kanpoko eragile batek sortua –labanak edo bizarra mozteko tresnak–, edo gerta daiteke gorputz barruko eragile batek, hautsitako hezur batek esaterako, zauria eragitea.

Zauri bat baloratzeko eta haren pronostikoa egiteko hainbat faktore hartu behar dira kontuan: zerk eragin duen –erorketa bat, traumatismoren bat edo punta zorrozduen zerbait bat izan den arrazoia–, nola sortu den zauria, haren garbitasun maila, sakontasuna eta hedadura eta inguruko beste organoren bat erasan duen ala ez.

Zauriaren ondorioz mina sentituko dugu, are gehiago gune mugikor batean edo giltzadura batetik gertu izan baldin bada. Zauriak odoljariora eragin dezake, azaleko lesioa dela eta leku horretan odol-hodiak –handiak nahiz txikiak– hautsi edo eten egin direlako. Zauria lokalizatua eta txikia baldin bada, bizarra egiterakoan gertatzen direnak esaterako, odol galera

oso txikia izango da. Baina erasandako azalera handia bada, zauria azalekoa izanda ere, odoljariora etengabea izan daiteke, eta seruma –odolaren zati argia– ere gal daiteke. Zauriak gune sakonagoak erasaten baditu, odol-galera handiagoa izango da, batik bat egitura bascularrak kaltetu badira. Arteria baten lesioak odoljariora handia, taupakaria eragiten du; zain bat baldin bada, irtengo den odola ilunagoa izango da kolorez, eta mantsago kanporatuko da. Azkenik, zauriaren garbitasunari ere erreparatu behar zaio. Zauria eragin duen objektua zikina edo herdoildua badago, gaiztotzeko aukera gehiago dago. Kontuz tetanosarekin.

Zauri baten aurrean gomendio batzuk bete behar dira:

- ✓ Ondo garbitu zauria, ur askorekin.
- ✓ Zauri txikiak, azaleko ebakiak edo erredura arinak produktu egoki batekin desinfektatu behar dira.
- ✓ Odoljariora gerarazteko, zanpatu zauri ganean minutu batzuek.
- ✓ Zauria estali ala ez erabaki behar izaten da. Zikindu eta gaiztotzeko arriskurik balego, hobe da zauria estaltzea.
- ✓ Beti kontuan hartu tetanosaren aurkako profilaxia egiteko beharra dagoen ala ez.

landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Idi-bihotzarboladia

AURTENGO UDAZKENA aparteko jantzi dutenen artean, hostajeari egoskor eusten dioten zimelkorrek ez bezala, idi-bihotzarbolak dagoenerako erantziak ditu udazkeneko moda

erakustaldirako hautatu zituen janzki horiak. Txalo-zarta eta laudorio ugari izan du oraingoan; izan ere, horizalek ez da sekula faltako.

XVI. mendean Ameriketatik, Lenape indiarren lurraldeetatik, ekarri eta landatu zituzten lehen aleak Europan; ezagutzeko lehenik eta parkeak edertzeko baino ez, gero. Lehengo mendearen azken laurdenetik atzera, berri,



Idi-bihotzarbolaren lorea.

ondo geurea dugun pinuari zaion fobia orekatze aldera hostoa galtzen duen edozein zuhaitz jarri da. Gipuzkoan, batik bat, idi-bihotzarbola tartean. Basogintzan ari den baten batek, nondik edo handik, zuhaitz honen zurak Ameriketara duen osparen berri izango zuen eta "geurera nola moldatzen den proba egin dezagun" esango zuen. Han-hemenka sailen bat ikusten da. Ez da gehiegi zabaldu, eta ez al da zabalduko! Bere zurak amerikarren begitik ikaragarritzko balioa du. Gure talaiatik, aldiz, eskasa da zeharo. Garai batean zuhaitz honen zuraz egin ohi ziren gauza gehienak —kutxatxoak, jostailuak, kanoak...— beste gairen batekin egiten dira egun. Beraz, materialetarako behintzat idi-bihotzarboladirik ez dezazula landatu, gero! Lorealdia gustuko, udazkeneko janzkien zaldaineko ikuskizuna, bi mende t'erdiz izango dituen baten batek estimatuko duelakoan... zuhaitz hau landatzeko arrazoi faltarik ez da. Besteak beste, osasuna.

Osasuna, bai. Nerbio sistema eta bihotza bera ere kitzikatze gaiten tulipiferina alkaloidea du azalean. Egundainotik goi, azal honen egoskin edo ura hezueria, urdaileko eta hesteetako gaitz kronikoak, disenteria, eztula eta histeria dutenen suspergarri erabili izan da. Azal-ur honek azala garbitzen digu, zauri, zaldar... Haziak eta zainen azala zizareak botatzeko onak dira eta azal berria gordinik martxekatzea afrodisiakoa da. Osasun beraren alde, zuhaitzaren erroa zenbait garagardo berexin ongarri gisa darabilenik bada. Limoi-lurrin amiñi gozoa eransten omen dio.

ko sutea erabili dute. Haren ondorioz 7,9 milioi tona karbono dioxido igorri ziren, hau da, Kalifornian hilero erregai fosilen errekontzatik igortzen denaren laurdena. Gasa hain azkar igortzeak asko zailtzen du karbono-zikloa ulertzea. Ondorioz berotegi efektuari aurre egiteko zailtasunak egon daitezke.

Eremu bat erretzen denean landare berria sortzen da, baina horrek igorritako karbono dioxidoa birzikla al dezake? Zenbat birzikla dezake: erretakoak baino gutxiago ala gehiago? Erantzuna ematea zaila da, eta askotan landare berria sortu orduko berriro ere erre egiten da. Galdera gehiegi erantzunik gabe oraindik. ■

GEOLOGIA

Milaka tona lur itsas azpian dantzan

HAINBAT IKERLARI frantziar eta alemaniarrek Afrikako itsas azpian gertatutako lur mugimendu paregabe baten berri eman dute *Nature* aldizkarian. Marokoko Agadir hiria parean gertatu den mugimendu horretan, 2.250 bilioi kilogramo

sedimentu higitu dira, urtero ibaiek itsasoetara eramaten dutena baino hamar aldiz gehiago. Antza, sedimentuek 1.500 kilometroko bidea egin dute, Paristik Erromarako bidea alegia, eta itsas hondoak gorantz egiten zuen leku batean pilatuta geratu dira.

Agadir (Maroko) parean gertatu da lur mugimendua.



Aipatzekoa da ikerketa Exxon Mobil eta Shell enpresek finantzatu dutela neurri batean. Ez da harritzekoa, hidrokarburoak ustiatzeko itsas azpiko instalazioak gehitzen ari baitira, eta horregatik itsas hondoan gertatzen denak gero eta garrantzi handiagoa dauka enpresa horientzat. ■

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industrialdea 1, 20186 Lezorte-Oria
Tel. 941.39.16.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Historia etzana

AEB, 1960. NASA *viscolastic* izeneko material berria garatzen hasi zen, espazioan astronauten atsedena hobetzeko asmotan. Geroago, koltxoi biskoelastikoek lur hartu zuten, eta helburu terapeutikoekin erabiltzen hasi ziren ospitaletan. Azken urteetan koltxoi horien erabilera zabal-tzen ari da etxeetan. Eta ziur alor honetan laster izango direla berrikuntzak, gizakia gizaki denetik lo ahalik eta erosoan egiteko bideak bilatu baititu.

Kobazuloaren txoko batean hosto piloa ipini, larruz estali eta prest dugu historiaurreko koltxoia. Baina nomadismoari agur esan eta gizakiek bizimodu egonkorragoa hautatu zutenean, lo egiteko oinarri erosoagoa bilatu zuten. Lastaira ondasun bihurtu zen eta, beraz, maila sozialaren sinbolo. Horrela, Egiptoko faraoiek zapi harro eta bigunez babestutako egurrezko oheak zituzten. Herri xeheak, aldiz, lurrian ipinitako palmondo hostoen gainean egiten zuten lo. Grezian ere, ahal zutenek egurrezko, harrizko edo marmolezko oheak zeuzkaten, oihal lodiz estalita.

Erroman, koltxoia bilgune bilakatu zen. Haren gainean hartzen zituzten bisitak eta haren gainean egin oturuntza amaigabeak. Metalezko oheak artilezko koltxoiz eta lihozko zapiz babestuta zeuden. Baina orduan ere, goi mailako erromatarren eskura baizik ez zegoen luxu hura. Besteak zuntz begetalez egindako oheetan etzaten ziren. Erromatarrek izan ziren urezko ohea asmatu zutenak; ur epelez betetzen zuten matalaza, lo hartzeko mesedegarria zelakoan. Inperioak behera egin zuenean, koltxoia bide bera hartu zuen. Erdi Aroan zoruko edozein txoko bihurtu zen etzaleku, eta lastoa edo zerrautsa erabili ohi zituzten lurraren hotza eta gogortasuna apaltzeko.



Malguki koltxoia XVII. mendean asmatu zuten, baina mende batzuk eta hainbat hobekuntza behar izan zituen eroso eta isila izateko.

Berpizkundeak iraultza ekarri zien koltxoiei ere. Ordura arte erabilitako material organikoak usteldu egiten ziren, eta gizakien etzaleku izandakoa berehala bihurtzen zen arratoien eta intsektuen bizitoki. Leonardo da Vincik berak behin idatzi zuen “hildako kreaturen hondakinen gainean” lo egin behar izan zuela. Higienea hobetze aldera, lastoa zakutan sartzen hasi ziren; zakuek botoiz itxitako zuloa zeukaten, lastairaren edukia berritu edo aireztatzeko. Baina hezetasunak eta kiratsak gaueroko lagun izaten jarraitu zuten, Guillaume Dujardin Frantziako gorteko tapizariaren asmakizuna iritsi arte. Olanazko zakua argizariz babestu, balbula batzuk ipini eta airez bete zuten: airezko lehen koltxoia egin zuten.

XVII. mendearen hasieran asmatu zuten malguki-koltxoia. Baina produktu garestia zen. Horregatik XX. mendea bitartean, artile hutsezko koltxoia izan ziren gehien erabiltzen zirenak. Gainera, hasierako malgukiak zilindrikoak ziren, berehala deformatzen ziren, koltxoia zulatzea ere lortzen zuten, eta bizkarreko arazoak sortzen zizkieten gainean etzaten zenari. Arazoa 1850eko hamarkadan Heinrich Westphal alemaniarrek konpondu zuen malguki konikoak sortuz. Eta ordutik aurrera, bizkarra ez baina belarriak gogaitu zituen malgukien arteko marruskaduraren zaratak. James Marshallek zakutxo bana ipini zien malgukiei eta, horrela, erabiltzaileen bizkarra eta intimitatea, biak, babestea lortu zuen. 1950eko hamarkadatik aurrera material sintetikoek artilea ordezkatu zuten, aparrak lehenik eta latexak ondoren. Eta egun, ilargira bidaiatzeko ametsa gehienontzat oraindik utopia hutsa bada ere, astronautek bezala lo egiteko aukera dugu. ■

ARRASTOAK



MOSKUKO KGBren kuartel nagusia izandakoan giza arrastoak aurkitu dituzte berriki. Sobietar inteligentziaren egoitza nagusi ohia (argazkian) Nikolskaya kalean dago, Plaza Gorria eta Lubyankaren artean, eta guztira 34 eskeleto topatu dituzte, guztiak balaz zulatuak. Arrastoak ikertzen hasi dira eta, behin behineko emaitzen arabera, hilketak 1930eko

hamarkadan gertatu ziren, Stalinen Purga Handiaren garaian hain zuten. Dirudienez, garbiketa haren frogak ez zituzten behar bezala estali. Eta hala ere, izebergaren punta baino ez dira hezur horiek; 1937an, Purga bere gorenean zenean, eguneko 1.000 exekuzio burutzera iritsi ziren. Hezurren ondoan herdoildutako pistola bat ere aurkitu dute.

Ixone Legorburu / Fernando Arburua

Ixone Legorburu (Gasteiz, 1978) eta Fernando Arburua (Zugarramurdi, Nafarroa, 1953). Psikologoa lehena, bestea berriz, 23 urte kartzelan egin dituen preso ohia eta egun Preso Politikoen Kolektiboko Osasun arloko koordinatzailea. Espainiako hainbat kartzela ezagutu ditu, hala nola, Carabanchel, Alcalá eta Sevilla. “Esperientzia pixka bat badut barruko kontuez”, dio irribarrez. Legorburuk ere ongi ezagutzen du “barruko” egoera, baina espetxeratuaren ahotik. Gaixo dauden presoek gaiaz aritu gara, besteak beste.

LANDER ARBELAITZ

Argazkiak: Dani Blanco



«Lehen pentsaezina zen zortzi urte kartzelan pasatzea»

Nola ikusten duzue “kartzela” kontzeptua psikologiaren ikuspuntutik?

IXONE LEGORBURU. Gezurra da kartzelek presoak birgizarteratzeko helburua dutela, guztiz kontrakoa gertatzen baita. Espetxean daudenek bertako errealitatera moldatu behar izaten dute eta egoera hori birgizarteratzearen kontrakoa da: beren baitan itxi egiten dira eta defentsarako prestatu.

FERNANDO ARBURUA. Kartzelak gizarte sistemak aldentutako jendea biltzen du eta oso funtzio zehatza dauka: gizartetik kanpo edukitzea. Printzipiozko bere helburuak aldatu egiten dira, baliteke norbait birgizarteratzea, edo pertsona preso hori nolabait erreformatzea... baina noski, kartzela eredu hau susta-

tzen dutenentzako funtsezkoa da kalte egiten dion ingurutik kanpo edukitzea. Espetxeko bizimoduak presoaren ideietan edo nortasunean eragitea nahi dute.

Espainiako Konstituzioaren 92. artikulua presoek gaixotasun larriak edo sendaezinak dituztenean aske izateko eskubidea dutela dio. Zer etortzen zai-zue burura hori irakurrita?

F. ARBURUA. Estatuak presoak estutzeko erabiltzen duen artikulua eta baliabidea da.

I. LEGORBURU. Bai, bere aurpegia garbitzeko.

F. ARBURUA. Nahiz eta baldintza objektiboak izan, eskubide hori

behin eta berriz ukatu egiten digute. Giro edo helburu politikoaren eta soziologikoaren arabera erabiltzen dute. Preso sozialen kasuetan zuzen aplikatzen dute, baina gure kasuan oso ongi neurtzen dute noiz erabili eta noiz ez.

Bautista Barandalla preso gaixoaren kasua adibide bezala har genezake. Mobilizazioak eta askatzeko eskaerak ugari izan arren, epaileek ez diote 92. artikulua aplikatu. Nola eragiten diete neurri horiek preso gaixoei?

I. LEGORBURU. Hasteko, preso bakoitzari desberdin eragiten dio. Arlo politikoari begiratuz gero, gauzak ez direla aldatu eta beraiek ere borrokan jarraitu behar dutela ikusten dute.

Baina aldi berean, beren gaixotasunaz gain, jasan behar duten egoerarekin “noraino helduko naiz” pentsatzea dakarkio preso bakoitzari.

F. ARBURUA. Egun hamabi preso zenbatu ditugu gaixotasun larri edo sendaezinekin. Berez kalean behar luke, baldintzak betetzen baitituzte eta injustizia horrek etsipena dakarkie. Angel Figueroa Fernandez kasua da landu dugun azkena, epilepsia krisiak izan ohi ditu sarritan.

Nola egiten duzue beren askatasun eskaera?

I. LEGORBURU. Presoa aska dezaten, baldintza guztiak betetzen dituela erakusten duen txosten medikua ematen diogu epaileari. Hala ere, epaileek ziurtasuna nahi izaten dute: kaleratzen denean lehengo jardueretara ez dela itzuliko ziur egon nahi dute. Adineko pertsona bat oso gaixo dagoenean... nahiko argi dago ez dela itzuliko.

F. ARBURUA. Esku artean dugun kasurik larriena Jon Agirrerena da. Adibide argia bezain lazgarria: itsu geratu da, eta gaitzaren larritasuna ez dela hainbestekoa esanda, ukatu egiten diote askatasuna. Konturatu garenez, eskaera egitean, orri-formatu bakarra dute erantzuteko. Jarrera bera dute preso denentzat, oso gaixo dagoenarentzat hala nola ez dagoenarentzat.

I. LEGORBURU. Ez dute inondik ere 92. artikulua aplikatu nahi izaten. “Artikulu hau aplikatzen badiogu irabazi egin digu” pentsatzen dute eta hori buruan dutela hartzen dituzte erabakiak.

F. ARBURUA. Tranpetan aritzen dira. Beren hitzetan, preso “delitu berriak egiteko ari da askatasun eske”. Holako egoeran dagoen norbaitek ezin du ezer egin eta beraiek badakite. Hala ere, nahi dutenean askatzen dute.

Unean uneko egoera politikoaren arabera gertatzen al da hau?

F. ARBURUA. Bai, kasu honetan eta baita euskal preso politikoaren inguruko edozein egoeratan ere, eta preso gaixoan auzian ageri-agerikoa da hori. Irudi gogorragoa adieraztea komeni zaienean denari ezetz esaten diote. Hori orain ikusten ari gara.

Zein izaten da konfiantzazko medikua-ren bisita eskaera atzera botatzeko arrazoiak?

I. LEGORBURU. Nire esperientziaren arabera, adibidez, ezezkia erabakitzen dutenean, “segurtasun arrazoiak” baino ez dituzte aipatzen.

F. ARBURUA. Onartu edo ez erabakitzeko irizpide batzuk dituzte. Ea mugimenduren batean sartuta dagoen eta noizbait prentsaurrekoren batean agertu den begiratzen dute. Gertatu izan da mediku jakinen batek manifesturen bat sinatu duelako, bisitak ez baimentzea. Normalean, psikologo eta psikiatrei errazago ematen diete sarrera baimena, bai baitakite arazo mentalak dituzten presoak kontrolatzen ez badituzte, sekulako arazoak izan ditzaketela.

Zer ezberdintasun ikusten duzue Espainiako eta Frantziako Estatuaren artean, konfiantzazko medikuen jardunean?

“Konturatu gara askatasun eskaera egiten dugunean, erantzun formatu bakarra dutela eta epaileek berdin aplikatzen diotela edozeini, oso gaixo dagoenari eta ez dagoenari”

FERNANDO ARBURUA

F. ARBURUA. Maila batzuetan askoz ere zorrotzagoa da Frantziako Estatuaren. Esate baterako, bisitak ezin dira erraz lotu.

I. LEGORBURU. Espainian ezetz esango dizute, baina tira, profesional bezala saia zaitezke bisita eskatzen. Frantziako Estatuan ez. Han abokatuak eskatu behar du eta egiten duten azterketa oso sakona da. Imajinatzen dut Madril-en ere antzekoa dela, baina ez da behintzat hain agerikoa.

Zer-nolako azterketaz ari zara?

I. LEGORBURU. Psikologoa nor den jakin nahi izaten dute berehala. Presoarekin segituan hitz egiten dute ea kontsulta beharrezkoa den ala ez jakiteko.

F. ARBURUA. Epaileak erabakitzen du. Ez dago aukerarik. Aukera bakarra espetxeko medikuarekin harremana izatea da eta horrela presoren baten jarraipena egitea, bestela ez.

Behin baino gehiagotan gertatu izan da presoren batek bere buruaz beste egin izana. Nola eragiten du horrek beste presoengan?

I. LEGORBURU. Gogor eragiten die, etsipena eta inpotentzia dakarkie. Guztiak egon dira noizbait ahul eta burutik ere pasa izan zaie suizidatzea. Sentitzen dutenean pertsona batek egin duela: “Nik ere egin dezaket, hemen oso gaizki pasatzen da eta ez dakigu noraino hel gaitezkeen”, pentsatzen dute. Neure uste soila da, hala ere. Berezko beldurra izaten dute. Etor daitezkeen egoera latzei aurre egiteko gai izango ote diren beldur bizi dira.

F. ARBURUA. Pertsonaren arabera dela uste dut. Espetxean gisa askotako jendea dago, zigor mota ezberdinak dituztenak. Gertaerak isolamendu ziegan harrapatzen bazaitu, asko eragiten du. Garrantzitsua da jakitea preso urkatu izana askotan ez dela oso prozesu luzearen ondorio, batzuetan nahikoa izaten da momentu oso ahul bat hori egiteko. “Baina nola egin ahal izan du?” galdetzen du jendeak. Holako gauzak egiteko ez da asko behar. Ezagutu ditugu lasai egoteko baldintza guztiak (familia, lagunak...) zituzten presoak eta, hala ere, bere buruaz beste egin dute. Espetxea holako gertakizunak eragiten dituen tokia da.

Ixone, senideek nolako laguntza eskatzen dute?

I. LEGORBURU. Arazo konkreturen batekin etortzen dira, edo bestela, egoera gestionatzen ez dakitelako. “Urtetan aritu naiz dena ematen, baina agortu zaizkit baliabideak...”, esatera iristen dira eta, berriz ere, nola sendotu galdetzen didate. Helburua aurrera jarraitzeko indarrak ematea da, sufritzen duten higadura handia delako.

Sakabanaketak ere izango du eraginik.

I. LEGORBURU. Bai, handia.

F. ARBURUA. Presoaren egoera ere bai. Familiatik hain urrun sentitzeak era-

giten du. “Familia zigortzen dute nire erruz” pentsatzen dute eta hori oso gogorra da.

Eta istripuak, nola bizi ditu presoak?

I. LEGORBURU. Errua beren buruari botatzen dio. Hasierako infernua hori da. Gero gertatu denaz jabetzen da, baina hasierako erreakzioa hauxe da: “Ni bisitatzera zetoze-lako izan dute istripua, ni hemen nagoelako”.

Su-eten garaia berezia izango zen presoentzat. Nola erreakzionatu zuten iragarri zenean?

I. LEGORBURU. Orokortzea zaila den arren, esan liteke nolabaiteko poza sentitu zutela, baina aldi berean kontu handiarekin hartu zuten, “badakigu zer gerta daitekeen” zioten.

F. ARBURUA. Presoak oso errealistik dira. Su-etena iragarri zenean aurreko prozesutik ikasia zuten zer gerta zitekeen.

I. LEGORBURU. Beren begiekin ikusten dute gertatzen ari dena. Beraiek sumatzen dute espetxean egoera aldatzen ari den ala ez.

Barajasko atentatua nola hartu zuten?

I. LEGORBURU. Nik uste ez zuela inor harritu. Batzuek pena pixka bat hartu zuten egoera larria baieztatu egin zelako. Aldi berean, esperoan, beren burua prestatu beharrean ikusi zuten, “ea orain zer datorki-gun, guk ere ondorioak jaso beharko ditugu-eta”.

Su-etenaren haustura nola bizi izan zuten?

F. ARBURUA. Ixonek esan berri duenaren konfirmaziotzat. Ezker abertzaleari gertatu zaion gauza bera gertatu-koko zela barruan: egurra.

Filipe Bidart preso ohiak *Bakartasunaz bi hitz* liburuan 19 urteko kartzelaldia eguneroko borroka gisa deskribatzen du. Hitzaurrea zuk idatzia da Fernando. Duela hogeit hamar urte kartzelan sartutakoa, presoak nola egiten zion aurre espetxealdiari?

F. ARBURUA. Jendeak esperantza zuen hau lehenbailehen konponduko zela. Inork ez zuen pentsatu ere egiten



Ixone Legorburu psikologoa ezkerrean eta Fernando Arburua preso ohi eskuinean.

zigor osoa bete beharko zuenik, kontuan izanik aurreko presoek gehien-gehienez hamar urte egin zituztela amnistia lortu arte. Ezta burutik pasa ere zortzi urte egin zenitzakeenik kartzelan. Gero, pixkanaka txipa aldatzen hasten zaizu: “Hamar urte pasa dira eta oraindik hemen nago...”. Egoera asko aldatu da.

“Ateratzear zaude eta bat-batean beste hamar urte egin behar dituzu. Hori irenstea oso zaila da”

IXONE LEGORBURU

Ixone, orain nola prestatzen du bere burua presoak kartzelaldirako?

I. LEGORBURU. Imajinatzen du gutxienez 40 urte izango direla. Hori onartzea zaila da, baina urteak pasa ahala, okerrago edo hobeto, egoerara egokitzen dira. Hala ere, aspaldi sartu zirenek dute arazo handiena. Hogeit hamar urteko muga horretan aterako zirela esan baitzieten eta luzatu egingo diete zigorra. Hori irenstea oso zaila da. Ateratzear zaude eta bat-batean beste hamar urte egin behar dituzula esaten dizute. Hori ikusita “nork esango dit hamar urte barru ez dizkidalako beste hamar gehituko?”, pentsatzen dute. Inpo-

tentzia handia da, ez dakizu noraino neurtu ditzakezun indarrak. Higdura psikologiko handia da.

Parot Doktrinaren erabileraz ari zarete...

F. ARBURUA. Ia irtetear zegoen jendea gertatu zaio hori. Batzuk egun gutxiengatik harrapatu ditu neurriak eta kolpean beste hamar urte ezarri dizkiete. Pentsa nolako kolpea! Jada kanpoko proiektuak (familia, laguna...) eginak dituzu eta idazki bat iristen zaizu hamar urte gehiagor geratu behar duzula esanez. Presoarentzat nahiz familiarentzat da kolpea.

I. LEGORBURU. Eta nork daki ez direla beste hogeit hamar izango?

F. ARBURUA. De Juanaren kasuan hasi zen hori. Berak esan zuen ez zela fidatzen gerta zitekeenaz.

I. LEGORBURU. Hala ere, inork ez ditu eskuak burura eramaten, hau ez omen da bizi osorako kondena! Lehen kartzelan sartzen zituztenak etakideak izaten ziren, gaur egun ez. Gaur egun edonor kartzelaratua izan daiteke. Etakidea gutxi gorabehera prest dago: “Hau nire erabakia izan da”, esango du eta kito. Alabaina, gazte mugimenduetan dabilenarentzat, sorpresan harrapatu duen edonorentzat hainbeste urte kartzelan pasa beharra onartzen zaila da. ■

Alferrik euskaratutako filmak

80ko eta 90eko hamarkadetan euskarazko bikoizte lan mordo egin ostean, azken urteetan nabarmen murriztu da produkzioa. Haatik materiala badago, bai zine aretoetarako baita etxeko merkaturako (DVD, VHS...) ere. Dagoenari zuku guztia ateratzea falta, ordea.

ANDER ALTUNA

Argazkia: Alex Larretxi

“ORAIN JENDEA ez da joaten filmak ikustera, ez euskaraz ezta gaztelaniaz ere. Zinearen industriak dakarren gaitza da”. Marian Galarraga Tinko Euskara Elkarteko lehendakariaren hitzak dira. 14 urte daramatzate filmeen eskubideak erosten (bai zine aretoetarako, bai etxeko merkaturako –VHS, DVD, HD-DVD– eta telebistarako), filmak euskaraz bikoizten eta beronen sustaketa egiten. Euskarak zine aretoetan zuen zuloa estaltzeko sortu zen elkarte, ezerezetik. Madril eta Bartzelonako banatzaileek ez zuten uzten euren filmak areto komertzialetarako euskaraz bikoizten. Tirrikittarrak horiek erdiesten hasi ziren, Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntzak lortuz eta filmak zinean estreinatuz. “Hala ere, jende batek ez zuen egiten euskararen alde, diruagatik baizik. Dirua dagoenean askok nahi dute euren lana bikoiztea, baina ez dagoenean hor konpon. Horrek murriztu egiten du film kopuruen euskaratzea”.

Egun, beste zailtasun batzuk dituzte, filmak euskaratu arren, jendea ez dela zine aretoetara joaten, alegia. Galarragak dioenez, erabat etsigarria da horrenbeste esfortzuren ostean euskarazko filma jarri eta ikuslerik izan ez duela jakitea. *Irabazleak eta galtzaileak*, azken lanarekin



Kaiet Estradak eskutan dituen film guztiek euskarazko bikoizketa dute. *Dark Water* film japoniarren DVDaren karatulan ez zen agertzen euskarazko bikoizketa zuenik.

hori gertatu zaie. Euren lanak DVDan ere jartzen dituzte eta ondoren telebistari saltzen saiatzen dira, baina “ETBk ez ditu filmak euskaraz nahi”.

Euskal Telebistak 80ko hamarkadan batik bat eta 90eko hamarkadan, kanpotik produktu asko erosi eta bikoiztu zituen, ETBko zuzendari Bingen Zupiriaren esanetan ez instalazio, ez behar adinako jakituririk ez zegoelako. Urteen pode-

rioz murrizten joan dira erosketak eta bikoizketak barne produkzioaren mesedetan. Zupiriarentzat, “lehentasun” kontua da. Urteak pasa ahala, batetik, jendearen harreara hobe izan delako eta bestetik, hizkuntzaren biziraupenari eta erabilerari begira interesgarriago zitzaielako barne produkzioa bideratu dituzte indar guztiak, *Goenkale*, *Martin*, *Balbemendi*, *Pilotari* edota *Kalaka* sortuz.

Udal aretoen premia

EAEko zine aretoetan sei milioi ikusle bildu ziren iaz. Euskal Kulturaren Behatokiak Kultura 07 izeneko lehenengo txostenean plazaratu ditu datuok. Horrek esan nahi du EAEko biztanle bakoitza hiru aldiz joan zela. Kaiet Estrada zine proiektionista zen Gasteizko Boulevardeko zine aretoetan harik eta Abaco kateak ordainketa etendura iragarri eta kaleratu arte. Orain, Ohrum izeneko zine-klubeko kidea da. "Gauzak benetan beltz daude". Estradak argi dauka, areto asko itxi egingo dituzte-

"Euskarazko zine kopiak
egingo dira, baina non
jarria faltako da.

Hiriburuetan udal

aretoak behar dira,
uneoro euskarazko film
batekin. Horrek ohitura
sortuko luke"

KAIET ESTRADA

la eta horiek gutxitu ahala euskarak behera egingo duela. "Euskarazko zine kopiak egingo dira, baina non jarria faltako da. Hori medio, hiriburuetan udal aretoak behar dira, uneoro euskarazko filmak eskaintzeko. Horrek ohitura sortuko luke". Galarragak bat egin du aldarrikapen horrekin.

DVDak ordezkioa badu

Berrikuntzaren gupila geldiezin da eta DVDa ere bidean harrapatuko du. Belaunaldi berriko bi diskok aurrekoaren lekukoa hartuko dute eta dagoeneko bi formatutan merkaturatzen hasiak dira: Blu-ray eta HD-DVDan. Informazio gehiago bilzteaz aparte, irudiaren eta soinuaren

40.000 euroko bikoizketa lanak

Tinko Euskara Elkarteak lehendakari Marian Galarragaren esanetan, ordu erdiko bikoizte lanak 3.000 euro inguru balio du eta edozein pelikula 40.000-50.000 eurotara irits daiteke, gutxienez. Urtean lau film erosi eta bikoizten dituzte. Horren ostean film hori sustatzen dute areto komertziale-tan, eskoletan banatuz, DVDak eginez. "Orohar, bikoizketa lana benetan gogorra da", aitortu du Galarragak. Aurtengo Donostiako Zinemaldian *Izotz Aroa (Ice Age)* estreinatu dute euskaraz. Orain HD-DVD formatu berrian argitaratuko da eta Tinkok erraztasun guztiak emango ditu euskaraz ere egon dadin.

kalitatea hobea da. Gauzak horrela, DVD formatuan dauden film andana berriz argitaratuko da disko berri horietan. Kaiet Estradak eta Marian Galarragak etorkizuna hor ikusten dute, hau da, euskarak kosta ahala kosta muturra sartu behar duela.

Askok ala gutxi, euskarazko materiala badago, baina elkarriketatuen aburuz ez zaio zuku guztia ateratzen. Galarragak dio, ez dela horrenbeste-ko lana katalogoa osatzea euskara duten DVD guztiakin eta salmenta lekuetan argi eta garbi erakustea zeintzuk duten euskarazko bikoizketa. Estrada aho bete hortz geratu zen *Dark Water* filma alokatu zuenean. Karatulan gaztelaniaz eta jatorrizko hizkuntzan zegoela jartzen zuen, baina "Hizkuntza" atalean begiratu eta euskaraz ere bazegoela ohartu zen. Horretaz aparte, *Detective Conan* telesailaren adibidea jarri du mahai gainean. Iazko azaroan kaleratu zuten DVDa, gaztelaniaz, galegoz eta katalanez. Euskarazko bikoizketa hiru hilabete beranduago

egin zen eta tarte horregatik ez da sartu. Halakoak berriz gerta ez daitezen koordinazio gune baten sorra beharrezkotzat jotzen du, orain arte egindako bikoizte lan guztiak aurkitu, sailkatu, behar bezalako datu basea sortu eta enprekin harreman zuzena izateko.

LTDaren hedadura geldiezin

2007. urtea amaitu baino lehen Lurreko Telebista Digitalaren hedadura EAEko biztanleen %93ra iritsiko da. Digitalizazioak hainbat hizkuntza aldi berean emititzea ahalbidetu du. Horren ondotik, Kaiet Estradak aldarrikatzen duena

"Lurreko Telebista

Digitalaren aukerak

daukagun estatusa

zalantzan jar dezakete.

ETB2an dena delakoa

euskaraz ikusteko

aukera eman dezake,

baina baita ETB1en

gaztelaniaz ikusteko ere"

BINGEN ZUPIRIA

zera da: baldin eta filmak edo marrazki bizidunak edo dena delako telesailak euskarazko bikoizketa badu, zergatik ezin ote dezakeen ETB2 katean hizkuntza aukeratu, euskaraz ikusi: "Bikoizketa egina izanik ETBk aukera hori eman dezala". Haatik, Euskal Telebistako zuzendari Bingen Zupiriak ez ditu horren garbi ikusten LDTak ematen dituen aukera horiek. "Daukagun estatusa zalantzan jar dezake. Teknologia ETB2an dena delakoa euskaraz ikusteko aukera emango digu, baina baita ETB1en gaztelaniaz ikusteko ere". ■

Babeslea: Oiarzungo Udala



Oiarzungo Udala
www.oiarztzun.org

OIARTZUN, UDALERRI EUSKALDUNA

Osasungintza, Lantegiak, Epaitegiak, Merkatal eta Finantza Zerbitzuak
ere euskaldunduz. Euskaraz bizi nahi dugulako hamaika lan
elkarrekin egiteko dugu.

Gabonak eta klima aldaketa

Gabonak bertan ditugu. Gure kaleak milaka bonbillez argiztatuak ikusiko ditugu Erregeak pasa arte. Energia xahutzeko hilabetea da eta hori ez dator bat aldaketa klimatikoaren eta CO₂ igoerpenen aurka agintariek ematen dituzten aholkuekin. Agintari horiek dira, lotsarik gabe, xahuketa erabakitzen dutenak. Horretan enpresek ere badute interesik, erosketak eta kontsumoa igo egiten baitira. Gainera, garraioan eragiten du. Jakina da ibilgailuak direla aldaketa klimatikoaren eragile nagusiak.

Ez dugu Euskal Herriko datu zehatzik, baina bai Espainiako Estatukoak. Industria Ministerioaren arabera, Espainiako udalek 30 milioi kilowatt/orduko gastatzen dituzte Gabonetako argietan, hau da, 50.000 etxeko auzo batek urtebetean kontsumitzen duen argindarra. Horrek 10.000 tonako karbono dioxido isuria esan nahi du. Madrileko Udalak, berak bakarrik lau milioi euro erabiltzen ditu Eguberrietako argiztapenerako. Euskal udaletxeek zenbat diru gastatzen dute? Aldaketa klimatikoa eta honek sortuko dituen ondorioak arduraz hartzeko garaia da. Politikariek eredu izan beharko lukete. Utz ditzagun autorik gabeko egunak edo argirik gabeko orduak eta baztertu dezagun, behinbetiko, Gabonetako energia xahuketa. Hobe urte osoko gastua eteten badugu.

Juan Mari Arregi

Mikel Aranburu Zudaire Euskararen Nafar Institutuko zuzendari

BALDIN ETA Nafarroako Gobernuak albistea baieztatzen baldin badu. Izan ere, Gobernuak aurkezpen ofiziala egin baino lehen Euskal Herria Irratiak Aranbururekin hitz egin zuen azaroaren 26an eta Iturrama institutuko irakasleak Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kargua hartuko duela adierazi zuen. Nafarroako Gobernuak esan du hautagai gehiago dituela kargu horretarako.

EKEri zuzeneko diru-laguntzak kendu nahi dizkiote

FRANTZIAKO Kultur Gaien Eskualdeko Zuzendaritzak (DRAC) aurreikusi du Euskal Kultur Erakundeak (EKE) zuzeneko diru-laguntza gehiago ez jasotzea. EKE, ekimen zehatzak aurrera eramateko diru-laguntzarik behar badu, hainbat kultur erakunderen erabakiaren menpe egongo da.

Jakin bai, baina erabili ez

SOZIOLOGISTIKA KLUSTERRAK Euskararen Erabileraren V. Kale Neurketaren emaitzak ezagutarazi ditu. Iaz Euskal Herriko elkarriketen %14,2 izan ziren euskaraz. 17 urtean 3,4 puntu igo da euskararen erabilera, hau da, nahi eta espero baino motelago. Klusterraren balorazioetako bat da eza-gutzaren hazkundearen erritmoa erabilerarena baino bizkorragoa dela eta beraz, bien arteko aldea gero eta handiagoa.

BAHEA

Juan Garziak *Volgako Batelariak* blogean esanak: “Beti dago aitzakia soziologiko-ideologikoren bat aurrez aurre ez begiratzeko mamitzen ari den euskaldunteria errealar eta haren muga eta eskasiei. Kantitatetik eta baikortasunetik espero dugu nonbait, besterik gabe, hizkuntza sendotzea. Erdipurdiko (edo laurdenpurdiko) hiztunak nagusi diren hizkuntza bat, ordea, beti izango da azpihizkuntza bat. Eta hemen, askotan, hizkuntzaren elitea behar lukena da erdipurdikoena”.



Mikel Urdangarin

"Anek idatzi dit zutaz" disko berriaren aurkezpen kontzertua.

Durangoko Plateruena antzokian,
abenduaren 7an 22:30ean.

www.mikelurdangarin.com

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Hau guztia Europako Batasunean, XXI. mendean

RAUL CENTENO guardia zibila hilik, bere kide Fernando Trape-ro koman eta espetxe zigor gogorrek bizkarreratu dituzten berrogeitaka lagun atxilotuta. Hori da euskal gatazkak azken egunotan utzi duen arrasto latza, etsigarria eta oso aspal-dian izan den bortitzena.

Ustezko etakideek Landeta-ko Capbretonen egin zieten tiro guardia zibilei, hauek etakideen zaintza lanak egiten ari zirela.

Espainiako Barne Ministerioaren esanetan, armarik gabeko guardia zibilek ezustean egin zuten topo etakideekin eta hauek ezagutu eta tiro egin zieten. Schengeneko akordioek polizi lanak norberen estatutik harago bideratzea baimentzen dute-nean, ez da oso ulergarria guardia zibilak armarik gabe joatea, are gehiago etakideen zaintza lanetan arituz gero hauekin topo egin deza-ketenean. Areago etakide eta fran-tziako poliziek aurrez aurre topo egindako zenbaitetan elkarren aur-kako tiroak izan direnean.

Ikuspegi humanotik berdin dio A, B ala C hipotesia nagusitzen den, pertsona bat gehiago hil da. Baina analisi politikorako garrantzitsua da jakitea zer gertatu zen zehatz-mehatz, batez ere ETAk ez duelako atentaturik egiten Frantzia eta are gutxiago hildakoak eraginez. Denak adierazten du polizi eta iheslarien arteko harrapaketa joko arriskutsu horretan, oraingoan bi guardia zibi-lak atera direla galtzaile.

ETAk su-etena formalki hautsi zue-netik asko hitz egin eta idatzi da bere hiltzeko borondateaz. Atentatu batzuetan ez dirudi horretarako zalan-tza handirik zegoenik, bereziki Bilbon Gabriel Gines bizkartzainaren aurka egindakoan edo Getxoko epaitegietan



Atxiloteten aurka Bilbon egindako manifestazio jendetsua. JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS

jarritako bi lehergailuenean. Edozein eratan, pasatu behar zena pasatu da. Alferrik da ETA azkenetan dagoen ohiko musika. Denak adierazten du ETAk luze iraun dezakeela. Denak adierazten duen moduan orain elka-rrizketarako deiak egitea alferrikakoa dela. Su-etenen ostean alde bakoitza bere dinamika gogorrean murgil-du da eta Espainiako hauteskundeak iragan arte jai dago. Eta ondoren, PSOEk irabazten badu bederen, ikusi-ko da, ez baitirudi negoziatorako ate guztiak itxiak direnik. Hori ikuspegi baikorrena da, ezkorrenak beste bost-sei-zazpi urtetarako gatazka bortitza iragartzen du.

ZIKLO BORTITZ horrek, dena den, dagoeneko harrapatu ditu 18/98ko berrogeitaka auzipetuak. Gehienak espetxean dira jadanik, aurreikus-ten zen bezala espetxe zigor gogo-rrekin (9-18 urte artekoak). Egun bakarrek espetxe zigorra ere justi-ziaren aurkakoa litzateke, baina jasangarria. Idazteagatik, mugimen-du sozial batekoa izateagatik, enpresa jardunagatik edota politiko-agatik 10 urte espetxean iragan beharrak eskizofrenia juridiko-politi-koan jartzen gaitu. Ez da berria ego-era, baina muturrera eramaten ari da eta, beti erakusten den bezala,

harago ere eraman liteke. Hori guztia Europako Bata-sunean, ustezko zuzenbide estatuan, XXI. mendean.

Larriena da neke eta etsi-pen giroak erantzun eta irten-bide bateratueterako aukera blokeatua duela. Amorruren beroak "borroka da bide baka-rra" mahaigainera dezake, baina gaur egun arteko borro-kak ez bederen, hori inozoe-nak ere badaki. Ibarretxeren

galdeketa ekimena da argazki izoztu honetan ageri den orain arteko berri-kuntza bakarra, eta berau ere gero eta aldapa malkartsuagoan ari da.

INIGO URKULLUREN jarrera oso esanguratsua izango da aldapa mal-kartsu horretan Juan Jose Ibarretxe-ren asmoek egin beharreko ibilbi-dean. Bizkaiaren indarrak eta kontsentsuak ekarri dute Urkullu EBBko lehendakaritzara, baina, ore-karen bila, denak adierazten du berak ordezkatzeko duenak Ibarretxeren poli-tikaren kontrapisu egin beharko duela. Bere unea itxaroten jakin izan du eta une erabakigarrian heldu da EBBko lehendakaritzara. Aurrera urrats geldo baina tinkoarekin egiten duenetakoa da.

Ponentziek, dena den, errazago eusten diote kontsentsuari jardun politikoak baino. Lehen patata beroa esku artean du dagoeneko, martxo-ko Espainiako hauteskunde oroko-rretan: koalizio zabalean joan, EA-re-kin ala bakarrik? Ez da erraz irudikatzen Urkulluk gidatutako EAJ koalizio zabalean, Ibarretxeren inda-rraren agerle litzateke hori. Hurren-go ekainekoa: non jarriko du EAJk Espainiako Gobernuarekiko akordio-aren langa? Eta ondoren super-alda-pa: nola egin aurre galdeketa-ri?

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Kazetaritza berria pistolaz idatzi zuen Rodolfo Walsh-ek

Duela 50 urte inprimatu zen *Operación Masacre*. Egileak hitzaurrean argitu zuen gertakizun beldurgarriak zabal ezagutarazi nahi zituela, irakurleak ikaratu eta berriro gerta ez zitezen. Ez zuen hori lortu, 20 urte geroago egilea bera masakratu zuten. Baina kazetaritza berria asmatu zuen.

LA PLATA-KO KAFETEGI BATEAN, Argentinan, xake-jokoan ari dira. 1956ko abenduak azken gauetakoa da. “Capablanca”ko jokalarietako bat, 29 urteko gaztea, kazetari eta idazlea da. Rodolfo Walsh hemen bertan zegoen hilabete batzuk lehenago, ekainaren 9ko gauerdian, hurbil samar tiroketa entzun zutenean. Soldadu eta poliziak nonahitik, tiro gehiago, eta komertzio bateko pertsonaren kontra gizon hura hilzorian garasika: “*No me dejen solo, hijos de puta*”. Sei hilabete geroago, gau honetan, idazle kazetariak entzungo du bizia aldatuko dion esaldia: “Afusilatuetakoa bat bizirik dago”.

Juan Carlos Livragak, hori baita balek aurpegia desitxuratu dioten gizonaren izena, istorio sinestezina kontatuko dio, eta hala ere Walshek sinetsi. Gero, hari mutur hari tiraka, beste afusilatu bat aurkituko du bizirik, eta ondoren hirugarrena eta gero... Azkenean zazpi. Abiatu da ikerketa-erreportajea-nobela.

Aurretik hiru polizi nobela plaza-ratuak dauzkan Walsh kazetariak aldizkari txiki batean argitaratuko ditu aurkikuntzak, eta 1957an *Operación Masacre* liburuan bilduta eskainiko. XX. mendeko literatura eta kazetaritza irakasten dituztenek aipatu ohi dute Truman Capotek *Odol Hotzean* –*In cold blood*– liburuarekin bi generoak korapilatu eta idazkera

iraultzailea erditu zuela: fikzio perodistikoa, ez fikziozko eleberria, kazetaritza berria, lekukotasunezko nobela... Baina askok uste dute bederatzi urte lehenago Rodolfo Walshek urratu zuela bide berri hori *Operación masacre*rekin, 1957an.

Urte haietan Pedro Eugenio Aramburu jeneralak agintzen zuen Argentinan, Juan Domingo Peron lehendakaria eskuinaren eta eliza katolikoaren laguntzarekin boteretik kenduta. 1956an junta militar horren kontrako kolpeak antolatu zituzten matxinoek hainbat lekutan, eta aipatu ekaineko gau hartan Walsh eta berekin xakean ari zirenak asalatu zituen iskanbila jazartuen kontrako operazioetakoa izan zen. Hemezortzi hildako aipatu zituen irratia biharamunean. Horietakoa bost hesitu, preso hartu eta inguruko zelai batean afusilatuta azaldu ziren. Baina, ageri denez, nahasmenduaren erdian beste zazpi bizirik ateratzea lortu zuten.

Urtebetez, istorio honek bete zuen osorik Walshen bizitza. Berak hala idatzi zuen liburuaren hitzaurrean: “Orain, ia urtebetez, ez dut beste ezertan pentsatuko, etxea eta lana utziko ditut, Francisco Freyre deitu-ko naiz, nortasun agiri faltsua edukiko dut, lagun batek etxea utziko dit Tigre-n, bi hilabetez Merlo-ko arrantxoan izoztuta biziko naiz, pistola eramango dut soinean eta une oroz

Goiko argazkian, Rodolfo Walsh kazetari eta ekintzaile politiko-militarra, liburuak irakurtzen. *Operación Masacre* famatuaz gain beste dozena bat obra plazaratu zituen. Bere alabetako bat, Vicky, diktaduraren poliziekin tiroketan hil zen, 1976an, aita hil baino hilabete batzuk lehenago. Beste alaba, Patricia Walsh, MST-UNITE talde ezkertiarreko parlamentaria da gaur egun. Beheko argazkia Walsh Kuban aritu zenekoa da, 1960ko hamarkadaren hasierakoa. Iraultza egin berritan, Walshek beste idazle eta kazetari famatuekin batera Prensa Latina agentzia sortu zuen. Walsh erdian ageri da, eskuinean Ernesto “Che” Guevara eta ezkerrean Jorge Ricardo Masetti, hau ere kazetari argentinarra. Masetti urte batzuk geroago Salta eskualdean Ejército Guerrillero del Pueblo taldean hasi zen borrokan, eta 1964an desagertu zen.


dramako irudiak etorriko zaizkit obsesiboki: Livraga odoletan blai heriotzari ihesi kalekka amaiezin hartatik, eta berarekin zelaian bala artean tiroka salbatu zen beste hura, eta hauek jakin gabe salbatu ziren besteak, eta salbatu ez zirenak”.

Operación Masacre herriarren begien aurrean larrutu zuen hilketa hura goxatzeko agintariak antolatutako bertsio ofiziala. Walshek liburu gero behin eta berriro ukitu zuen, edizio berrietarako, azkeneko aldiz 1972an. Hamar liburu gehiago publikatuko zituen, famatuena *¿Quién mató a Rosendo?* Aldi berean politika eta borroka armatua egin zituen, Montoneros taldearen barruan. 1977an bera hil zuten arte.

Liburuak eta hiriko gerrilla

Bizi izan balitz, aurten 80 urte beteko zituen Walshek, bere liburu aitzindariak 50 borobilak egin dituen moduan. Baina Argentinako diktaduraren agindupeko poliziek hain zuten duela 30 urte hil zuten, 1977ko martxoaren 25ean. Norbait akordatu zuen Argentinan.

Rio Negro probintzian sortua, Buenos Airesera oso gaztetan joan zen, ikasteko asmoz. Filosofia egiten hasi ere bai, baina ikasketak utzi eta lanik xumeenetan ariko da, leiho garbitzen, eta beste. Hamazazpi urterekin zuzenketa lanak egiten zituen argitaletxe batean, eta 1951n hasi zen kazetetan



gauzak plazaratzen. Hil arte ez zitzaion aseko kazetaritzarako irrika.

Operación Masacre eraman zuen Walsh politikan erroraino inplikatzera. 1959an Kubara joan zen, Fidel Castro-ekin eta agintari berriekin lan egitera, eta beste kazetari idazle batzuekin –tarte García Márquez– Prensa Latina agentzia sortu zuen. Argentinara 1968an itzulita, orduan klandestinoan zen CGTren kazetetan egin zuen lan. Urte haietan berak idatzia da honakoa: “Intelektualen alorra definizioz kontzientzia da. Bere garaian eta bere herrian gertatzen dena ulertzen ez duen intelektuala, bi zangodun kontraesana da. Eta gertatzen dena ulerturik ekiten ez duenak, berriz, negarraren antologian edukiko du lekua, baina ez bere herriaren historia bizian”.

1970eko hamarkadan Argentinan indar handia zeukan Montoneros talde politiko-militarrak. Gaurko gazte bati Montoneros hitz bitan esplikatu behar izanez gero, holako zerbait beharko luke: kontraesanez betetako mitoa den Juan Domingo Peronen ideiak eta Kubako eta bestetako esperientzia marxistak uztartu nahi zituen mugimendu anitza, 1970eko hamarkadako diktadurak odoletan ito zuena.

Lehendik ere borroka armatuarekin harremanik izandako Walsh urte horietan Montoneroetan sartu zen. Maila handiko ofiziale izatera iritsi zen. Videla jeneralaren diktadurapean, erakundeko buruzagiek klandestinitatera pasatzea erabaki zutenean, beste ofiziale batzuekin Montoneros taldeari bestelako ibilbi-

dea eman nahi ziotenetakoa zen. 1976an Agencia Clandestina de Noticias sortu zuen.

1976an bertan Walshen alaba Victoria poliziarekin izandako tiroketan hil zen. Hurrengo urtean, 1977ko martxoaren 24an, Jorge Videla eta bere militarrek estatu kolpearean urteurrena ospatu behar zuten egunean, *Carta abierta a la Junta Militar Argentina* idatzi eta zabaldu zuen. Analisi zorrotza eginez, militarrek giza eskubideen aurka urtebetean egindako krimenak kontatzeaz gain, horien sustraian zegoen estrategia neoliberalak deskribatzen zuen.

Biharamunean, beste montonero batzuen zita zaindu behar zuen Rodolfo Walshek. Pistola txiki bat zeraman soinean. Poliziek inguratu zuten. Walsh hasi zen tiroka. Zauritu zuten eta Escuela Mecánica de la Armada beldurgarrira eraman zuten. Haren gorpuzkinik ez da azaldu.

Rodolfo Walsh izena aipatuta, Kuban oraindik oroitzen dira. Gabriel García Márquezek kontatua duenez, Prensa Latina agentzian gainerako agentzien teletipoetan maiseatzen omen zuten, eta hala aurkitu zuten ulertu ezinezko mezu luze enkriptatu bat. Walsh kriptografiaren oso zalea zenez, gauak pasa omen zituen ahaleginean hura deszifratu arte: Kubako gobernuak hartatik jakin zuten nola ari ziren gringoak Guatemalan tropak entrenatzen Playa Gironen lehorreratzeko. Bahía de Cochinosen Kennedy kazetariak izorratu zuen. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



BEASAINGO

Liburu Azoka

Gemika pasealekuko frontoian

Abenduaren 14an eta 15ean
10:00-13:00 / 17:00-20:00

Abenduaren 16an
12:00-14:00 / 17:00-19:00



Josemari Velez de Mendizabal

Arrazoia emango ala kontra egingo?

Interesatu egiten zait inkomunikazioak gure bizimoduan duen eraginaren azterketa. Ez nauzue gaian aditua baina zertxobait dakitenek diotenez, bizi dugun gizarte honek inkomunikazioaz eskainitako indizea, gezurra dirudien arren, inoizkorik larriena da. Eta paradoxa lirudikeena ez bide da hainbesterako, informazioaren gizarteak ez baitu derrigorrez komunikazioa ziurtatzen.

Informazioaren zurrunbiloan gal gaitzke samur asko, komunikatzeko gure ahalmenean hozka sakonak agertuz. Gerta daiteke ere, informazio deskontrolatuaren aurrean norbanakoa defentsan jartzea, bere intimitatea erasotzen delakoan. Eta ez dio komunikazioari aukera ematen.

Inkomunikazioa, dena den, gaixotasun larria da. Gizaki multzo batean krisi osoak edota hausturak eman daitezke inkomunikazioaren ondorioz, eta denon bistakoa da zein nolako eszenategi tristeak sortzen ari diren haren eraginez, gerrak barne, noski. Informazio jarioak ez du bermatzen harreman osasuntsua, inondik ere. Eta horren adibideak dozenaka ditugu gure inguruan.

Komunikazioa, garbi dago, arte bat da, bestearenganako irekiera zabala, konpartitzeko jarrera positiboa adierazten duena; zuk hori ematen didazu eta nik haxe eskaintzen dizut. Baina hori ez da gertatzen ohiko bizimoduan. Gehiegitan itxi egiten gara bestearen planteamenduetara eta ez da sortzen egiazko lotura. Eta komunikazioa arte bada, arte guztiak bezala, zaila da. Behin eta berriz eta etengabe praktikatu beharra dago, bere osotasunean garatzeko eta ahalik eta etekinik onena atera diezaigun. Komunikazioaren kalitatea goratzeko praktika ezinbestekoa da.

Komunikazioa sor dadin aditzen jakin behar da, osterantzean lur eremu antzuetan ibiliko baita. Eta ez dugu ahaztu behar komunikazioa bi edo pertsona gehiagoren arteko lotura afektiboa dela, eragozpenak disolbatuz, elkar ulertzea areagotuz, gataz-



DANI BLANCO

kak konpontzen lagunduz, istiluak prebenituz eta alde guztien onura ahalbidetuz. Beraz, komunikazioa ez da, soilik, zerbait esatea edo entzutea. Jarrera horrek nor beraren burbuilan itxita haztea dakar eta beste batzuen laguntasunean egon arren ezertan ez diogu laguntzen komunikazioari.

Komunikazioa pizteko, partaideen arteko gutxieneko interesa ezinbesteko baldintza da, arreta pittin bat ipinita, eta aditzeko sentsibiltatea azalean. Eta, jakina, besteenganako zubia ezartzeko asmoa ere formularen beharrezko osagaia da, *sine qua non*. Askoz komunikazio gehiago dago gure edozein tabernatako mus partida batean, Interneteko foro eta *chat* gehienetan baino, zeintzuetan lehenasuna norberaren egoa ferekatzea izaten den. Telebistak, kazetak eta komunikabide guztiak –bonbardaketa

batean bezala– lehia bortitzean ari zaizkigu, informazio –pildorazoa– nork lehenago eman guran. Medioei, ordea, ez zaizkie bonbardatuen galderak interesatzen. Nahiago dute horien itsukeri indutua, ez baitute komunikazioa helburu. Horregatik, komunikabide deitu beharrean informaziobide izan beharko lukete.


Inkomunikazioaren kasuistika zabaletik, askotan gogoratzen dut nire aitona zenak kontatzen zidana, bera XX. mende hasieran Madrilén bizi zenean ezagutua. Ileapaindegi bateko

enplegatua, bere txaketilla zuria eta orraziak goiko sakelatik agertuta, bezeroarengana hurbiltzen zen zeremonia osoz. Haren lepotik behera maindire zuria ipintzen ari zitzaion bitartean galdetzen zion: “Ile apainketa nola nahi duzu? Elkarrizketan ala isilik?”. Bigarrena baldin bazen erantzuna, enpleguak ez zion bezeroari beste hitzik zuzentzen, zerbitzua amaituta hura atean zegoela “Nahi duzun arte” delikatua opa bitartean. Baina bezeroa hirtuna bazen eta mintzatzeko desioa azaltzen bazen, orduan ile apaintzaile jakintsuak hurrengo galdera egiten zion: “Eta elkarritzeta nola nahi duzu? Arrazoia emango dizut ala kontra egingo?”. ■

Askoz komunikazio gehiago dago gure edozein tabernatako mus partida batean, interneteko foro eta *chat* gehienetan baino, zeintzuetan lehenasuna norberaren egoa ferekatzea izaten den

ASTE HONETAKO

zozketak




Maria Cristina Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Okendo kalea, 1
Donostia GIPUZKOA

www.mariacristina.es

1



Arzak Jatetxea

Afaria
2 lagunentzat

Mirakruz gaina, 21
Donostia GIPUZKOA

www.arzak.info

2



Chillida-Leku Museoa

2 harpidedunentzat
bina sarrera

Jauregi auzoa, 66
Hernani GIPUZKOA
www.museochillidaleku.com

3



GOG estudioa

Mahaiko edo hormako
3 argimutil opari

Descalzos kalea, 72-bis
Iruñea, NAFARROA

www.estudiogog.com

4



illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda



5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

JOLASTOKI JATETXEA

- Ikerné Gallastegi Olabarriaga (Abadiño)

URDZUBIKO LEZEAK

- Leintz Udál Euskaltegia (Aretxabaleta)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)
- Txebis Gorrotxategi Gorosabel (Ermua)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
- Juankar Bermejo Mateos (Tutera)

TARPOON URPEKARITZA

- Joseba Berriotxo Alberdi (Zornotza)

ANARKIA HUTSA

- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
- Jesus Peñagarikano Labaka (Ibarra)
- Leire Goenaga Uzkudun (Errezil)
- Xabier Rico Iturrioz (Gasteiz)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)

KIROLAZ BADAKIT

- Uxune Iriondo Urbitzazu (Getxo)
- Xabino San Sebastian Murua (Oñati)

JARAren
birugarrena...



irakurri
den-dena!!!



abcdefghijklmnopqrstuvwxyz

z u b i a
argitaletxea